



Emakumeen aurkako etxe barruko Indarkeria

2009ko emaitzak eta
2005-2009 konparazioa
Bizkaiko Lurralde
Historikoan



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Emakumeen aurkako etxe barruko Indarkeria

2009ko emaitzak eta
2005-2009 konparazioa
Bizkaiko Lurralde
Historikoan



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Edizioa: Bizkaiko Foru Aldundia. Diputación Foral de Bizkaia
Gizarte Ekintza Saila. Departamento de Acción Social
Ugasko 3, 2. solairua.
48014 BILBAO

Egileak: Marce Masa y Alfonso Unceta

Moldiztegia: Gráficas Mungia

Diseinua: Logaritmo. Diseño y Comunicación Visual

ISBN: 978-84-7752-460-2

L. G.: BI-3588-09

I.KAPITULUA SARRERA	7
II. KAPITULUA HELBURUAK	11
2.1. Helburu orokorra	13
2.2. Helburu espezifikoak	13
III. KAPITULUA IKERKETAREN DISEINUA	15
3.1. Aurrekari batzuk	17
3.2. Erabilitako sailkapen hirukoitza	17
3.2.1. Adierazitako tratu txarra	18
3.2.2. Tratu txar teknikoa	18
3.2.3. Tratu txar teknikoa zentzu hertsian	18
3.3. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriaren.	
Bost tipologiak	19
3.3.1. Indarkeria Fisikoa	20
3.3.2. Indarkeria Sexuala	20
3.3.3. Indarkeria Ekonomikoa	20
3.3.4. Indarkeria Psikologikoa	20
3.3.5. Indarkeria Soziala	20
3.4. Emakumeen aurkako indarkeria egoerek Bizkaiko eguneroko bizitzan duten gizarte presentziaren ezagupena eta beste interes batzuk	20
3.5. Laginaren segmentazioaren aldagaiak	20
3.6. Landa lana: iruzkinak.	21
IV. KAPITULUA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ETXE BARRUAN, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN: EMAITZEN AZTERKETA.	23
4.1. Adierazle nagusiak	25
4.2. Ezaugarri soziodemografikoak.	25
4.2.1. Adin taldeak	25
4.2.2. Bizikidetzak, ekonomia eta gizarte (edo gizarte klase) egoera	27
4.2.2.1. Bikote harremanak.	27
4.2.2.2. Egoera zibila	28
4.2.2.3. Bizikidetzako gune mota	28
4.2.2.4. Diru ekarpen nagusia bizikidetzako gunera	29
4.2.2.5. Gizarte posizioa (gizarte klase subjektiboa)	30
4.2.3. Ikasketa maila.	31

4.2.4. Lan egoera	32
4.2.4.1. Emakume landunak	32
4.2.4.2. Emakume langabetuak eta ez-aktiboak	33
4.2.5. Jaioterria: kasu asko emakume atzerritarren artean	34
4.2.6. Bizilekua (udal tipologia)	35
4.3. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerak Bizkaian gaur egun	36
4.3.1. Emaitzak egoeren arabera: "etxeke lana ez baloratzearen" hegemonia.	36
4.3.2. Emaitzak tipologiaen arabera: indarkeria psikologikoa kasu guztietan	37
4.3.3. Egoeren iraupena denboran	39
4.3.4. Bikotekidea, tratu txarraren emaile nagusia: adina, ikasketa maila eta lan egoera	39
4.4. "Tratu txar teknika zentzu hertsian": arrisku egoeran dagoen emakume talde baten azterketa espezifiko	41
4.4.1. Ezaugarri soziodemografikoak	41
4.4.2. Emaitzak egoeren arabera: "etxeke lana ez baloratzearen" hegemonia txikiagoa.	42
4.4.3. Emaitzak tipologiaen arabera: adierazitako tratu txarrera hurbiltzen	43
4.4.4. Denboran irauten duten egoerak	44
4.4.5. Bikotekidea, berriro ere, tratu txarraren emaile nagusia: adina, ikasketa maila eta lan egoera	44
4.5. "Azken bi urteetan "Adierazitako Tratu Txarra": azterketa espezifiko	46
4.5.1. Indarkeria psikologikoaren nagusitasuna	46
4.5.2. Oraingo bikotekidea, tratu txarraren emaile nagusia	46
4.5.3. "Alkohola neurri barik edatearen" protagonismoa indarkerian	46
4.5.4. Emakumeen aurkako indarkeriadun harremanak haustea, eta horren ondorioak emakumeentzat	47
4.6. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren gizarte presentzia Bizkaian	47
4.6.1. Emakumearen aurkako indarkeria: arazo nagusienetarikoa bat Bizkaiko emakumeentzat	48
4.6.2. Lagunak, auzokoak eta ezagunak: inguru hurbilean identifikatzen diren kasuan	49
4.6.3. Bikotekide ohia eta senarra: inguru hurbilean identifikaturiko tratu txarraren emaile nagusiak	50
4.6.4. Indarkeria psikologikoarekin batera indarkeria fisikoa dator	50
4.6.5. Salaketa ezaren nagusitasuntxoak kasu hauetan	50
4.7. Halako harremanak hausteko oztopoak	51
4.8. Laguntzako baliabideei buruzko informazio asko	52

V. KAPITULUA	EMAITZEN KONPARAZIOA: 2005-2009	55
	5.1. Identifikaturiko kasuen ehuneko txikiagoa hiru taldeetan . . .	57
	5.2. Batez besteko adinaren beherakada identifikaturiko kasuetan .	57
	5.3. Kasu kopuruaren gorakada jatorriz atzerritarrak diren emakumeen artean.	59
	5.4. Kasu kopuruaren gorakada gizarte klase ertaineko eta baxuko emakumeen artean, eta beherakada klase ertain-altuko eta altuko artean	59
	5.5. Kasu kopuruaren gorakada 50.000 Biztanle baino gehiagoko udalerrietan	60
	5.6. Kasu kopuruaren gorakada emakume aktiboen artean	60
	5.7. Bikotekidearekiko mendekotasun ekonomiko txikiagoa.	61
	5.8. Indarkeria psikologikoaren eta indarkeria sozialaren presentzia handiagoa	61
	5.9. Etxe barruko indarkeria egoerarik oraintsukoetak	62
	5.10. Alkohola neurri barik edatearen presentzia handiagoa	62
	5.11. Gizartearen sentikortasun handiagoa, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoerei dagokienez	63
	5.12. Inguru hurbileko egoerei buruzko albiste gehiago	63
	5.13. Jarritako salaketei buruzko albiste gehiago	63
	5.14. Laguntzako baliabideei buruzko informazio gehiago	64
VI. KAPITULUA	EMAITZEN LABURPENA	65
VII. KAPITULUA	ONDORIOAK	73
VIII. KAPITULUA	BIBLIOGRAFIA	79
I. ERANSKINA	TAULEN ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA	83
II. ERANSKINA	TELEFONOZKO GALDEKETA. (2009KO MAIATZA-EKAINA)	89



I. kapitulua

Sarrera

Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria ikerketa, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak egindakoa, *ikerketa aurrendaria* izan zen, bai Lurralde Historikoan eta bai Euskal Autonomia erkidegoan¹.

Aurrendaria izan zen emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoerei buruzko adierazleak lehenengoz aurkeztu zirelako, halako egoerak *zuzen-zuzen* eta bitartekorik gabe *identifikatzeko*; beraz, ez ziren zeharkako adierazleak; hain zuzen ere, arlo honetako zenbait erakunde-zerbitzuek estatistiken edo beste adierazle mota batzuen bidez (salaketak, arretak, etab.) bildu zituzten adierazleak. Aurrendaria izan zen, halaber, ikerketa Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriaren *gizarte-presentziaren* maila identifikatzeko gauza izan zelako.

Dirudenez, informazio hori lau urte georago eguneratzeko une egokia zen, ez oraingo egoera identifikatzeko bakarrik, baita laurtekoaldi horretan zeharkako *joera* batzuk zein izan diren jakiteko ere, adierazleak *konparatuz*.

Ikerketa honen helburu nagusiak bi planteamendu horiek osatzen dituzte, eta, horrenbestez, helburuok lortzeko, zehatz *berrerabili* ditugu lehen adierazitako argitalpenean erabilitako estrategia metodologikoa eta emaitzen adierazpen analitikoa. Horrela, 3. kapituluari, berriro azaldu dira ikerketa oinarritu duten erreferentzia teorikoak eta metodologikoak, emakume taldeen sailkapenak (etxe barruko indarkeriarekiko loturaren arabera), bost tipologiari bereizitako indarkeria-egoerak, laginaren segmentazio-aldagaiak eta landa-lanaren garapenean sorturiko iruzkin garrantzitsu batzuk.

4. kapituluari, ikerketaren adierazle nagusiak azaldu ondoren, emakumeen ezaugarri soziodemografikoak azaldu eta horien azterketa espezifikoa egiten da, etxe barruko indarkeriarekiko oraingo loturaren arabera erabilitako sailkapen hirukoitzean (hau da, "Adierazitako Tratu Txarra", "Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian" eta "Tra-

tu Txar Teknikoa") eta halako egoerek gizartean duten presentzia oinarrituz, baita arlo honetan dauden laguntzako baliabideen ezagupen mailan oinarrituz ere. Eta 6. kapituluari, orain arte ditugun datu guztiak laburbiltzen saiatu gara.

Desberdintasun bakarra 5. kapituluari dago; bertan, Bizkaian bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriaren arloko emaitza nagusiak konparatu dira, 2005etik 2009ra bitartekoak.

Era berean erabilitako galdeketa eranskintzat sartu dugu, ostera ere. Gure ustez, erabat baliozkoa da, eta, hortaz, bera erabiltzeko gomendioa eman nahi dugu, bide honetatik jarraitu nahi duten pertsona eta erakunde guztien lan-tresnatzat. Galdeketa, 2009ko bertsio honetan, hitz batzuen eguneratze sintaktikoa eta semantikoa egiteaz gain, galderetariko baten zentzua ere hobetu dugu, hain zuzen ere, 36. zenbakiko galderaren zentzua.

Gure iritziz, bidezkoa da sarrera honi amaiera emateko, hiru alderdi adieraztea: lehenengo eta behin, eta, segurutzat, garrantzitsua dena, eskerrik zintzoenak eman nahi dizkiegu ikerketa honetan inolako interesik gabe parte hartu duten emakume guztiei, euren esperientziei buruzko informazioa eta emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriari buruzko iritzia eman baitituzte. Esker hauek oraindik handiagoak dira tratatu txarrak jasane eta euren oraintsuko esperientziak jakinarazi dizkiguten emakumeentzat. Bigarrenez, aipagarria da Teyser XXI enpresak landa-lanean egindako lana; izan ere, xehetasunek halako ikerketetan duten garrantziaz jabetzen den talde tekniko baten ohiko sentikortasuna erakutsi du. Eta, hirugarrenez, halako ikerketak egiten jarraitzeko adorea eman nahi dugu, aukera ematen baitute denboran iraunkorrak diren gizarte-adierazleak lortzeko, eta, horrela, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria bezalako errealitate hain garrantzitsuen eta konplexuen joerak egiaztatzeko.

¹ BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. GIZARTE EKINTZA SAILA. *Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria. Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako ikerketa baten emaitzak*. Bilbo, 2006 (ISBN: 84-7752-414-9).



II. kapitulua

Helburuak

2. HELBURUAK

2.1. HELBURU OROKORRA

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeraren diagnostikoa hobetzea; diagnostikohori Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza saileko Emakumea eta Familia Zerbitzuak egiten du.
2. 2005etik 2009ra erabilitako adierazle batzuetan egon daitezkeen aldaketa garrantzitsuak kontuan hartzea.

2.2. HELBURU ESPEZIFIKOAK

1. Bizkaiko Lurralde Historikoan etxe barruan gertatzen diren 18 urteko edo gehiagoko emakumeen aurkako indarkeria-egoera kopurua zehaztea.
2. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeren tipologia ezartzea: "fisikoa", "sexuala", "ekonomikoa", "psikologikoa" eta "soziala".
3. Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoerak bereiztea, sailkapen hirukoitza aintzat hartuta: "Adierazitako Tratu Txarra", "Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian" eta "Tratu Txar Teknikoa".
4. Etxe barruko indarkeria-egoerak bizi dituzten emakumeen "ezaugarri sozio-demografikoak" aztertzea: adina, bizikidetzako gunea (bikote-harremanak, egoera zibila, diru-ekarpena, gizarte-kласea), ikasketa maila, lan-egoera, jaioterrria eta bizilekua (udal-tipologia).
5. Halako harremanak haustea "oztopatzen" duten era guztietako faktoreak identifikatzea (kulturakoak, hezkuntzakoak, administratiboak edo beste motaren batekoak).
6. Indarkeria-egoera hauek etxe barruan sortzen dituzten "ondorioak" zein diren jakitea, eraginpeko emakumeek diotena kontuan hartuta.
7. Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeren "ezagupen maila" edo "gizarte-presentzia" ikertzea.
8. Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoen tratu txarren "emaile" motaren profila zein den jakitea.
9. Emakume taldeek oraingo laguntza baliabideak zein mailatan ezagutzen dituzten identifikatzea.
10. 2005etik 2009rako emaitzen arteko berdintasun eta, batez ere, desberdintasun nagusiak azaltzea.



III. kapituluu

Ikerketaren diseinua

3. IKERKETAREN DISEINUA

Kapitulu honetan, hauxe aurkeztuko da: ikerketan diseinu teorikoa eta metodologikoa lantzeko prozesuan egin diren ekarpen nagusiak eta aurrekariak; emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriaren definizio espezifikoa, indarkeria-adierazpenaren bost tipologiak (fisikoa, sexuala, ekonomikoa, psikologikoa eta soziala), barruan etxe barruko tratu txarra dagoela adierazten duten hamalau egoerak biltzen dituztenak, eta Bizkaiko emakumeek etxe barruko indarkeriarekin orain duten erlazioa ulertzeko erabiltzen diren hiru sailkapenak; hain zuzen ere, Adierazitako Tratu Txarra, Tratu Txar Teknikoa eta Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian.

Gero, ikerketan parte hartu duten emakumeen laginerako erabakigarriak izan diren aldagaiak azalduko dira; azkenik, landa-lanean sorturiko iruzkinetariko batzuk aurkeztuko ditugu, horiek, zalantza barik, interesgarriak direlako eta, gainera, egiten diren interpretazio batzuk testu-guruan lekutzeko baliozkoak direlako.

3.1. AURREKARI BATZUK

Erreferentziako ereduak, 1999tik, Berdintasun Ministerioko Emakumearen Erakundeak garaturiko ikerketek osatu dute². Eta, hain zuzen ere, honako hiru alderdi hauek: CATI sistemaren bidezko telefonozko galdeketa erdi egituratua, informazioa biltzeko teknikatzat; ikerketaren helburu nagusia ezkutatzeko teknika, bertan parte hartu ahal duten emakumeekin harremanetan jartzean; eta emakumeak identifikatzeko sailkapen bikoitza, etxe barruko indarkeria-egoeran duten lotura mailaren arabera.

Plataforma horretan oinarrituz, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak 2005ean sustaturiko *Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria* ikerketak lau ekarpen metodologiko garatu zituen:

1. erabilitako telefonozko galdeketa diseinatzea, talde tekniko soziologikoa eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko taldeak erabili dutena;
2. "Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian" izeneko sailkapen berria "ad hoc" sortzea,

eta hori Emakumearen Erakundeak erabilitako biei gehitzea ("Adierazitako Tratu Txarra" eta "Tratu Txar Teknikoa"), agian hobeto egokitzen baita "errealitatera";

3. Emakumearen Erakundeak erabilitako emakumearen aurkako etxe barruko indarkeria-tipologiak berriro formulatzea eta eguneratzea;
4. eta, azkenik, gizarte-errealitate honetan bi ezagupen-arlo berri identifikatzea: bikote-harremanak hausteak emakumeengan sortzen dituen ondorioak eta Bizkaiko inguru hurbileko emakumeen aurkako indarkeria-egoeren ezagupen maila, horrek gizarte-dimentsioa ematen baitio fenomeno honen nahitaezko banakako dimentsioari.

Bestalde, galdeketa ia berdinean mantendu da; hala eta guztiz ere, 2005ean egindako ikerketak aukera eman zuen galdeketa 36. galdearen formulazioa ez zela guztiz argia egiaztatzeko; galdera horren bitartez, Bizkaiko emakumeek etxe barruko indarkeria-egoerarako dauden baliabideak zein neurritan ezagutzen zituzten jakin nahi zen. Kasu honetan, gaia oraindik ere gehiago zentratu da, eta berriro ere irekita utzi da garatu beharreko ekintzaren azalpena (zer eta non).

3.2. ERABILITAKO SAILKAPEN HIRUKOITZA

Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeren gizarte barruko ikusezintasuna, halako egoeren mantentamendua (eremu pribatuetan) eta ikerketaren helburua ezkutatzeko estrategia (aukera metodologikorik egokiena delakoan) kontuan hartuta, informazioa biltzeko teknika diseinatzean eta garatzean nahitaez integratu behar dira emakumeen aurkako etxe ba-

² EMAKUMEAREN ERAKUNDEA. *La violencia contra las mujeres. Resultado de la macroencuesta. 1999ko uztaila*. Madrid. 2000; eta *La violencia contra las mujeres. Resultado de la macroencuesta. 2002*. Madrid. 2003 (inprimaturiko edizio barik). *III. Macroencuesta sobre la violencia contra las mujeres. Informe de resultados. 2006ko apirila*. Makroinkestak horiei esker, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriari buruzko datu adierazgarriak ditugu lehenengoz, Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako 18 urtetik gorako emakumei buruzkoak.

rruko indarkeriaren zuzeneko adierazleak eta zeharkako adierazleak.

Informazioa biltzeko prozesu horretan, hiru emakume talde nagusi bereizi behar dira, etxe barruko indarkeriarekiko duten egoeraren arabera; hain zuzen ere: Adierazitako Tratu Txarra, Tratu Txar Teknikoa eta Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian.

3.2.1. Adierazitako Tratu Txarra

Emakumearen Erakundeak egindako ikerketek "B motako emakume" gisa hartzen dituzte galdeketan, azken urtean, etxe barruan edo harreman afektiboren edota sentimentalen batean, indarkeria-egoeraren bat jasan dutela esan duten emakumeak.

Ikerketa honetan, neurri handian, onartu egin dugu sailkapen edo irizpide hori, eta, beraz, Adierazitako Tratu Txarraren barruan honako hauek sartu ditugu: azken bi urteotan tratu txarrak jasan dituztela zuzen-zuzen adierazten duten emakumeak; hau da, erabilitako galdeketako 24. galderari baiezkotza erantzuna ematen diotenak³.

3.2.2. Tratu Txar Teknikoa

Definizio hau ere Emakumearen Erakundetik hartu da; horren arabera, "A motako emakumeen" ezaugarri nagusia hau da: orain arte etxe barruko tratu txarrik zuzenean edo berariaz jasan dutela adierazi ez arren, euren erantzunak kontuan hartuta (galdeketako 21. galderan proposaturiko etxe barruko hamalau -14-indarkeria-egoeratariko bati -gutxienez- emandako erantzunak, sarritan edo batzuetan kategorietan), esan daiteke, zeharka behintzat, gaur egun etxe barruko indarkeria-egoerak jasaten dituztela.

Ikusten denez, sailkapen tekniko honen alderdi bereizgarria ez da galdeketako 24. galderari baiezkotza erantzuna ez ematea bakarrik, indarkeria-egoera horrek edo beste batzuek etxe barruan duten maiztasuna baizik. Denbora-aldagai honek ("sarritan" edo "batzuetan" kategoriak) agerian jartzen du ira-

gankorrak edo koitunturaren arabera ez diren emakumeen aurkako indarkeria-egoerak daudela, eta egoera horiek kasuan kasuko harreman afektiboen edota sentimentalen ohiko jokabideak direla.

3.2.3. Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian

Hirugarren sailkapen hau da ikerketa honetako bereizgarritasunetariko bat. Emaitzak aztertzean egiaztatu zenez, "Tratu Txar Teknikoa" sailkapenaren barruko emakume talde handiak indarkeria-egoerak identifikatzeko hamalau egoeratariko bati soilik erantzuten zion "sarritan" edo "batzuetan"; hain zuzen ere, "ez du baloratzen egiten duzun lana (21. or., 12. enuntziatua)".

Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoera honen erantzunaren eskusibotasunak (indarkeria psikologikoaren barruan) eta, horrela, "sarritan" edo "batzuetan" kategorietako gainerako egoerei ez erantzuteak agerian jartzen du izaera oso zehatzeko gertakari baten aurrean gaudela. Tratu Txar Teknikotzat sailkatutako emakumeen artean, etxe barruko indarkeria teknikoan bi maila daude.

Lehenengo mailako emakumeek, euren erantzunen bidez, modu eskusiboan adierazi dute (galdeketako 21. galderako 12. enuntziatuari "sarritan" edo "batzuetan" bakarrik erantzun) ezin negon orokorra dutela, geurea bezalako gizarte baten barruan; izan ere, kulturaren aldetik, gure gizarteak beheragoko kategoria batean sartu ditu etxean eta familian egiten diren jarduerak, laneko agertokiak eta agertoki publikoen nagusitasunaren ondorioz. Eta, "produktzio-paradigma" horrek, aldi berean, gizarteko rolak eta agertokiak generoaren arabera esleitzea eragiten duenez, gizona-publikoa eta emakumea-pribatua bereizketaren ondorioz, etxean eta familian egiten diren jarduerak balorazio txarragoa dute gizartean⁴. Horrela, bidezkotzat jo da etxean egindako lana ez baloratzearen iraina mantentzea ("ez du baloratzen egiten duzun lana -21. galdera, 12. enuntziatua-", eta hori emakumeen aurkako arlo horretako indarkeriaren beste adierazpen bat da, Tratu Txar Teknikoa sailkapenaren barruan sartzen dena.

Hala eta guztiz ere, "ez du baloratzen egiten duzun lana (21. galdera, 12. enuntziatua)" egoerari "sarritan" edo "batzuetan" soilik

³ Aldaketa, beraz, indarkeria-egoeraren aldiak kokatzen da; gure kasuan, bi urtera arte luzatu dugu (Emakunderen ikasketetan urtebeteko aldia erabiltzen da).

⁴ MURILLO, S. autorearen *El mito de la vida privada. De la entrega al tiempo propio*. Siglo XXI. Madrid. 1996 ikerketa funtsezko erreferentzia da, etxe barrua gizarte-balorazio urriko harreman-tokia izatea eragiten duen kultura-bilbatura ezagutzeko; horren ondorioz, balorazio hori harreman-toki horretan gehienbat murgilduta dabiren emakume-generora hedatzen da.

erantzun dioten emakumeen erantzunak aintzat hartu ezean, etxe barruko indarkeria teknikoaren barruan bigarren maila bat dago: tratu txarrak jasateari buruz ezezko erantzuna eman arren (hau da, galdeketako 24. galderari ezezko erantzuna), beste indarkeria-egoera bati edo batzuei baieztatu erantzuna eman dioten emakumeak ("ez du baloratzen egiten duzun lana -21. galdera, 12. enuntziatua-" kasua barruan izan dezaketen egoerak), galdeketako 21. galderan jasotako balizko hamalau egoeren barneko "sarritan" edo "batzuetan" kategorietan. Eta horixe da, hain zuzen ere, "*Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian*" sailkapena; hau da, Adierazitako Tratu Txarraren taldean adierazitako egoeretatik hurbilago dagoen emakume taldea; hori dela eta, garrantzi analitiko handia dute, bai ikerketa honetan eta bai orain dela lau urte egin zen ikerketan.

3.3. EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIAREN BOST TIPOLOGIAK

Ikerketa honek izaera enpiriko handia badu ere, berriro azaldu behar dira gaur egun emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan dauden hausnarketa-ildo nagusiak, ikertu beharreko gaia zehaztu ahal izateko.

Bibliografiari buruzko kapituluan, fenomeno hau ulertzeko eta testuinguruan txertatzeko garrantzitsuenak diren (gure ustez) erreferentzien zerrenda azaltzen da; ez da zerrenda zehatza, eta gaztelaniazko erreferentziak baino ez dira aipatu. Fenomeno honi buruz, ikuspegi soziologikoen, pedagogikoen, filosofikoen, psikologikoen eta abarrek esaten dute oso konplexua dela, bertan faktore askok eta anitzek parte hartzen dutelako; halaber, erasokortasuna eta indarkeria berezi beharra dago.

Martín Serranok indarkeriari buruz emandako definizio hau onartzen dugu: "*beste pertsona bati kalte fisikoa edota ahozkoa egitera (pertsona horren osotasun fisikoan edo bere ondasunetan) nahita bideraturiko gizarte-ekintza guztiak, oinarrizko (adibidez, etxe barruan) edo bigarren mailako (esate baterako, ikastetxeak, aisialdiko lekuak, lantokiak, etab.) agertokietan gauzatzen direnak, egileek banaka edo taldeka jarduten dutenean, azken kasu horretan antolamendu eta egonkortasun maila desberdinekin*"⁵.

Emakumeen aurkako indarkeria oso zabala da, horretarako agertokiak edo eremuak ere zabalak baitira; ikerketa honetan, hain zuzen ere, indarkeriako gizarte-ekintza horien adierazpen bat aztertuko dugu, eremu jakinean, hau da, etxe barruan garatzen dena⁶. Etxe barruko eremua zentzu zabalean ulertzen da; izan ere, horren barruan, batik bat, etxebizitza baten barruko bizikidetzaren gunean garaturiko familia-harremanak eta harreman afektiboak sartzen dira (oinarrizko agertokia, Martín Serranoren arabera), baina etxe barruko eremuaren definizio honetan etxetik kanpo garatzen diren harreman afektiboak edota sentimentalak ere sartu nahi dira⁷.

Ados gaude Emakundek emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriari buruz emandako definizioarekin: "*emakumei kalte edo oinaze fisikoa, sexuala edota psikologikoa eragiten dien edo eragin ahal dien edozein egite edo ez-egite eta kontroleko edo mehatxuko edozein jokabide, oraingo edo lehengo familia-harremanetan edo harreman afektiboetan gertatzen dena, ohikoa eta iraunkorra izanez gero*"⁸.

Hala eta guztiz ere, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriaren aterkiaren azpian tratu txar mota desberdinak daude. Gure iritziz, eta geure ingurutik hurbilenean egindako beste ikerketa batzuen lan-ildoari jarraituz⁹, ikerketa honetan identifikatu beharreko Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkerian bost tipologia hauek ezarri ahal dira.

⁵ MARTÍN SERRANO, M. *Violencia y Juventud I*. Madrid. Instituto de la Juventud. 1994.

⁶ "Etxe barruko" adierazteko "agertoki" hitza erabiltzearen helburua gure eguneroko bizitzako eremu horretan garaturiko gizarte-jardueraren multzoa metafora baten bidez adieraztea da. Planteamendu horretarako hurbiltze bat MASA, M. autorearen lan honetan aurkituko dugu: "Antes de la política: la estructuración de lo cotidiano en el País Vasco." *Inguruak. Revista Vasca de Sociología*, 2000, 28. zenb., abendua, 153-162. or.

⁷ "Etxe barrua" kontzeptua eta "emakumeen aurkako indarkeria" kontzeptua ("genero indarkeria" kontzeptuaren orde) erabiltzea bidezkoa izatearen ala ez izateren inguruan dauden eztabaidei buruzko hausnarketa batzuk honako hauen testuetan aurkituko ditugu: EMAKUNDE. *Emakumeen aurkako indarkeria*. Gasteiz. 2005eko maiatzeko eguneratuta, 3. or. eta hurrengoak (2009ko apirilko eguneratzea dago), eta IBÁÑEZ GONZÁLEZ, M. *Etxe barruko indarkeria Euskadin: tratu txarrak emakumeari*. *Tratu txarreko harremanak hausteko prozesuaren azterketa eta zehaztapena*. Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza. 2004, 37. or. eta hurrengoak.

⁸ EMAKUNDE. *Emakumeen aurkako indarkeria*. Op., cit., 8. or. (énfasis geurea).

⁹ EMAKUNDE. *Emakumeen aurkako indarkeria*. Op., cit., 8-9. or., eta IBÁÑEZ GONZÁLEZ, M. *Etxe barruko indarkeria Euskadin: tratu txarrak emakumeari*. Op., cit., 40-43. or.

3.3.1. Indarkeria Fisikoa

Nahita egin eta emakumeari kalte fisikoa egin ahal dion edozein jokabide edo egintza (sakatu, jo, erre, gauzak bota, armak erabili, mutilazioak, etab.).

3.3.2. Indarkeria Sexuala

Emakumearen borondatearen aurka nahita egiten den edozein jokabide edo egintza sexual.

3.3.3. Indarkeria Ekonomikoa

Emakumeak informazioa edo diru-erabilera edukitzea ekiditeko nahita egiten den edozein jokabide edo egintza, egiten diren gastuen gaineko kontrolean oinarritzen dena; baita dirua alferriki galtzea ere, bikotearen edota bizikidetzako unitatearen beharrezan kalterako denean.

3.3.4. Indarkeria Psikologikoa

Emakumearen banakako identitatea gutxiesteko nahita egiten den ahozko edozein jokabide edo egintza (irainak, mehatxuak, emakumearen ekintzen, sinesmenen eta iritzien gutxiespena, etab.).

3.3.5. Indarkeria Soziala

Emakumearen banakako nortasuna "jendearen aurrean" gutxiesteko nahita egiten den ahozko edozein jokabide edo egintza, baita emakumea bere gizarte-harremanen garapenean (familia, lagunak, auzokoak edo elkarteak, eta lankideak ere bai) isolatzeko edota bere autonomia pertsonala kentzeko egiten den edozein jokabide edo egintza ere.

Tipologia horien arteko mugak, praktikan, oso estuak izan daitezke. Indarkeria sexuala estu lotuta dago indarkeria fisikoarekin; indarkeria psikologikoa indarkeria fisikoa eragin dezake; indarkeria sozialak kalte psikologikoa egin ahal dio emakumeari, baita indarkeria ekonomikoak ere; hau da, konbinazioak asko izan daitezke, errealitatean oinarrituz. Baina bost tipologiak "kultura-oinarrian" sustraiturik daude; oinarri horrek oraingo egoera sortzen du, eta, gainera, generoen arteko harremanak mantentzea eragiten du, men-debaldeko gizartean eta Bizkaiko gizartearen ongizatearen testuinguruan. Emakumeen aurkako etxe barruko kultura-oinarriko indarkeria honen eguneroko adierazpenen aniztasuna identifikatzeko

gauza izatea da, hain zuzen ere, ikerketa honetan erabilitako bost tipologiaren helburu nagusia.

3.4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA-EGOEREK BIZKAIKO EGUNEROKO BIZITZAN DUTEN GIZARTE-PRESENTZIAREN EZAGUPENA ETA BESTE INTERES BATZUK

Ikerketa honetan, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeradun harremanak haustearen ondorioak adierazten dira, eraginpeko emakumeen iritzia kontuan hartuta ("Adierazitako Tratu Txarra" kategorian).

Baina banakako plano hau plano sozialago batera garamatzen emaitza batzuekin osatu da. Horrela, alde batetik, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeradun harremanen mantentzean eragina duten oztupoak identifikatu dira, Bizkaian bizi diren emakumei dagokienez; eta, bestetik, inguru hurbilean (hau da, familia, laguntzak, auzokoak eta lankideak) halako egoeren berri zein mailatan duten identifikatu da. Horrela, berriro ere, Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeren gizarte-presentziaren mailara hurbiltzeko aukera dugu, identifikaturiko egoeren identifikazio zehatza edo banakakoa gainditzeko duen testuinguru-kokapena eskainiz.

3.5. LAGINAREN SEGMENTAZIOAREN ALDAGAIK

2006ko Biztanleriaren Udako Errolda erreferentziatzen hartuta, etapa anitzeko laginketa mota bat egin da, bigarren mailako unitateak (udalerrak tipologia bakoitzaren arabera) eta azken unitateak (emakumeak) ausaz aukeratuta.

Laginak (estatistikoki adierazgarria) 606 galdeketa ditu. Lagin honek % \pm 4ko akatsa onartzen du, %95,5eko konfiantza mailarako eta $p/q=50/50$ erako.

Halaber, aditzera eman behar da banaketa, hain zuzen ere, tipologia bakoitzak biztanleriaren barruan duen garrantziaren arabera izan zela.

- 1. tipologia (50.000 biztanletik gorako udalerrak): 314 inkesta.
- 2. tipologia (20.001 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrak): 119 inkesta.

- 3. *tipologia* (5.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrriak): 111 inkesta.
- 4. *tipologia* (0 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrriak): 62 inkesta.

Laginketak bigarren mailako unitateekiko (udalerrriak) duen banaketa hau ezarri ondoren, tipologia bakoitzaren barruan *laginaren adierazgarritasuna* aukeratu zen, *adinaren aldetik, eta hori proportzionala izan zen emakumeek Bizkaiko Lurralde Historikoan duten adin-egiturarekin*. Hasierako premisa honetan oinarrituta, eta Emakumearen Erakundearen ikerketetan erabilitako banaketari eta adinak bizi-zikloko zenbait gorabeherekin duen loturari jarraituz, guztiz estandarizaturiko bost adin talde zehaztu ziren: 18-29 urte, 30-39 urte, 40-49 urte, 50-64 urte eta, azkenik, 65 urte edo gehiago (hirugarren adina eta laugarren adina).

Emakumeekin izan dugun kontaktua etxe barruan garatu dela kontuan hartuta, telefonozko deiak *ordutegi-zerrenda desberdinetan* egin dira. Horrela, emakumeen aniztasun handiagorekin jarri gara harremanetan, euren adinari dagokionez, eta ez etxe barruan sarrien dauden emakumeekin bakarrik (esate baterako, etxeoandreak).

3.6. LANDA-LANA: IRUZKINAK

Ikerketak hiru hilabete eskaseko iraupena izan zuen, eta hilabete batean landa-lana egin zen, hain zuzen ere, 2009ko maiatzaren 20tik ekainaren 19ra bitartean.

Landa-laneko zailtasunik handienak hiru izan dira, eta, horietan, adinaren eta bizilekuaren aldagaiek hartu dute parte. Lehenengo eta behin, 30 eta 39 urte bitarteko emakumeekin kontaktuan jartzea zaila izan da; izan ere, horietariko gehienak "lanbide bikoitza" dute, eta, beraz, ez dute astirik izan galdeketa erantzuteko. Horrenbestez, emakumeekin arratsaldeetan eta gauetan jarri gara kontaktuan.

Bigarren zailtasuna 65 urtetik gorako emakumeekin aurkitu dugu; hain zuzen ere, horietariko batzuek esan zuten halako gaiak dagoeneko ez direla euren ardurakoak, euren biografia-ibilbidea kontuan hartuta.

Azkenik, hirugarren zailtasuna aldagai sozioespazialean oinarritzen da, zailtasun handiagoak egiaztatzen baitira Getxoko udalerrian galdeketa

egiterakoan. Izan ere, 1. tipologiaren barruko udalerriko adin guztietako emakumeek esan dute galdeketa arazo "pertsonalegiak" aztertzen zirela, eta, gainera, galdeketa egiteari (egiten hasi ondoren) utzi dion emakume kopurua handiagoa izan da.

Aldiz, honako bi emakume talde hauen kasuan erraztasun handiagoak aurkitu ditugu: 18-29 urte bitarteko taldea, segurutik landa-lana egiteko garaiaren eraginez, garai horretan talde honek presentzia erlatibo handiagoa baitauka etxe barruko eremuan, ikasketa-garaia delako; eta, bestetik, jatorriz atzerritarren diren emakumeen taldea, horiek elkarrizketarako prestasun handiagoa baitute beti (gainera, eskertu egiten dute guk euren iritzia entzutea).

Orain dela lau urteko ikerketan bezala, landa-lanak berriro egiaztatu du udalerririk txikienetan bizi diren emakumeek uste dute emakumeen aurkako indarkeria ("tratu txarrak", kaleko hizkera erabilia) gehienbat udalerririk handietan gertatzen dela. Horrela, "hemen ez da halakorik gertatzen" edo "hemen denok ezagutzen dugu elkar" bezalako adierazpenak, ostera ere, nahiko ohikoak izan dira Bizkaiko udalerririk txikienetan bizi diren emakumeen artean. Hortaz, geure hipotesiaren arabera (lehen ere hipotesi hauxe genuen), gizarte-irudi horrek oztopatu egin dezake, mailaren batean, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-kasuan kopuru handiagorearen identifikazioa, halako udalerrietan.

Amaitzeko, galdeketa 24. galderan emakumeei azken urteotan "tratu txarrak" zein mailatan jaso dituzten galdetu zaienean (galdera horri baietz erantzunez gero "Adierazitako Tratu Txarra" taldean sartzen baitziren), berriro egiaztatzen da *tratu txar kontzeptua indarkeria fisikoarekin zuzen-zuzen lotzen dutela*. Horrenbestez, kontzeptu horrek eratxikipen edo esangura espezifikoa dauka gizartean, eta, bertan, dirudienez, ez dira tratu txarren beste tipologiak sartzen, adibidez, sexuala, soziala, ekonomikoa eta psikologikoa; azken horrexek dauka, hain zuzen ere, presentziarik handiena geure eguneroko bizitzan. Horrenbestez, hausnarketa egin behar dugu tratu txar kontzeptuaren erabilera aldatu edo murriztu behar izateari buruz, eta, horren ordez, indarkeriaren tipologia guztiak hobeto adierazteko beste kontzeptu bat erabili behar izateari buruz, kontuan hartuta dagoeneko instituzionalizaturik dagoen kontzeptu bat ordeztzea zaila dela.



IV. kapitulua

**Emakumeen aurkako
indarkeria etxe barruan,
Bizkaiko Lurralde
Historikoan:
emaitzen azterketa**

4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ETXE BARRUAN, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN: EMAITZEN AZTERKETA

Kapitulu honetan Bizkaian bizi diren emakumeei telefonoz egindako galdeketaren bidez egindako informazio-bilketan lorturiko emaitzak aztertzen dira.

Taulak edota grafikoak erabili ditugu emaitzak ikusteko; emaitza horiek, gainera, hiru emakume talderen arabera bereizi ditugu: *Adierazitako Tratu Txarra, Tratu Txar Teknikoa* eta *Emakume Guztiak (Bizkaikoak)*; dena den, 4.4 atalean, Tratu Txar Teknikoa taldearen ordez, *Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian* taldeko emaitzak sartu ditugu.

Banaketa hirukoitz horrek aukera ematen du azterketan emaitzen konparazio-ikuspegia sartzeko, ezarritako emakume talde bakoitzaren arabera, kontuan hartuta euren ezaugarri soziodemografikoak, euren eragina duten indarkeriako egoerak eta tipologia, euren inguru hurbilean halako kasuei buruz dagoen ezagupen maila eta kasuotan laguntzeko dauden baliabideen ezagupena (erakundeetako eta bestelako baliabideak).

4.1. ADIERAZLE NAGUSIAK

Ikerketaren bost emaitza nagusiak honako hauek dira:

- Bizkaian bizi diren emakume guztien %3,3k esan dute azken bi urteotan etxe barruko indarkeria-egoerak jasan dituztela (*Adierazitako Tratu Txarra* taldea).
- Bizkaian bizi diren emakume guztien %22,1ek esan dute, gaur egun, galdeketa honetan adierazitako emakumeen aurkako etxe barruko hamalau indarkeria-egoeratariko "bat" (gutxienez) "sarritan" edo "batzuetan" jasaten dutela (*Tratu Txar Teknikoa* taldea).
- Bizkaian bizi diren emakume guztien %11,2k esan dutenez, "gaur egun" galdeketa honetan adierazitako emakumeen aurkako etxe barruko hamalau indarkeria-egoeratariko bat (gutxienez) "sarritan" edo "batzuetan" jasaten dute, aintzat hartu barik "sarritan" edo "batzuetan" kategorietan "ez du baloratzen egiten dudana (21. galdera, 12. erreferentzia)" egoera

soilik adierazi duten emakumeak (*Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian* taldea).

- Bizkaian bizi diren emakume guztien %19,1ek esan dute inguru hurbileko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeren berri dutela.
- Bizkaian bizi diren emakumeen %78,5ek esan dute badakitela zer egin edo nora jo, etxe barruko indarkeria-egoeretan.

4.2. EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK

Ikerketen diseinuak aukera ematen du Bizkaian bizi diren emakumeen sei adierazle soziodemografiko hauek eta etxe barruko indarkeriarekiko loturaren araberrako talde desberdinak zein diren jakiteko:

1. Adin taldeak.
2. Egoera ekonomikoa, bizikidetzakoa eta gizartekoa; honen barruan bikote-harremanan mota, egoera zibila, bizikidetzako gunea edo eredu, bertarako diru-ekarpen nagusia eta gizarte-klase subjektiboa sartzen dira.
3. Ikasketa maila.
4. Lan-egoera (aktiboak eta ez-aktiboak bereizita).
5. Jaioterria.
6. Eta, azkenik, bizilekua, Bizkaiko udal-tipologiaren arabera.

4.2.1. Adin taldeak

Ikerketa honetan detektaturiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-kasuek adin taldeen arabera duten banaketak konparazio-irizpidea objektiboak ezartzeko aukera ematen du, Bizkaiko emakumeen guztizkoari dagokionez; izan ere, galdeketa parte hartu duten emakumeak hautatzeko irizpide nagusienetarikoa bat, lehen esan dugunez, Bizkaian bizi diren 18 urteko eta gehiagoko emakume guztien adin-egitura "errealan edo ofizialan" oinarrituz finkatu da, 2006ko errolda kontuan hartuta.

Emakumeen adin-egitura, horrenbestez, aldagai azaltzailea eta garrantzitsua da ikerketa honetan; konparazio hori egitea ezinezkoa da gainerako aldagai soziodemografikoen kasuan; hala ere, horiek hautatzeko ausazkotasuna Bizkaian bizi diren emakumeen errealitatera hurbildu beharko litzateke.

Dakigunez, adinaren aldagaiak garrantzi handiko informazioa ematen du; izan ere, aldi komunean jaio den pertsona-segmentu baten **belau-naldira** hurbiltzeko aukera ematen du. Adinaren aldagaiaren interpretazio soziologikoaren lehenengo dimentsio hau ez da jaiotzan oinarritzen, aldi historiko jakinean jaiotako pertsona batzuen sozializazioaren kultura-testuinguruan baizik.

Baina pertsona batek denboran izandako **biografia-ibilbidea** ere adierazten du adinak. Eta adinaren bigarren interpretazio soziologiko hori (**bizi izandako esperientzia**) ikerketa honetan aintzat hartu beharreko elementua da. Izan ere, gai honi buruz egin diren ikerketarik gehienek planteatzen dutenez, emakumeen adina zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta aukera handiagoa dago etxe barruko indarkeria kasuak aurkitzeko, halako kasuan, gehienetan, bizikidetzako edo bikoteko egoera bati lotuta baitaude.

1. grafikoaren emaitzek berretsi egiten dute, neurri batean, adin handiagoaren (biografia-ibilbidea) eta Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeren presentzia handiagoaren arteko lotura. Hain zuzen ere, Tratu Txar Teknikoaren taldean halako egoeren presentzia handiagoa egiaztatu da, emakumeen adina han-

ditu ahala; hain zuzen ere, 50-64 urte bitarteko kohortean (%26,1) eta 65 urteko eta hortik gorako kohortean (%29,9) gaudituz egiten da Bizkaiko garrantzi proportzional erreala; hala eta guztiz ere, Adierazitako Tratu Txar Teknikoaren kohorteko emaitzek apurtu egiten dute logikoa hori.

Horrela, lehenengo eta behin, 50-64 urteko (%15) eta 65 urteko eta gehiagoko (%20) kohortek adin horretako biztanleria osoaren garrantzi proportzionalaren azpitik daude Bizkaian (hurrenez hurren, %22,9 eta %27,9).


Bigarrenez, ikerketa honetan identifikaturiko **lehenengo berezitasunetariko** bat Adierazitako Tratu Txarra taldeko **49 urtetik beherako kohorteen** emaitzek eman dute. Adierazitako Tratu Txarraren ehunekorik handiena **40-49 urte bitarteko** emakumeen taldean dago, adin-tartean arabera; hain zuzen ere, **guztizkoaren %30**. Hirurogeiko hamarkadan (1960-1969) jaiotako emakume horiek, gainera, ehuneko 12,2 puntu gorago daude, Bizkaian bizi diren adin bitarteko horretako emakumeen multzo osoa baino (hau da, %17,8).

Ildo horretatik jarraituta, eta hirugarrenez, **1. grafikoan** ikusten denaren arabera, **18-29 urte bitarteko adin-tartean**, azken bi urteotan etxe barruko indarkeria-egoerak bizi izan dituztela esan duten emakumeen **talde osoaren %20 biltzen** dira. Laurogeiko hamarkadan (1980-1991) jaiotako Bizkaiko emakumeen ehuneko hori 65 urteko edo gehiagoko emakumeen ehunekoaren antzekoa da, Adierazitako Tratu Txarra taldearen barruan, eta, gainera, Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen adin-egituran duen garrantziaren arabera dagokiona (%13,7) baino 6,3 puntu gorago dago.

Beste gauza bat Adierazitako Tratu Txarra talde osoaren %15 30-39 urte bitarteko emakume-tartean identifikatzea izango litzateke; emakume talde hori hirurogeita hamarrekoko hamarkadan jaio da (1970-1979), eta bere ehuneko 2,7 puntu txikiagoa da, Bizkaiko emakumeen adin-egituran duen garrantziaren arabera dagokiona baino (%17,7).

Ikusteko moduan adierazita egon ez arren, komenigarria da emakume talde bakoitzaren **batez besteko adina**: Tratu Txar Teknikoaren taldean 52,94 urte, nagusienak; Bizkaiko emakume guztien kasuan 50,92; eta, azkenik, Adierazitako Tratu Txarra taldean 47,45 urte. Adierazle hori kontuan hartuta, beharrezkoa da 2005en eta 2009ren ar-

1. GRAFIKOA
ADIN TALDEAK EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009.



teko emaitzak konparatzeko kapituluan adieraziko dugun alderdietariko bat azaltzea; hau da, nola-baiteko beheranzko joera dago Bizkaian bizi eta azken bi urteotan etxe barruko indarkeria-egoerak bizi dituztela dioten emakumeen adinean (Adierazitako Tratu Txarra taldea).

Ez da erraza honako emaitza hauetarako interpretazio egokia aurkitzea: Bizkaian bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeren presentzia, 18-29 eta 40-49 adin tartean, tarte horiek Lurralde Historikoko adin-egituran duten garrantzi proportzionalaren gainetik dago. Pentsa daiteke adinaren aldagaian jasotako **biografia-ibilbidearen** dimentsioak eragina duela, zalantzarik gabe, hirurogeiko hamarkadan jaiotako emakumeen taldean (40-49 urte), emakume horiek bizi izandako esperientzia handiagoak halako indarkeria-egoerak jasateko aukera handiagoa edukitzea eragin baitezake.

Hala eta guztiz ere, 2005eko ikerketan planteaturiko lan-hipotesiarekin jarraituz¹⁰, interpretazioa, funtsean, **belaunaldikoa izatean** euskarritzen da, hau da, adinaren aldagaiaren barruko beste dimentsioan. Ondorengo interpretazioak gaizki-ulertzeak sor ditzakeela jakinik, esan daiteke orain Bizkaian bizi eta laurogeiko hamarkadan (1980-1991) jaiotakoak diren emakumeek **tolerantzia maila txikiagoak** dituztela, etxe barruko indarkeria-egoerei dagokienez, beste belaunaldi batzuetako emakumeek baino (euren amak, amonak). Agian, horrelaxe interpretatu ahal dira 18-29 urteko tartean Tratu Txar Teknikoaren taldean lortu diren emaitzak: talde horren guztizkoaren %4,5 eta Bizkaiko adin-egituran duen garrantzia (%13,7) baino 9,2 puntu gutxiago; Adierazitako Tratu Txarra taldearen barruan, 18-29 urte bitarteko kohortearen ehunekoak %20koa da, Bizkaiko emakumeen adin-egituran duen ehuneko garrantzia ((%13,7) baino 6,3 puntu handiagoa.

Azken batean, Talde Teknikoaren taldean identifikaturiko kasuek presentzia handiagoa dute emakumeen adinak gora egin ahala; talde honetan, **biografia-ibilbidearen** dimentsioak edo bizi izandako esperientzia handiagoak, dirudienez, ageriko eragina dauka; Adierazitako Tratu Txarra taldearen kasuan, berriz, logika hori apurto egiten da, eta adinaren aldagaian sarturiko belaunaldidimentsioak, dirudienez, eraginen bat badauka, eta hori modu espezifikoan aztertu behar da, zalantzarik gabe estrategia kualitatiboak erabilia.

4.2.2. Bizikidetz-, ekonomia- eta gizarte-egoera (edo gizarte-klasekoa)

Atal honetan, emakumeen aurkako indarkeria-egoeren "agertokia den etxe barruaren" ezaugarri nagusiak aztertu dira. Bikotekideak eduki edo ez, egoera zibila, batez besteko seme-alaba kopurua eta horien batez besteko adina "bizikidetz-egoeran" sartzen diren alderdiak dira. Era berean, "bizikidetzako gunerako diru-ekarpen nagusiaren jatorria" eta "gizarte-posizioa edo gizarte-klase subjektiboa" ere aintzat hartu dira, adierazleok aukera ematen baitute aztertzen ari garen hiru emakume taldeen profil ereduagarria mugatzen joateko.

4.2.2.1. Bikote-harremanak


Bikotekidearekin bizitzea da Bizkaiko emakumeen arteko bizikidetz-eredurik ohikoena; izan ere, emakumeen %62,4k bikotekidea dute eta berarekin bizi dira. Hala eta guztiz ere, **2. grafikoan** bizikidetzako jarraibide hori aztertzen ari garen hiru emakume taldeen artean nagusia dela ikusten bada ere, Adierazitako Tratu Txarra eta Tratu Txar Teknikoa taldeen artean desberdintasunak daude, eta horiek, nolabait ere, "logikoak" dira, talde bakoitzaren kasuistikaren barruan.

Tratu Txar Teknikoa taldearen barruan, hamar emakumetik bederatzik baino gehixeagok (%91) esan dute gaur egun bikotekidearekin bizi direla. Adierazle horrek indartu egiten du lehen adierazitako korrelazioa, bizikidetz-ereduaren eta emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoerak bizi izateko aukera gehiago egotearen artekoa, Tratu Txar Teknikoa taldearen barruan; korrelazio hori oraindik ere gehiago indartzen da, kontuan hartuta emakume talde honetan harremanen batez besteko iraupena (oraingo bikotekidearekin) 28,75 urtekoa dela; iraupen hori handiagoa da Adierazitako Tratu Txarra taldean (24,79 urte) eta Bizkaiko emakume guztien taldean (23,64) baino.

Eta "logikotzat" hartzen ditugu Adierazitako Tratu Txarra taldearen emaitzak; izan ere, talde horretan, bizikidetzako eredu nagusia ez da hain nagusia, kontuan hartuta talde horretako emakumeen %45 orain ez direla bikotekidearekin bizi ("ez dauka bikotekiderik" izenekoa erantsita %30 eta "bikotekidea bai baina ez da berarekin bizi" deritzona erantsita %15).

¹⁰ BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. GIZARTE EKINTZA SAILA. *Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria. Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako ikerketa baten emaitzak*. Bilbo, 2006, 29. or.


2. GRAFIKOA. BIKOTE-HARREMANAK ETA BIZIKIDETZA EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009



4.2.2.2. Egoera zibila

3. grafikoaren emaitzak osagarri egokiak dira bizikidetzaren eremuari buruzko emaitzetarako, ezarrita dauden emakume taldeen arabera.

3. GRAFIKOA. EGOERA ZIBILA EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009.




Orain ezin bikotekiderek bizi ez diren guztien %45ek (2. grafikoa), Adierazitako Tratu Txarraren taldean, egoera zibilen ehunekoen batuketan biltzen du ia; horiek, era berean, bikotekidearekin ez bizi adierazten dute, hau da, emakumea "ezkongabea", "banandua", "dibortziatua" eta "alarguna" da (guztizkoaren %50). Aldiz, gainerako %50 "ezkondua" eta "adosturiko bikotea erregis-

tratuta" egoera zibiletan dago; kasu honetan, orain bikotekidearekin bizi diren Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakumeen %55 (2. grafikoa).

Tratu Txar Teknikoa taldeko emakumeen kasuan ere bizikidetzaren egoeraren eta egoera zibiltaren arteko lotura bera ageri da: horien guztizkoaren %84,3 "ezkondua" eta "adosturiko bikotea erregistratuta" egoeretan dago; bi egoera zibil horietan, bestalde, Bizkaiko emakume guztien %58,3 sartzen dira.

Emakumeen aurkako indarkeria-egoeren esperientziak egoera zibiltaren aldaketan duen eragina, bestea alde batetik, argi eta garbi ikusten da 4. grafikoan. Adierazitako Tratu Txarra taldearen barruko hamar emakumetik zazpi (70%), orain bikotekiderik ez dutenek, esan dute azken hamar urteotan bikotekideren bat izan dutela; balio horiek indarkeria-egoerei teknikoki lotutako emakume taldeak erregistraturikoak (%40) eta Bizkaiko emakume guztien taldeak erregistraturikoak (%34,1) baino askoz ere handiagoak dira.


4. GRAFIKOA. BIKOTEKIDEA EDO BIKOTEKIDEREN BAT AZKEN HAMAR URTEOTAN, EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009.



4.2.2.3. Bizikidetzako gune mota

Adierazitako Tratu Txarra eta Tratu Txar Teknikoa taldeen barruko emakumeek Bizkaiko emakumeen multzo osoak baino seme-alaba kopuru gehiago dituzte; hain zuzen ere, %85 eta %88,1 batetik, eta %72,9 bestetik. Talde horietan, halaber, batez besteko adina guztizkoaren kasuan baino baxuagoa da: 27,19 urte eta 27,32 urte batetik, eta 29,66 bestetik.

5. GRAFIKOA.
SEME-ALABAK EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009.



1. taulak aukera ematen du Bizkaian bizi eta, Adierazitako Tratu Txarra edo Tratu Txar Teknikoa taldeen barruan, azken bi urteotan etxe barruko indarkeria-egoerak bizi dituzten edo bizi izan dituzten emakumeen ohiko profila trazatzen jarraitzeko. Bi taldeetan, oraingo bizilekuan "seme-alaben" presentzia oso antzekoa da (hamar kasutik seitan); baina desberdintasunak gainerako kategorietan gelditzen dira agerian. Horrela, oraingo bizilekuan, "bikotekidearen" presentzia, Adierazitako Tratu Txarra taldean, %55ekoa da, eta, Tratu Txar Teknikoan, berriz, %90,3koa. Gainera, azken talde horretan, "famiario beste batzuk" deritzonaren presentzia guztizkoaren %9,7koa da, eta, Adierazitako Tratu Txarra taldean, ostera, presentzia hori %30ekoa da.

Adierazitako Tratu Txarra taldeak "famiario beste batzuk" kategorian duen azken erregistro horrek aditzera ematen du, batez ere, jatorrizko familia-bizilekuan 18-29 urte bitarteko kohortea bizi dela; dena den, ez da ahaztu behar kohorte horrek

1. TAULA
ORAIN ARTE ETXEAN BIZI DIREN PERTSONAK EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009.

Nor bizi da etxebizitzan gaur egun?	Emakume Taldeak		
	Adierazitako Tratu Txarra	Tratu Txar Teknikoa	Guztira
Bikotekidea	55,0	90,3	63,4
Seme-alabak	60,0	61,2	49,2
Famiario b. batzuk	30,0	9,7	21,5
Fam. ez diren b. batzuk		1,5	1,2
Bakarrik bizi naiz			9,1

Iturria: Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009

baino urte gehiago dituzten emakumeak egon daitezkeela, jatorrizko edo emantzipatu baino lehenagoko familia-bizilekura itzuli behar izan dutenak.

2. taulak Bizkaian bizi diren emakumeen ohiko profila finkatzeko aukera ematen du, bikotekidearen eta egoera zibilaren inguruko emaitzetan adierazi den profila. Horrela, Adierazitako Tratu Txarra taldean, ehunekorik handiena "nire seme-alabak bakarrik" bizikidetzaren biltzen da (%30). Talde horretan, lehen adierazitako seme-alaben presentzia ez ezik (hamar kasutik zortzitan), emaitza horrek harremanak hausteko egoerak ere aditzera ematen ditu; hauste horiek, segurutzat, emakumeen aurkako bizikidetzaren inguruko indarkeria-egoerak egotearen ondoriozkoak dira.

Hala eta guztiz ere, Adierazitako Tratu Txarra taldean, Bizkaian bizi diren lau emakumetik bat (%25) "bikotekidearekin eta seme-alabekin" bizi da orain; pertsona horiek, era berean, bizikidetzaren nagusia osatzen dute Tratu Txar Teknikoa taldeko kasu guztien %52,2an. Horrek, aurrerago adieraziko dugunez, benetako egoera larria identifikatzen du geure eguneroko bizitzan; izan ere, talde batean eta bestean, emakumea etxe barruko indarkeriaren eragile nagusiarekin bizi da.

2. TAULA
ORAIN ETXEAN BIZI DEN PERTSONA MULTZOA, EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009.

Gaur egun etxebizitzan bizi diren pertsonak	Emakume Taldeak		
	Adierazitako Tratu Txarra	Tratu Txar Teknikoa	Guztira
Bakarrik bizi naiz			9,1
Nire bikotekidea bakarrik	15,0	33,6	22,9
Nire seme-alabak bakarrik	30,0	3,0	8,7
Famiario b. batzuk bakarrik	10,0	3,7	16,0
Fam. ez diren b. batzuk bakarrik		0,7	2,6
Bikotekidea eta seme-alabak	25,0	52,2	35,8
Bikotekidea eta famiario b.b.	15,0	0,7	1,8
B. batzuk	5,0	6,0	3,0
GUZTIRA	100	100	100

Iturria: Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009

4.2.2.4. Diru-ekarpen nagusia bizikidetzako gunera

Bizkaiko emakumeen bizikidetzako gune-rako diru-ekarpen nagusiaren jatorriak aukera ematen du bikote- edo bizikidetzaren harremanetako eredu desberdinak ondorioztatzeko; ereduok no-

labaiteko eragina dute etxe barruko indarkeria-egoeren adierazpen mailan.

Azterturiko hiru emakume taldeetan, familiako diru-ekarpen nagusia "bikotekideak" egiten badu ere, kasu bakoitzean horren ehunekoak desberdinak dira: ehunekorik handiena Tratu Txar Teknikoa taldean dago, guztizkoaren %64,2rekin; Adierazitako Tratu Txarra taldean ehunekoak %35ekoa da, eta Bizkaiko emakume guztien kasuan ehunekoak %40,4koa.

Emaitza horiek interpretatzeko, ondo erreparatu behar zaie gainerako kategorien gainerako erantzunei, batez ere familiako diru-ekarpen nagusiaren jatorria "emakumea bera (elkarrizketatua)" denean. Esan daiteke emakumeek euren diru-ekarpenarekin bakarrik eutsitako bizikidetzak unitateak aurkitzeko aukera handiagoa dagoela emakume horiek lehen etxe barruko indarkeria-egoerak jasan dituztenean (kasu honetan, %30). Eta, alderantziz, esan daiteke, joeratzat, familiako diruaren jatorri nagusia hori ez denean, eta, beraz, bikotekidearekiko mendekotasun ekonomiko handiagoa dagoenean, emakumeen aurkako indarkeria-egoerak (indarkeria teknikoak) aurkitzeko aukera handiagoa dagoela.

6. grafikoan aintzat hartu behar den beste alderdi bat hauxe da: Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakumeen %20ren kasuan, diru-ekarpen nagusia "familiako beste batzuek" egiten dute. Emaitza horiek zehatz egokitzen dira talde horren barruko

18-29 urte bitarteko emakumeen ehunekora, eta horrek aditzera ematen du emakume horiek oraindik euren jatorrizko familiaren etxean bizi direla.


4.2.2.5. Gizarte-posizioa (gizarte-klase subjektiboa)

Gizarte garatuetako gizarte-egiturak "klase ertainen" aurrerakadaren ondorioz izandako aldaketan eraginez, aspalditik hona aldatu egin da posizioaren ezagupenerako hurbilketa, hiritarren gizarte-mailan.


Horrenbestez, gero eta konplexuagoa eta arriskutsuagoa da kanpotik gizarte-klase baten posizioa zehaztea, hileroko diru-sarrerara maila ere dagoeneko ez baita erreferentzia fidagarria. Egiten dena (beharbada, nolabaiteko tolesgabatasunarekin) gizarte-mailaren barruko posizioari buruzko iritzia pertsonari berari galdetzea da, eta hortik dator "gizarte-klase subjektiboa" kontzeptua.

7. grafikoaren emaitzak bat datoz, dirudie-nez, Bizkaikoak bezalako ongizate-gizarte batek izan behar duen gizarte-egitura motarekin; izan ere, Lurralde Historikoko emakume guztien hamarretik zazpi baino gehiagok (%72,9) esan dute "klase ertainekoak" direla edo halaxe ikusten dutela euren burua. Hori esanda, beste desberdintasun batzuk egiaztatu dira: lehenengo eta behin, euren burua "klase ertain-baxua eta baxua" taldekotzat ikusten duten emakumeen presentzia handiagoa Adierazitako Tratu Txarra taldearen barruan; hain zuzen ere, %40 dira, Bizkaiko emakumeen multzo osoak gizarte-klase horretakoa izateari buruz duen pertzepzioaren (%19) bikoitza baino gehixeago.

6. GRAFIKOA. BIZIKIDETZAKO GUNERA EGINDAKO EKARPEN EKONOMIKO NAGUSIAREN JATORRIA EMAKUME TALDEAREN ARABERA. EHUNEKOAK, 2009.



7. GRAFIKOA. GIZARTE-POSIZIOA (GIZARTE-KLASE SUBJEKTIBOA) EMAKUME TALDEAREN ARABERA. EHUNEKOAK, 2009



Eta ez hori bakarrik: **7. grafikoan** ikusten denez, ez dago bere burua "klase altua eta ertain-altua" taldearen barruan ikusten duen emakumerik, Adierazitako Tratu Txarra taldean; emakumeen multzo osoan %8,1ek ikusten dute euren burua talde horretan, eta Tratu Txar Teknikoa taldean, berriz, %6k.

Emaitza horietatik urruntzeko asmorik gabe, baina horiek arintzeko asmoz, ezin daiteke ahaztu "altua eta ertain-altua" gizarte-klase subjektiboaren eta telefonozko galdeketa batean etxe barruko indarkeria-egoera adierazteko erretizentzia handiagoak izatearen arteko lotura. Eta alderantziz. Era berean, ezin dugu ahaztu ikerketa honetako landa-lanak zailtasun handiagoak izan zituela Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietan; bertan, izan ere, adierazle objektibo handiagoak daude gizarte-klase altuetako eta ertain-altuetako emakumeak aurkitzeko.

4.2.3. Ikasketa maila

3. taularen emaitzek Bizkaiko emakumeen ikasketa maila adierazten dute. Aipatu beharreko lehenengo gauza hau da: Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren 18 urteko eta gehiagoko emakume guztien artean bitik batek oinarritzko ikasketak ditu (%55), bai "lehen hezkuntza" edo bai "lehen hezkuntza amaitu barik". Bizkaiko emakumeen multzoa ikasketa maila honetan bilduta egoteak ageriko lotura dauka erregistraturiko batez beste-

3. TAULA.
IKASKETA MAILA EMAKUME TALDEEN ARABERA.
EHUNEKOAK, 2009

Ikasketa maila	Emakume taldeak		
	Adierazitako Tratu Txarra	Tratu Txar Teknikoa	Guztira
Lehen hezkuntza amaitu barik	10,0	17,2	18,5
Lehen hezkuntza, OHO, Eskola Graduata, Oinarritzko Batxilergoa	35,0	42,5	36,5
Bigarren hezkuntza (Goi Batxilergoa/BBB/UBI)	10,0	8,2	9,4
Lanbide ikasketak (LH.I/LH.II)	35,0	17,9	15,3
Unibertsitateko ertainak (Diplomatura)	10,0	4,5	8,4
Unibertsitateko goi mailakoak (Lizentziatura/Doktoregoa/Graduatu-ondokoa)		9,0	11,7
Beste batzuk		0,7	0,2
GUZTIRA	100	100	100

Iturria: Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009

ko adinarekin (51 urte); hain zuzen ere, emakume hauen belaunaldian ikasketak egiteko aukera, oro har, mugatua zen, batez ere emakumeen kasuan.

Arrazoibide-ildo horrekin jarraituz, eta Adierazitako Tratu Txarra eta Tratu Txar Tekniko taldeetako batez besteko adina aintzat hartuta (hurrenez hurren, 47,45 eta 52,94 urte), bi talde horietan ehunekorik handiena oinarritzko ikasketa mailan dago; lehenengo kasuan %45 eta bigarrenean ia %60. Hala eta guztiz ere, **3. taulak** beste bi desberdintasun garrantzitsu identifikatu ditu Adierazitako Tratu Txarra taldean: talde honetan ez dago "goi-ikasketak" dituen emakumerik; gainera, kasuak "lanbide-ikasketak" mailan metatzen dira, hain zuzen ere, guztizkoaren %35; ehuneko hori oso altua da ikasketa maila horrek beste taldeetan duen ehunekoarekin konparatuta (%17,9 eta %15,3).

Lorturiko emaitzak kontuan hartuta, esan daiteke goi-ikasketak edukitzeak eginkizun aringarria duela, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeretan. Ikasketa maila hau hamar kasutik batean dago (%10), Adierazitako Tratu Txarra taldean, eta %13,5ean, Tratu Txar Teknikoa taldean; Bizkaian bizi diren 18 urteko eta gehiagoko emakume guztiei dagokienez, berriz, %20,1ekoa da. Jarraibide hori hurbiletik aztertu beharko da etorkizuneko ikerketetan, eta aurreko ikerketan ere adierazi zen¹¹. Zalantzarik gabe, aldagai hau lehen adierazitako beste aldagai soziodemografiko batzuekin lotuta dago, batik bat bizikidetzako gunera egindako diru-ekarpen nagusiari lotuta, eta, agian, gizarte-posizioari ere bai. Azken batean, esan nahi da, emakumearen heziketa zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta aukera txikiagoa dagoela etxe barruko indarkeria-egoerak jasateko. Hala ere, orain arte esan dugunaren arabera, gizarte- eta kultura-fenomeno hau oso konplexua da, eta ez litzateke ona izango itxaropen guztiak aldagai hori (hezkuntza eta heziketa) murriztean soilik jartzea.

4.2.4. Lan-egoera

4. taulan, ikerketa honetan aztertu diren hiru emakume taldeen lan-egoeren multzoa dago adierazita. **8. grafikoan**, labor-labor azalduta daude hiru lan-parametro nagusien emaitzak: lana, langabezia (bi kasuotan emakume aktiboak) eta ez-aktibotasuna.


¹¹ BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. GIZARTE EKINTZA SAILA. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria. Op., cit., 36. or.

4. TAULA.
ORAINGO LAN-EGOERA EMAKUME TALDEEN ARABERA.
EHUNEKOAK, 2009.

Oraingo Lan Egoera	Emakume taldeak		
	Adierazitako Tratu Txarra	Tratu Txar Teknikoa	Guztira
AKTIBOAK	45,0	40,3	42,7
a) Landunak	30,0	29,1	32,5
Autonomia	10,0	2,2	4,1
H. Administrazioan Lanean		6,7	4,5
Kontr. Mugagabez Lanean	5,0	14,2	14,2
Aldi Baterako Kontr. Lanean	5,0	3,0	7,9
Kontr. Barik Lanean		0,7	0,3
Etxeo Langilea	10,0	2,2	1,5
b) Langabetuak	15,0	11,2	10,2
Langabeziako Sorospena	5,0	8,2	7,6
Langabeziako Sorospenik ez	10,0	3,0	2,6
EZ-AKTIBOAK	55,0	59,7	57,3
Ikaslea	5,0	1,5	5,4
Etxeoandrea	30,0	44,8	28,4
Pentsioduna (Gizarte Segurantzza)	15,0	10,4	21,3
Pentsioduna (Ezgaia. edo Ezint. Pentsioa)		0,7	1,2
Gizarte Laguntzaren Jasotzailea	5,0	2,2	0,8
Beste batzuk: EEE			0,2
GUZTIRA	100	100	100

Iturria: Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009

8. GRAFIKOA.
ORAINGO LAN-EGOERA (LANDUNAK, LANGABETUAK ETA EZ-AKTIBOAK) EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK, 2009.



Hiru emakume taldeetarako bakoitzean adierazitako batez besteko adina ahaztu barik, emaitzek aditzera eman dutenez, Bizkaiko Lurralde Historikoan etxe barruko indarkeria-egoerek bidezko banaketa dute emakume akti-

boen eta ez-aktiboen artean. Adierazitako Tratu Txarra taldearen kasuan, aktiboak/ez-aktiboak banaketa %45 eta %55 izango litzateke; Tratu Txar Teknikoaren kasuan %40,3 eta %59,7; eta guztizkoaren kasuan %42,7 eta %57,3. Emaitza horiek, horrenbestez, ez dute aukerarik ematen lanaren eta emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeren arteko loturarik ezartzeko (adibidez, 2005eko ikerketan ezarri zirenak).

Hala ere, eta 4. taulan adierazitako oraingo lan-egoerak oraindik ere gehiago zehaztuta, esan daiteke etxe barruko indarkeria-egoeren ehunekorik handiena "etxeoandrea" kalifikazioak duela, ezarritako talde guztietan: Adierazitako Tratu Txarra taldean %30 eta Tratu Txar Teknikoa taldean %44,8; aldi berean, Bizkaiko emakumeen guztizkoaren oraingo lan-egoera nagusia da, kasu guztien %28,4rekin


4.2.4.1. Emakume landunak

Lanean ari ziren emakumeei, egoera horretan egotearen balizko zazpi aukeren artean bi zergati aukeratzeko eskatu zitzaizkien. 9. grafikoan ikusten denez, "nire diru-sarrerak etxea mantentzeko ezinbestekoak direlako" izan zen zergati nagusia hiru emakume taldeetan. Horren ostean, lan egiteko bigarren zergati nagusia "diru gehiago edukitzeko" da, hiru taldeetan.

Hala eta guztiz ere, lanaren "tresnazko dimentsio" honek (lana enplegutzat hartuta) garrantzi handiagoa hartzen du lanean ari diren Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakumeen artean; izan ere, guztizkoaren %83,3 erantzunen bi kategoria hauek bilduta egongo litzateke ("nire diru-sarrerak etxea mantentzeko ezinbestekoak direlako" %50 eta "diru gehiago edukitzeko" %33,3), eta Adierazitako Tratu Txarra taldean eta Bizkaiko emakume guztien taldean %60a ere ez litzateke helduko.

Bestalde, oso adierazgarria da lanean ibiltzearen nolabaiteko "norberaren orientazioa" adierazten duten kategorietan erantzunik ez egotea, edo soldata etxerako edo familiarako soilik ez izatea adierazten duten kategorietan erantzunik ez egotea, Adierazitako Tratu Txarrak taldearen barruko emakumeen artean. Izan ere, "independentzia ekonomiko handiagoa edukitzeko", "autonomia pertsonal handiagoa edukitzeko" eta "etxetik irteteko eta harremanak izateko" deritzenetan emaitzarik ez egotean, beste ikerketa batzuek adierazitakoaren ildotik interpreta daitezke emaitzak; hau da: etxe barruko indarkeria-egoerak dituzten emakumeen artean dimentsio pertsonala edo ba-

9. GRAFIKOA.
ORAIN LANEAN IBILTZEAREN ARRAZOI NAGUSIAK EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009 (ERANTZUN ANITZEAN OINARRITURIKO HAUTAPENA).



nakakoa ezeztaturik dagoela esan daiteke. Kasu honetan, gainera, agerian gelditu da enplegua edukitzea, etxe barruko indarkeria-egoerak bizi dituzten emakumeen artean, autonomia pertsonaleko eremua mantentzeko (edo lortzeko) tresnatzat baino gehiago, gainontzekoengana (batez ere, familia) bideraturiko tresnatzat hartzen dela.


4.2.4.2. Emakume langabetuak eta ez-aktiboak

10. grafikoan ikusten denez, orain langabezian edo ez-aktibotasunean dauden Bizkaiko emakume guztien hamarretik zazpi baino gehiagok (%73,3) lan egin dute lehenago.

11. grafikoan, hiru emakumeen arteko desberdintasun garrantzitsu batzuk ageri dira, bere garaian lana uzteko zergatiak dagokienez. Horrela, egoera zibila aldatzeak ("ezkondu egin nintzen") ez du erantzunik jaso Adierazitako Tratu Txarra taldearen barruan; aldiz, Bizkaiko emakumeen guztizkoan zergati nagusia da (%22,3), eta Tratu Txar Teknikoaren kasuan bigarren zergati nagusia (%25,3).

Aldiz, lana "seme-alabak zaindu behar nituen" deritzonagatik uzteari dagokionez, taldeak bat


10. GRAFIKOA.
ORAINGO EZ-AKTIBOTASUN EDO LANGABEZIA EGOERA BAINO LEHEN LANEAN, EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009.



datoz; hain zuzen ere, lehenengo zergatia da Tratu Txar Teknikoa taldean (%26,6) eta bigarren zergatia bai Adierazitako Tratu Txarra taldean (%23,1) eta bai Bizkaiko emakumeen guztizkoan (%18).


Azken bi urteotan etxe barruko indarkeria-egoerak bizi izana adierazi duten emakumeen zergatiak dagokienez, zergati nagusia "gaitortzea" da (guztizkoaren %30). Horrenbestez, pentsa daiteke erantzun horrek eragina izan dezakeela Bizkaian bizi eta lana zergati horregatik utzi duten emakumeek jasandako etxe barruko indarkeria-egoeran, Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakumeen artean.

11. GRAFIKOA.
LANA UZTEKO ARRAZOI NAGUSIAK (LEHEN LANEAN ETA ORAIN LANGABEZIAN EDO EZ-AKTIBOTASUNEAN DAUDEN EMAKUMEEN ARTEAN). EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009 (ERANTZUN ANITZEAN OINARRITURIKO BALIO HAUTAPENA).




Egoera edozein izanik ere, **12. grafikoan** agerian gelditu da zaintzaileen rola ren indarra, batik bat Tratu Txar Teknikoa taldean eta Bizkaiko guztizkoan; izan ere, bertan, hamar emakumetik zortzik baino gehiagok (%84) esan dute orain ez dabiltzala enplegu bila; ehuneko hori apur bat txikiagoa da Adierazitako Tratu Txarra taldearen barruan (%78,6).

12. GRAFIKOA.
LAN BILA (LEHEN LANEAN IBIL DIREN ETA ORAIN LANGABEZIAN EDO EZ-AKTIBOTASUNEAN DAUDEN EMAKUMEEN ARTEAN), EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009.



13. grafikoaren emaitzek, bestalde, berriro garamatzate hiru emakume taldeetarik bakoitzaren batez besteko adinetara; izan ere, orain lan bila ez ibiltzearen zergati nagusia "adina" da, argi eta

13. GRAFIKOA.
LANA EZ BILATZEKO ARRAZOI NAGUSIAK (LEHEN LANEAN IBIL DIREN ETA ORAIN LANGABEZIAN EDO EZ-AKTIBOTASUNEAN DAUDEN EMAKUMEEN ARTEAN), EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009 (ERANTZUN ANITZEAN OINARRITURIKO BALIO HAUTAPENA).



garbi. Tratu Txar Teknikoa taldean zergati horrek guztizkoaren %62,8 eta Bizkaiko emakume guztien %52,4 biltzen ditu, baina Adierazitako Tratu Txarra taldean %33,3 biltzen ditu (lau kasutik bat), zergati nagusia izan arren. Emakume talde horretan zergatien banaketa anitzagoa da, eta, berriro ere, "gaixotasuna" agertzen da, zergati azaltzaile bereizitatzat.

4.2.5. Jaioterria: kasu asko emakume atzerri-tarren artean.

Jatorriz atzerriarrak diren emakumeen eta autoktonoen arteko balizko desberdintasunak identifikatzen saiatzea, etxe barruko indarkeriaren arloan, ageriko helburua izan da ikerketa honen diseinuan.

Txosten honen irakurleek kontuan hartu behar dute emakume atzerriarren talde hau galdeketera erakartzeko zailtasunak handiak izan direla, ikerketa honetan erabilitako aukera metodologikoaren eraginez: telefono finkoetara edo etxeko telefonoetara egindako galdeketa, aintzat hartuz talde honetako emakumeek gehienbat telefono mugikorrek erabiltzen dituztela.

Hala eta guztiz ere, **5. taulan** ikusten denaren arabera, jatorriz atzerriarrak diren emakumeen partaidetzak (%4,3), ikerketa honetan, gainditu egin du 2006an Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldaturik zeuden 18 urteko eta gehiagoko emakumeen guztizkoaren %3,6ko partaidetza. Beste faktore batzuen artean, euren ehunekoari dago-kiona baino partaidetza handiagoa izatea, segurutik, landa-lana egitean emakume talde horrek galdeketa egitearen aldeko jarrera handiagoa edukitzeak azaltzen du, komunikazioa egiteko erabilitako telefonoa euren bizilekukoa izan ez arren.

Baina, alderdiok alde batera utzita, **5. taulako** daturik garrantzitsuena hauxe da: etxe barruko tratu txarrak adierazi dituzten hamar emakumetik bat (%10) atzerrian jaiotakoa izatea. Horrek ikerketa honetan parte hartu duten emakume guztien ehunekoa (%4,3) baino 5,7 puntu gehiago adierazten ditu, eta

2006an Bizkaian erroldaturiko 18 urteko eta gehiagoko emakume guztien ehunekoa (%3,6) baino 6,4 puntu gehiago. Halaber, jatorriz atzerritarren diren emakume hauek Tratu Txar Teknikoa taldearen barruan erregistraturiko ehunekoa ere (guztizkoaren %5,2) emakumeok duten garrantzi proportzional ofizialari dagokionaren gainetik dago.

5. TAULA. JAIOTERRIA EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009

Jaioterrria	Emakume taldeak		
	Adierazitako Tratu Txarra	Tratu Txar Teknikoa	Guztira
Bizkaia	75,0	61,2	68,2
EAE		4,5	2,0
Estatua	15,0	29,1	25,6
Atzerria	10,0	5,2	4,3
GUZTIRA	100	100	100

Iturria: Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009

Zalantzarik gabe, ikerketa honetako daturik garrantzitsuenetakoa da, eta zehatzago aztertuko dugu 2005eko eta 2009ko emaitzen arteko konparazioa egiten duen kapituluaren. Sakonago aztertu behar dira Bizkaian bizi diren emakume atzerritarren aurkako etxe barruko indarkeria-egoeren kasu kopuru handia egotearen zergatiak; zergati horiei dagokienez, zalantzarik gabe, esan daiteke migrazio-fenomenoak berak aldaketak sortzen dituela banakako identitateetan eta, beraz, lehen jatorrizko kultura-eremuan finkatuta zeuden genero-harremanetan.


4.2.6. Bizilekua (udal-tipologia)

Bizkaian, emakumeen aurka etxean erabiltzen den indarkeria egoera gehiago antzematen da udalerririk handietan, hau da, 50.000 biztanletik gorakoetan (1. tipologia). 14. grafikoan agerienez, Bizkaiko udalerririk handietan bizi diren emakumeek %51,8 besterik ez badira ere, halakoetan, Adierazitako Tratu Txarren taldeko kasuen %64 eta Tratu Txar Teknikoen taldeko kasuen %53 pilatzen dira.

6. taulan, era berean, ikusten da Bizkaiko 50.000 biztanletik gorako udalerrietan (1. tipologia) emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria kasu gehiago identifikatu direla, talde bakoitzeko guztizkoan baino: hurrenez hurren, %4,1 eta %3,3 Adierazitako Tratu Txarren kasuan, eta %22,6 eta %22,1 Tratu Txar Teknikoaren kasuan. Hala

eta guztiz ere, esan behar da hori 2. tipologiako udalerrietako (20.001-50.000 biztanle) Tratu Txar teknikoan ere gertatzen dela; hurrenez hurren, %24,4 eta %22,1.

14. GRAFIKOA. BIZILEKUA (UDAL-TIPOLOGIA) EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009



6. TAULA. BIZILEKUA (UDAL-TIPOLOGIA) EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009.

Udalerririk Tipologia	Emakume taldeak		
	Adierazitako Tratu Txarra	Tratu Txar Teknikoa	Guztira
1. tipologia (>50.000 biztanle)	4,1	22,6	100,0
2. tipologia (20.001-50.000 biztanle)	2,5	24,4	100,0
3. tipologia (5.001-20.000 biztanle)	1,8	21,6	100,0
4. tipologia (0-50.000 biztanle)	3,2	16,1	100,0
GUZTIRA	3,3	22,1	100,0

Iturria: Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009

Landa-inguruaren eta hiriaren arteko bereizketak indarra galdu du azalpenerako, gizarte-jardueren ikuspegitik begiratuta, hiriko bizimoduak orokortu egin direlako; dena den, Bizkaiko Lurralde Historikoko lurraldearen antolamendua eta biztanleriaren egitura aintzat hartuta, eta emakumeek landa-lanean zuzenean adierazitakoa

ere kontuan hartuz, esan daiteke elkarrizketaturiko emakumea bizi den udalerraren "landai-zaera" handiagoak edo txikiagoak eragina izan dezakeela emaitzetan. Gainera, landa-testuinguruak eragina izan dezake zentzu horretan: tratu txarreko egoeren adierazpena oztopatuz, emakumearen gaineko gizarte-kontrol balizko handi-agoa egotearen ondorioz.

Eta, jakina, interpretazio horrek alde-erantzizkoa ere badauka; hain zuzen ere, hirian bizi-zeak (gizarte kontrola berez ez hain handia) dinamizazio-eragina izan dezake emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeren identifikazioan.

4.3. EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-EGOERAK BIZKAIAN GAUR EGUN

Hiru emakume taldeetariko bakoitzaren (Adierazitako Tratu Txarra, Tratu Txar Teknikoa eta Guztizkoa) ezaugarri soziodemografiko nagusiak aztertu ondoren, atal honetan emakumeen aurkako etxe barruko hamalau indarkeria-egoerak identifikatu dira, ikerketa honetan ezarri eta galdeketako 21. galderan aurkitu ahal direnak.

Hamalau egoera horiek, aldi berean, honako bost tipologia hauetan bilduta daude:

1. Indarkeria Fisikoa.

- "Bultzatu, jo edo gauzak jaurtikitzen dizkizu" (galdeketako 21. galdera, 11. enuntziatua, 21.11 g.).

2. Indarkeria Sexuala.

- "Presionatu egiten zaitu sexu-harremanak nahi izateko orduan, zuk nahi duzula edo gogorik ez duzula jakin arren." (21.8 g.)

- "Ez dizu kasurik egiten zuk sexu-harremanak nahi dituzunean (ez ditu zure sexu-beharrizanak asetzen)." (21.9 g.)

3. Indarkeria Ekonomikoa.

- "Irabazten duzun dirua kendu edo ez dizu ematen autonomiaz bizitzeko beste." (21.2 g.)

- "Gastuak kontrolatzen dizkizu (aurrezki-libretak, txartelak,...)" (21.6 g.)

- "Dirua alferrik galtzen du, familiaren beharrezan kaltetan." (21.7 g.)

4. Indarkeria Psikologikoa.

- "Oihuak, irainak edo mehatxuak egiten dizkizu." (21.3 g.)

- "Etxeko gauzak apurtzen ditu." (21.4 g.)

- "Ez ditu zure sinesmenak baloratzen (ideologikoak, erlijiozkoak,...), edo ez ditu kontuan hartzen zure zaletasunak (ez du atsegin zure janzkera) edo behar-errian afektiboak." (21.10 g.)

- "Ez du baloratzen egiten duzun lana." (21.12 g.)

- "Gauzak bakarrik egiteko gauza ez zarela esaten dizu, gauza guztiak txarto egiten dituzula, traketsa zarela." (21.13 g.)

5. Indarkeria Soziala.

- "Ez dizu uzten familia ikusten edo lagunekin eta auzokoekin harremanak edukitzen, elkartzan,..." (21.1 g.)

- "Ez dizu uzten lanik egiten edo ikasten." (21.5 g.)

- "Leku txarrean uzten zaitu (izen ona kendu, gezurtatu, barregarri utzi) beste batzuen aurrean (jendaurrean, lagunekin, familiakoekin, etab.)" (21.14 g.)

Gogoratu taldeen arabera bereizitako emaitzek, hau da, galdeketan zuzeneko tratu txarra adierazi duten emakumeek (Adierazitako Tratu Txarra), teknikoki halakotzat hartzen direnek (Tratu Txar Teknikoa) eta, azkenik, Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakume guztiek, hauxe adierazten dutela: Bizkaian bizi diren emakumeek "gaur egun" galdeketako 21. galderaren barruan adierazitako hamalau egoerak "sarritan" edo "batzuetan" bizi izatea.

4.3.1. Emaitzak egoeren arabera: "etxeko lana ez baloratzearen" hegemonia

7. taulan, hamalau (14) indarkeria-egoeretariko bakoitzaren erantzunen multzoa adierazten da, galdera horiek galdeketan duten ordenan mantenduta. Aipatu beharreko lehenengo alderdia "ez du baloratzen egiten duzun lana (21.12 g.)" egoeraren nagusitasuna da. Egoera hori "sarritan" edo "batzuetan" gertatzen da emakume guztien %18ren kasuan, Tratu Txar Tekniko taldeko lau emakumetik hiruren kasuan (%73,9) eta Adierazitako Tratu Txarra taldeko bi emakumetik baten kasuan (%50).

Halaber, erantzunen hierarkian, hiru emakume taldeak parekatu egiten dira izaera psikologikoa duten beste egoeretariko batean; izan ere, "Oihuak, irainak edo mehatxuak egiten dizkizu" (21.3 g.) bigarren egoerarik zabalena da,

7. TAULA.
**GUZTIRA. EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO
 INDARKERIA-EGOEREN IDENTIFIKAZIOA BIZKAIKO LURRALDE
 HISTORIKOAN, EMAKUME TALDEEN ARABERA.**
 EHUNEKOAK. 2009 (ERANTZUN ANITZA*).

Etxeko pertsonaren batekin edo bikotekidearekin orain gertatzen diren egoerak	Emakume taldeak		
	Adierazitako Tratu Txarra	Tratu Txar Teknikoa	Guztira
1. Ez dizu uzten familia ikusten edo lagunekin eta auzokoekin harremanak edukitzen, elkartzen,...	10,0	3,7	1,0
2. Irabazten duzun dirua kendu edo ez dizu ematen autonomiaz bizitzeko beste	5,0	2,2	0,7
3. Oihuak, irainak edo mehatxuak egiten dizkizu.	50,0	19,4	5,9
4. Etxeko gauzak apurtzen ditu	10,0	0,0	0,3
5. Ez dizu uzten lanik egiten edo ikasten.	0,0	1,5	0,3
6. Gastuak kontrolatzen dizkizu (aurrezki-libretak, txartelak,...).	20,0	7,5	2,3
7. Dirua alferrik galtzen du, familiaren beharrezan kalteetan.	10,0	4,5	1,3
8. Presionatu egiten zaitu sexu-harremanak izateko orduan, zuk nahi ez duzula edo gogorik ez duzula jakin arren (ekin egiten du).	20,0	9,7	2,8
9. Ez dizu kasurik egiten zuk sexu-harremanak nahi dituzunean (ez ditu zure sexu-beharrezan asetzen).			
10. Ez ditu zure sinesmenak baloratzen (ideologikoak, erlijiozkoak,...), edo ez ditu kontuan hartzen zure zaletasunak (ez du atsegin zure janzkera) edo beharrezan afektiboak.	20,0	13,4	3,6
11. Bultzatu, jo edo gauzak jaurtikitzen dizkizu.	0,0	2,2	0,5
12. Ez du baloratzen egiten duzun lana.	50,0	73,9	18,0
13. Gauzak bakarrik egiteko gauza ez zarela esaten dizu, gauza guztiak txarto egiten dituzula, traketsa zarela	35,0	10,4	3,5
14. Leku txarrean uzten zaitu (izen ona kendu, gezurtatu, barregarri utzi) beste batzuen aurrean (jendaurrean, lagunekin, familiakoekin, etab.).	40,0	9,0	3,3

Iturria: *Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009*

* Erantzun anitza: ehunekoen batuketa %100 baino gehiago da.


gaur egun "sarritan" edo "batzuetan" gertatzen diren artean. Hala eta guztiz ere, desberdintasun garrantzitsuak ditu emakume taldearen arabera, eta horrela, euren arteko distantziak ezartzen ditu. Horrela, indarkeria psikologikoaren egoera hau Bizkaiko emakume guztien %5,9k jasaten dute, eta Tratu Txar Teknikoaren kasuan %19,4k; Adierazitako Tratu Txarraren kasuan, aldiz, bi emakumetik batek jasaten du (%50).

Hain desberdinak diren emaitza hauek, agian, aditzera ematen dute "oihuak, irainak edo mehatxuak" deritzon egoerak inflexio-puntua ezartzen duela Tratu Txar Teknikoaren eta Adierazitako Tratu Txarraren artean, etxe barruko indarkeria psikologikoari dagokionez. Baina 7. taulak agerian jartzen du hamalau indarkeria-egoerak gehiago gertatzen direla gaur egun euren burua etxeko indarkeriaren jasotzailetzat hartzen duten emakumeen artean (Adierazitako Tratu Txarra). Zentzu horretan, eta adibidetzat, berau ere dimentsio psikologikoaren barruan, egiaztatu da desberdintasun oso handia dagoela "gauzak bakarrik egiteko gauza ez zarela esaten dizu, gauza guztiak txarto egiten dituzula, traketsa zarela" (21.13 g.) egoeran: Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakume guztien %35, Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakumeen %10,4 eta emakume guztien %3,5. Azalpen hori indarkeria sozialeko egoeratariko baterako ere baliozkoa da; hau da, "Leku txarrean uzten zaitu (izen ona kendu, gezurtatu, barregarri utzi) beste batzuen aurrean (jendaurrean, lagunekin, familiakoekin, etab." (21.14 g.): Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakumeen %40, Tratu Txar Teknikoa taldeko emakumeen %9 eta emakume guztien %3,3.

4.3.2. Emaitzak tipologiaren arabera: indarkeria psikologikoa kasu guztietan

15. grafikoak lehen aipaturiko hamalau indarkeria-egoeratariko bakoitzean zehatz azalduko planteamendu asko laburbiltzeko aukera ematen du. Aipagarriena hau da: emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria psikologikoaren tipologiaren barruko egoeren nagusitasuna berretsi da, ezarritako hiru taldeetan (Adierazitako Tratu Txarra taldearen kasuan %61,1, Tratu Txar Teknikoa taldean %74,4 eta Bizkaiko emakume guztien artean %72).

15. GRAFIKOA.
EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-EGOEREN TIPOLOGIA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN, EMAKUME TALDEEN ARABERA.
EHUNEKOAK. 2009.



Gogoratu behar da egoerek bost tipologietariko bakoitzean duten presentzia ez dela paritaria, kopuruaren aldetik. Izan ere, egoerarik gehien indarkeria psikologikoak ditu, guztira bost; indarkeria ekonomikoaren eta sozialaren barruan hiru egoera daude; sexualean bi, eta indarkeria fisikoaren tipologian bat baino ez.

Taulan egiaztatzen denez, indarkeria-egoeren ehunekorik handienak Adierazitako Tratu Txarren barruan daude, gainerako lau tipologietariko hirutan; eta garrantzi handikoa da indarkeria sozialaren %18,5. Hala eta guztiz ere, ikusten denaren arabera, "bultzatu, jo edo gauzak jaurtikitzen dizkizu (galdeketako 21. galderako 11. enuntziatua, 21.11 g.)" deritzon indarkeria fisikoa ez dago Adierazitako Tratu Txarra taldean behin ere jasota, eta, aldiz, Tratu Txar Teknikoa taldean ageri da (%1,4).

8. taulan, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-tipologiaren konbinazio guztiak ageri dira (guztira 16). Horietariko bostek emaitzarik ez dutela kontuan hartuta (badirudi bidezkoa dela horiek mantentzea, jasota gelditzeke), gainerako hamaiketarik hiru gertaera

nabarmendu ahal dira: "indarkeria psikologikoa" tipologiaren presentzia iraunkorra, gainerako konbinazioetan integraturiko elementutzat; indarkeria-tipologia horrek bakarka duen garrantzia, Adierazitako Tratu Txarra taldean (guztizkoaren %73,1); eta, azkenik, Adierazitako Tratu Txarra taldeko egoeren aniztasun handiagoa, eta, horren barruan, batez ere, "indarkeria psikologikoa eta soziala" (%30,8) eta "indarkeria psikologikoa, sexuala, soziala eta ekonomikoa" (%23,1) konbinazioak nagusitzen dira.

8. TAULA.
EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-EGOEREN TIPOLOGIA BAT
EDO GEHIAGO BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN, EMAKUME TALDEEN ARABERA.
EHUNEKOAK. 2009.


Tipologiak	Emakume taldeak		
	Adierazitako Tratu Txarra	Tratu Txar Teknikoa	Guztira
Indarkeria Fisikoa bakarrik		2,2	2,0
Indarkeria Sexuala bakarrik		3,0	2,7
Indarkeria Ekonomikoa bakarrik		1,5	1,4
Indarkeria Psikologikoa bakarrik	23,1	73,1	68,7
Indarkeria Soziala bakarrik		2,2	2,0
Indarkeria Psikologikoa eta Sexuala		4,5	4,1
Indarkeria Psikologikoa eta Ekonomikoa		3,0	2,7
Indarkeria Psikologikoa eta Soziala	30,8	4,5	6,8
Indarkeria Soziala eta Ekonomikoa			
Indarkeria Sexuala eta Ekonomikoa			
Indarkeria Psikologikoa, Sexuala eta Ekonomikoa	7,7	0,7	1,4
Indarkeria Psikologikoa, Sexuala eta Soziala			
Indarkeria Psikologikoa, Sexuala eta Fisikoa			
Indarkeria Psikologikoa, Soziala eta Ekonomikoa	15,4	3,7	4,8
Indarkeria Psikologikoa, Soziala, Ekonomikoa eta Fisikoa			
Indarkeria Psikologikoa, Sexuala, Soziala eta Ekonomikoa	23,1	1,5	3,4
GUZTIRA	100	100	100

Iturria: Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009

Horrenbestez, eta laburtzeko, esan daiteke indarkeria psikologikoaren barruko egoerak direla ohikoenak edo orokorrenak, Bizkaian bizi diren emakume talde guztietan. Hala eta guztiz ere, indarkeria psikologikoari loturiko egoera horiek eta beste batzuk (batez ere indarkeria sozialeko

egoerak) batera gertatzea da Adierazitako Tratu Txarra taldearen elementu bereizgarria. Emakume horiek biltzen dute etxe barruko indarkeria-egoeren kopururik eta aniztasunik handiena. Azterketa-ildo hau argi adierazita dago 16. grafikoan; izan ere, Adierazitako Tratu Txarra taldearen barruko emakumeen %77k bi indarkeria-tipologiaren edo gehiagoren konbinazioa dute, eta, aldiz, Tratu Txar Teknikoa taldeko emakumeen kasuan ehunekoia %18koa baino ez da.

16. GRAFIKOA
EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-EGOEREN TIPOLOGIA BAT EDO GEHIAGO BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN, EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009.




Beraz, agerikoa da Tratu Txar Teknikoa taldearen barruan tipologia bakarra dagoela, eta talde horretako protagonista nagusia indarkeria psikologikoa da, hain zuzen ere, "ez du baloratzen egiten duzun lana (12 g.)" egoera. Lehen adierazi dugunez, arriskutsua da kausazko logika deterministak ezartzea, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria bezalako gizarte-fenomeno batean; dena den, elementu objektibo nahikoa dago emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria psikologikoko egoerek, modu batera edo bestera, beste egoera batzuk eragiten dituztela esateko; adibidez, "oihua, iraina edo mehatxua" egoera, indarkeria psikologiaren barruan dagoena. Azken egoera hori jasateak, dirudienez, eragina dauka emakumeak berak tratu txarra jasaten ari dela onartzeko orduan, eta, horrela, aukera gehiago dago Adierazitako Tratu Txarra taldearen barruan sartzeko. Horretarako, emaitzen azterketa espezifiko egin dugu, eta horri "Tratu Txar Teknikoa

Zentzu Hertsian" izena eman diogu; talde hori hurbilago dago Adierazitako Tratu Txarra taldeko esperientzietatik.

4.3.3. Egoeren iraupena denboran

Bizkaiko emakumeengan eragina duten etxe barruko indarkeriako egoerak eta tipologia identifikatu ondoren, 17. grafikoak egoerak horiek denboran duten iraupena jakiteko aukera ematen du. Alderdirik agerikoenetariko bat emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoera horien iraunkortasuna da; izan ere, Tratu Txar Teknikoa taldearen barruko emakume guztien %72,6ren kasuan eta Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakumeen %50en kasuan (bitik bat) "10 urte baino gehiago" iraun dute.

17. GRAFIKOA
EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-EGOEREN NOIZTIK HONAKOAK BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN, EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009.



Emaitza horiek kontuan hartuta, esan daiteke, etxe barruko indarkeria-egoerei dagokienez, kronikoago bihurtzen direla Tratu Txar Teknikoa taldeko emakumeen artean; etxe barruko indarkeria jasaten dutela adierazi duten emakumeen artean ez da halakorik gertatu, bitik batek jasaten baitu egoera hori azken hamar urteotan.

4.3.4. Bikotekidea, tratu txarraren emaile nagusia: adina, ikasketa maila eta lan-egoera

9. taulan argi eta garbi ikusten da tratu txarraren emaile nagusia "bikotekidea" dela, bai Adierazitako Tratu Txarra taldean (guztizkoaren

%78,6) eta bai, batez ere, Tratu Txar Teknikoaren kasuan (emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeren %90,4).

9. TAULA.
EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIAREN SORTZAILE NAGUSIA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN, EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009.

Tratu txarren emaitza	Emakume taldeak		
	Adierazitako Tratu Txarra	Tratu Txar Teknikoa	Guztira
Bikotekidea	78,6	90,4	89,3
Semea(k)	14,3	4,4	5,4
Alaba(k)		0,7	0,7
Aita		1,5	1,3
Ama		0,7	0,7
Neba-arreba(k)	7,1	1,5	2,0
Familiako beste batzuk			
Fam. ez diren b. batzuk		0,7	0,7
GUZTIRA	100	100	100

Iturria: Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009

Bikotekidearen nagusitasun hori kontuan hartuta, halaber, aipagarria da "semea(k)" tratu txarraren emaitzat hartzen du(t)en protagonismoa; hain zuzen ere, Adierazitako Tratu Txarra taldeko egoera guztien %14,3an.

10. taulan ikusten denez, tratu txarrak ematen dituen bikotekideak gero eta presentzia handiagoa dauka adinean gora egin ahala. Horrela, Adierazitako Tratu Txarra taldean batez besteko adina 55,91 urtekoa da, eta Tratu Txar Teknikoaren kasuan 56,14 urtekoa. Guztizkoaren %60-65, kasu batean eta bestean, 50 urtekoak edo gehiagokoak dira.

10. TAULA.
BIKOTEKIDEAREN ADINA, EMAKUMEAREN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIAREN SORTZAILE NAGUSIA DENEAN, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN, EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009.

Adin taldeak	Emakume taldeak		
	Adierazitako Tratu Txarra	Tratu Txar Teknikoa	Guztira
18-29	10,0	3,3	10,0
30-39	10,0	13,9	19,3
40-49	20,0	17,2	18,8
50-64	30,0	28,7	27,2
65 edo gehiago	30,0	36,9	24,7
GUZTIRA	100	100	100
B. Besteko Adina	55,91	56,14	50,58

Iturria: Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009

Tratu txarrak ematen dituen pertsonaren (gehienetan, bikotekidea) ikasketa mailan ere errepikatu egiten da emakumeen kasuan hezkuntza-aldagai horretan oinarrituz ezarritako lotura; hain zuzen ere, ikasketa maila zenbat eta txikiagoa izan, hainbat eta presentzia handiagoa. Horrela, 11. taulan egiaztatzen denez, Adierazitako Tratu Txarra taldeko tratu txarraren emaitza guztien %70ek oinarritzko ikasketak dituzte ("lehen hezkuntzakoak" eta "amaitu barik"); Tratu Txar Teknikoa taldearen kasuan ehunekoak %54,1ekoak da.

Hala eta guztiz ere, ez da ahaztu behar adierazle horren dimentsio historikoa eta belaunaldi mailakoa; izan ere, tratu txarrak ematen dituen bikotekideak ikasketa maila baxuak edukitzea estu lotuta dago bere batez besteko adinarekin (56 urte); izan ere, garai hartan hezkuntza lortzeko aukera orain baino nahiko mugatuagoa zen; horrek, lehen esan dugunez, belaunaldi horretako emakumeengan ere eragina dauka.

11. TAULA.
BIKOTEKIDEAREN IKASKETA MAILA, EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIAREN SORTZAILE NAGUSIA DENEAN, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN, EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009.

Bikotekidearen ikasketa maila	Emakume taldeak		
	Adierazitako Tratu Txarra	Tratu Txar Teknikoa	Guztira
Lehen hezkuntza amaitu barik	20,0	10,7	8,6
Lehen hezkuntza, OHO, Eskola Graduata, Oinarritzko Batxilergoa	50,0	43,4	36,5
Bigarren hezkuntza (Goi Batxilergoa/BBB/UBI)		11,5	13,6
Lanbide ikasketak (LH.I/LH.II)	20,0	20,5	20,2
Unibertsitateko ertainak (Diplomatura)		2,5	5,0
Unibertsitateko goi mailakoak (Lizentziatura/Doktoregoa/Graduatu-ondokoa)	10,0	11,5	16,1
GUZTIRA	100	100	100

Iturria: Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009

Adinak, era berean, zuzeneko eragina dauka lan-egoeran, hau da, tratu txarrak ematen dituen bikotekidearen azken ezaugarri soziodemografikoan. 12. taulan ikusten denez, Adierazitako Tratu Txarra taldeko hamar kasutik seitan (%60) bikotekidea ez-aktiboa da, hain zuzen ere, pentsioduna. Tratu txarrak ematen dituen pertsonaren profil hori %49,2koa da Tratu Txar Teknikoaren kasuan.

12. TAULA.
BIKOTEKIDEAREN LAN-EGOERA, EMAKUMEEN AURKAKO
ETXE BARRUKO INDARKERIAREN SORTZAILE NAGUSIA
DENEAN, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN, EMAKUME
TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009.

Oraingo Bikotekidearen Lan Egoera	Emakume taldeak		
	Adierazitako Tratu Txarra	Tratu Txar Teknikoa	Guztira
AKTIBOAK	40,0	50,8	65,3
a) Landunak	40,0	45,9	61,5
Autonomoa	10,0	1,6	8,4
H. Administrazioan Lanean		5,7	4,5
Kontr. Mugagabez Lanean	30,0	36,9	40,8
A. Baterako Kontratz Lanean		1,6	7,5
Kontr. Barik Lanean			0,2
Etxeko Langilea			
b) Langabetuak	0,0	4,9	3,9
Langabeziako Sorospena		3,3	2,9
Langabeziako Sorospenik ez		1,6	0,9
EZ-AKTIBOAK	60,0	49,2	34,7
Ikaslea			2,0
Etxekoandrea			
Pentsioduna (Gizarte Segurantzza)	60,0	43,4	29,7
Pentsioduna (Ezgait. edo Ezint. Pentsioa)		3,3	1,6
Erretiroduna edota Ezint. Pents. eta Lag. barik		0,8	0,5
Beste batzuk: EEE		1,6	0,7
Beste batzuk: ezintasuna eskatzen			0,2
GUZTIRA	100	100	100

Iturria: Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009

4.4. "TRATU TXAR TEKNIKOA ZENTZU HERTSIAN": ARRISKU-EGOERAN DAGOEN EMAKUME TALDE BATEN AZTERKETA ESPEZIFIKOA

"Ikerketaren diseinua" kapituluari adierazi dugunez, emakumeen "hirugarren sailkapena" sortu dugu, "ad hoc", Bizkaiko Lurralde Historikoan gertaturiko etxe barruko indarkeria-egoerekiko duten bizipen mailaren arabera. Emaitzen azterketak egiaztaturikoaren arabera, Tratu Txar Teknikoa taldearen barruko emakume guztien %49,3k galdera bakarrari erantzuten zioten "sarritan" edo "batzuetan", hain zuzen ere, "ez du baloratzen egiten duzun lana (21.12 g.)" galderari. Egoera hori indarkeria psikologikoaren barruan dago.

Kontuan hartuta emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoera espezifiko "bateko" metaketa dagoela, eta, beraz, "sarritan" edo "batzuetan" kategorien barruan beste erantzunik ez dagoela, Tratu Txar Teknikoa taldeko emakumeen (beste tipologia batzuetan daudenak) gainerrako %50,7ren azterketa zehatza egin behar da. Eta talde horri Adierazitako Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian jarri diogu.

Horrela, Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeretan hiru maila identifikatu dira, 2009ko ikerketa honetan: Adierazitako Tratu Txarra taldea (guztizkoaren %3,3); Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian (guztizkoaren %11,2), hau da, "sarritan" edo "batzuetan" gertaturiko indarkeria-egoeratzat "ez du baloratzen egiten duzun lana" (21.12 g.) soilik adierazi dutenak; eta, azkenik, Tratu Txar Teknikoa taldea (guztizkoaren %22,1).

Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldean (atal honetan aztertzen dena) emakumeen bitarteko segmentua sartzen da; emakume horiek, galdeketa egiteko unean azken bi urteotan tratu txarrak jasaten dituztela berariaz onartu ez arren (Adierazitako Tratu Txarra taldea), agian, egoera horretatik hurbilago daude, etxe barruan orain dituzten bizipen batzuk aintzat hartuta.

Joera orokortzat, esan daiteke emakumeen aurkako etxe barruko "indarkeriaren kiribila edo zikloa" fase aurreratuagoan dagoela Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldean, eta, horrela, talde hori arrisku-egoerako taldetzat har daiteke.

4.4.1. Ezaugarri soziodemografikoak

Lehen Adierazitako Tratu Txarra, Tratu Txar Teknikoa eta Guztizkoa taldeen kasuan egin dugunez, atal honen hasieran labor-labor azalduko dugu Bizkaian bizi eta Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldean dauden emakumeen profil soziodemografikoa.

Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldeko emakumeen batez besteko adina 52,76 urtekoa da; 65 urteko edo gehiagoko taldea kasu guztien %35,3koa da, eta 18-29 urte bitarteko taldea, azkenik, emakume guztien %7,4koa.

Bizikidetzat, ekonomia eta gizarteko (edo gizarte-klaseko) egoerari dagokionez, Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldeko emakumeen %88,2k bikotekidea dute eta berarekin bizi dira; %79,4 ezkondu daude; %86,8k seme-alabak di-

tuzte; kasu guztien %69,1ean bizikidetzako gune-rako diru-ekarpen nagusia bikotekideak egiten du, eta %72,1ek klase ertainekotzat hartzen du bere burua.

Talde honetako emakumeen %45,6k oinarrizko ikasketak dituzte; %47,1 etxekoandreak dira, eta %64,7 ez-aktiboak. Gainera, hamarretik sei baino gehiago 50.000 biztanletik gorako udal-erri batean bizi dira Bizkaian, eta guztien %7,4 jatorriz atzeritarra dira.

Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldearen ezaugarri soziodemografikoek berretsi egiten dute talde horri esleituriko ideia nagusia; hau da: Adierazitako Tratu Txarra eta Tratu Txar Teknikoa taldeen arteko segmentua osatzen dute; hain zuzen ere, azken emakume talde horren erregistroetatik apur bat urrundu eta, horrenbestez, hurbildu egiten da lehenengo taldearen erregistroetara.

4.4.2. Emaitzak egoeren arabera: "etxeko lana ez baloratzearen" hegemonia txikiagoa

2005eko ikerketan egin zen bezala, 13. taula aintzat hartuta, txosten honetan lehenengoz esan daiteke Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldea bitarteko segmentua dela Tratu Txar Teknikoaren eta Adierazitako Tratu Txarraren artean. 7. taulan adierazitako emaitzen ordena mantendu arren, emaitza horiek hurbilago daude Adierazitako Tratu Txarra taldearen emaitzetatik, eta, beraz, Tratu Txar Teknikoa taldeak erregistraturikoen gaineratik daude.

Ildo horretan, Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldeko emakume guztien %48,5ek esan dutenez, "sarritan" edo "batzuetan" bikotekideak "ez du baloratzen egiten duzun lana" (21.12 g.), eta hori ehuneko 25,4 puntu beherago dago Tratu Txar Teknikoa taldearen kasuan baino (%73,9); hain zuzen ere, Adierazitako Tratu Txarra taldeak erregistraturiko ehuneko ia berbera da (%50).

Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldean erantzun-ehunekorik gehien jaso duen bigarren indarkeria-egoera (berau ere indarkeria psikologikoaren barruan kokatua) "oihuak, irainak eta mehatxuak egiten dizkizu" (21.3 g.) da; hain zuzen ere, guztizkoaren %38,2koa da, hau da, ia ehuneko 20 puntu gehiago Tratu Txar Teknikoa taldean baino (%19,2), eta Adierazitako Tratu Txarra taldean baino ehuneko 12 puntu gutxiago (%50).

Azkenik, "ez ditu zure sinesmenak baloratzen (ideologikoak, erlijiozkoak,...), edo ez ditu kontuan hartzen zure zaletasunak (ez du atsegin zure janzkera) edo beharrian afektiboak" (21.10 g.) egoerak (berau ere indarkeria psikologikoaren barrukoa)

13. TAULA.
EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-EGOEREN IDENTIFIKAZIOA Bizkaiko Lurralde HistorikoAN, "TRATU TXAR TEKNIKOA ZENTZU HERTSIAN" TALDEAN. EHUNEKOAK. 2009 (ERANTZUN ANITZA*)

Etxeko pertsonaren batekin edo bikotekidearekin orain gertatzen diren egoerak	Emakume taldeak		
	Adierazitako Tratu Txarra	Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian	Guztira
1. Ez dizu uzten familia ikusten edo lagunekin eta auzokoekin harremanak edukitzen, elkartzen,...	10,0	7,4	1,0
2. Irabazten duzun dirua kendu edo ez dizu ematen autonomiaz bizitzeko beste.	5,0	4,4	0,7
3. Oihuak, irainak edo mehatxuak egiten dizkizu.	50,0	38,2	5,9
4. Etxeko gauzak apurtzen ditu.	10,0		0,3
5. Ez dizu uzten lanik egiten edo ikasten.		2,9	0,3
6. Gastuak kontrolatzen dizkizu (aurrezki-libretak, txartelak,...).	20,0	14,7	2,3
7. Dirua alferrik galtzen du, familiaren beharrianen kaltetan.	10,0	8,8	1,3
8. Presionatu egiten zaitu sexu-harremanak izateko orduan, zuk nahi ez duzula edo gogorik ez duzula jakin arren (ekin egiten du).	20,0	19,1	2,8
9. Ez dizu kasurik egiten zuk sexu-harremanak nahi dituzunean (ez ditu zure sexu-beharrianak asetzen).			
10. Ez ditu zure sinesmenak baloratzen (ideologikoak, erlijiozkoak,...), edo ez ditu kontuan hartzen zure zaletasunak (ez du atsegin zure janzkera) edo beharrian afektiboak.	20,0	26,5	3,6
11. Bultzatu, jo edo gauzak jaurtikitzen dizkizu.		4,4	0,5
12. Ez du baloratzen egiten duzun lana.	50,0	48,5	18,0
13. Gauzak bakarrik egiteko gauza ez zarela esaten dizu, gauza guztiak txarto egiten dituzula, traketsa zarela.	35,0	20,6	3,5
14. Leku txarrean uzten zaitu (izen ona kendu, gezurtatu, barregarri utzi) beste batzuen aurrean (jendaurrean, lagunekin, familiakoekin, etab.).	40,0	17,6	3,3

Iturria: *Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009*


* Erantzun anitza: ehunekoaren batuketa %100 baino gehiago da.

erantzun guztien %26,5 biltzen ditu Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldean; hau da, 13,1 puntu gehiago Tratu Txar Teknikoa taldearen kasuan baino (%13,4) eta Adierazitako Tratu txarra taldearen gainetik (%20).

4.4.3. Emaitzak tipologiaren arabera: Adierazitako Tratu Txarrera hurbiltzen

Adierazitako Tratu Txarra eta Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldeen arteko hurbiltasun handiagoa oraindik ere argiago ikusten da **18. grafikoan**. Baina alderdirik garrantzitsuena hauxe da: talde honetako emaitzek, Tratu Txar Teknikoa taldeak erregistraturiko ehunekoak tipologia guztietan gaitzitzen gain (lehen **15. grafikoan** adierazitakoak), Adierazitako Tratu Txarra taldeko emaitzak ere gaitzitzen dituzte, "indarkeria soziala" tipologiaren kasuan izan ezik.

18. GRAFIKOA.
EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-EGOEREN TIPOLOGIA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN, "TRATU TXAR TEKNIKOA ZENTZU HERTSIAN" TALDEAN. EHUNEKOAK. 2009.



Edonondik begiratuta ere, azken gertaera hori modu desberdinetan aztertu ahal da. Agerikoa da, aztertzen ari garen esparruan, ikerketa honen diseinuan eta garapenean ezarritako dinamikan soilik mantendu behar garena. Arazoa oso sinplea eta,aldi berean guztiz konplexua da: galdeketa egiteko unean emakume batek tratu txarrak jasotzen dituela onartzea ala ez onartzea; edo, beste modu batera esateko, galdeketa 24. galderari "bai" edo "ez" erantzutea. Emakumeak bere burua

nola sailkatzen duen kontuan hartuta, ikerketa honetan Adierazitako Tratu Txarra taldean edo beste bietan kokatuko dugu, hau da, Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldean edo Tratu Txar Teknikoa taldean. Gainera, kasu honetan, bost tipologiaren bildutako indarkeria-egoerak, ehunekoari dagokionez, garrantzitsuagoak dira gaur egun euren burua etxe barruko tratu txarraren jasotzailetzat hartzen ez duten emakumeen kasuan, hau da, galdeketa 24. galderari dena delakoagatik (besteak beste tratu txarrak jasaten ez dutela uste dutelako) ezezko erantzuna eman dioten emakumeen kasuan, baietzko erantzuna ematen diotenen kasuan baino.

14. taulak eta **19. grafikoak** oraindik ere gehiago indartzen dute emaitza-ildo hau. Horrela, lehenengo adierazle-laukitik hasita, Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsia taldearen barruan sailkaturiko emakumeek, "indarkeria psikologikoa bakarrik" tipologiaren barruan, erantzun-metaketa urriagoa dute Tratu Txar Teknikoa taldeko emakumeek baino; hurrenez hurren, %47,1 eta %73,1 (**8. taula**); horrek ehuneko 26 puntu gutxiago adierazten du, baina emaitza horiek hurbilago daude Adierazitako Tratu Txarrak konbinazio horretan lorturiko emaitzetatik (%23,1).


Baina Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldearen bitarteko izaera **19. grafikoan** gelditzen da agerian: talde honetan indarkeria-tipologia bakarra nagusitzen da, indarkeria psikologikoa, guztizkoaren %64,7rekin, baina ehuneko 17,4 puntutan murriztu da Tratu Txar Teknikoa taldean erregistraturiko metaketa (**16. grafikoan**, %82,1). Hala eta guztiz ere, oraindik ere distantzia nahiko handia egiaztatuta da (ehuneko 41,6 puntu) Adierazitako Tratu Txarra taldean indarkeria-tipologia bakarrak duen presentziatik (guztizkoaren %23,1). Horrek guztiak aditzera ematen du talde baten eta bestearen arteko inflexio-puntua, adierazita egon ala ez, indarkeria-egoerako tipologia bat baino gehiago egotean dagoela.

14. TAULA
EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-EGOEREN TIPOLOGIA BATEN EDO GEHIAGOREN PRESENTZIA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN, "TRATU TXAR TEKNIKOAZ ZENTZU HERTSIAN" TALDEAN. EHUNEKOAK. 2009.

Tipologiak	Emakume taldeak		
	Adierazitako Tratu Txarra	Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian	Guztira
Indarkeria Fisikoa bakarrik		4,4	2,0
Indarkeria Sexuala bakarrik		5,9	2,7
Indarkeria Ekonomikoa bakarrik		2,9	1,4
Indarkeria Psikologikoa bakarrik	23,1	47,1	68,7
Indarkeria Soziala bakarrik		4,4	2,0
Indarkeria Psikologikoa eta Sexuala		8,8	4,1
Indarkeria Psikologikoa eta Ekonomikoa		7,4	2,7
Indarkeria Psikologikoa eta Soziala	30,8	8,8	6,8
Indarkeria Soziala eta Ekonomikoa			
Indarkeria Sexuala eta Ekonomikoa			
Indarkeria Psikologikoa, Sexuala eta Ekonomikoa	7,7	1,5	1,4
Indarkeria Psikologikoa, Sexuala eta Soziala			
Indarkeria Psikologikoa, Sexuala eta Fisikoa			
Indarkeria Psikologikoa, Soziala eta Ekonomikoa	15,4	5,9	4,8
Indarkeria Psikologikoa, Soziala, Ekonomikoa eta Fisikoa			
Indarkeria Psikologikoa, Sexuala, Soziala eta Ekonomikoa	23,1	2,9	3,4
GUZTIRA	100	100	100

Iturria: Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009


19. GRAFIKOA.
EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-EGOEREN TIPOLOGIA BATEN EDO GEHIAGOREN PRESENTZIA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN, "TRATU TXAR TEKNIKOAZ ZENTZU HERTSIAN" TALDEAN. EHUNEKOAK. 2009.



4.4.4. Denboran irauten duten egoerak

Adierazitako Tratu Txarra eta Tratu Txar Teknikoa taldeetan gertatzen den bezala (17. grafikoa), Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldearen barruko emakumeen aurkako indarkeria-egoerak ere iraunkorrak dira denboran. Horrela, hamar kasutik ia zazpiren (%69,6) iraupena "10 urte baino gehiago" da. Eta, 20. grafikoa ikusten denez, bitarte horri "6-10 urte bitartean" aldia lotuz gero, talde horretako emakume guztien %84,1 orain dela sei urte baino gehiagotik hona ari dira egoera hau jasaten.

20. GRAFIKOA.
EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-EGOEREN NOIZTIK HONAKO BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN, "TRATU TXAR TEKNIKOAZ ZENTZU HERTSIAN" TALDEAN. EHUNEKOAK. 2009.



4.4.5. Bikotekidea, berriro ere, tratu txarraren emale nagusia: adina, ikasketa maila eta lan-egoera

15. taulan mantendu egiten da lehen Adierazitako Tratu Txarra eta Tratu Txar Teknikoa taldeetarako identifikaturiko alderdietariko bat: "bikotekidearen" protagonismoa tratu txarraren emaleztat, Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldeko kasu guztien %90ekin.

Tratu txarraren emalearen adinaren, ikasketen mailaren eta lan-egoeraren kasuan ere emaitzen kasuan gauza bera gertatzen da. Adinari dagokionez, 16. taulan ikusten denaren arabera, hamar kasutik ia zazpitan berrogeita hamar urtetik gorakoa da; batez besteko adina 57,26 urtekoa da.

15. TAULA.
EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-
EGOEREN SORTZAILE NAGUSIA BIZKAIKO LURRALDE
HISTORIKOAN, "TRATU TXAR TEKNIKOAZ ZENTZU HERTSIAN"
TALDEAN. EHUNEKOAK. 2009.

Tratu txarren emaitza	Emakume taldeak		
	Adierazitako Tratu Txarra	Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian	Guztira
Bikotekidea	78,6	89,9	89,3
Semea(k)	14,3	2,9	5,4
Alaba(k)			0,7
Aita		2,9	1,3
Ama		1,4	0,7
Neba-arreba(k)	7,1	1,4	2,0
Familiako beste batzuk			
Fam. ez diren b. batzuk		1,4	0,7
GUZTIRA	100	100	100

Iturria: Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009

16. TAULA.
BIKOTEKIDEAREN ADINA, EMAKUMEARI ETXE BARRUAN
TRATU TXARRAK EMATEN DIZKIONA DENEAN, BIZKAIKO
LURRALDE HISTORIKOAN, "TRATU TXAR TEKNIKOAZ ZENTZU
HERTSIAN" TALDEAN. EHUNEKOAK. 2009.

Adin taldeak	Emakume taldeak		
	Adierazitako Tratu Txarra	Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian	Guztira
18-29	10,0	4,8	10,0
30-39	10,0	14,5	19,3
40-49	20,0	11,3	18,8
50-64	30,0	25,8	27,2
65 edo gehiago	30,0	43,5	24,7
GUZTIRA	100	100	100
B. Besteko adina	55,91	57,26	50,58

Iturria: Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009

Ikasketa mailaren kasuan, oinarrizko ikasketak dituztenei edo ikasketarik ez dutenei dagokienez, talde honetako emakumeen tratu txararen emaitzen (bikotekidea) ehunekoa %54,1ekoa da (17. taula).

Azkenik, 18. taulan, Tratu Txarra Zentzu Hertsian taldeko emakumeen tratu txararen emaitzak (bikotekidea) emakumearen lan-egoeran duen eragina agertzen da; izan ere, hamarretik ia sei (%58,1) ez-aktibotasun egoeran daude, eta ehuneko hori oso hurbil dago Adierazitako Tratu Txarra kasuan erregistratu den profiletik (%60).

17. TAULA.
BIKOTEKIDEAREN IKASKETA MAILA, EMAKUMEARI ETXE
BARRUAN TRATU TXARRAK EMATEN DIZKIONA DENEAN,
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN, "TRATU TXAR TEKNIKOAZ
ZENTZU HERTSIAN" TALDEAN. EHUNEKOAK. 2009.

Bikotekidearen ikasketa maila	Emakume taldeak		
	Adierazitako Tratu Txarra	Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian	Guztira
Lehen hezkuntza amaitu barik	20,0	11,3	8,6
Lehen hezkuntza, OHO, Eskola Graduata, Oinarrizko Batxilergoa	50,0	43,5	36,5
Bigarren hezkuntza (Goi Batxilergoa/BBB/UBI)		16,1	13,6
Lanbide ikasketak (LH.I/LH.II)	20,0	17,7	20,2
Unibertsitateko ertainak (Diplomatura)		1,6	5,0
Unibertsitateko goi mailakoak (Lizentziatura/Doktoregoa/Graduatu-ondokoa)	10,0	9,7	16,1
GUZTIRA	100	100	100

Iturria: Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009

18. TAULA.
BIKOTEKIDEAREN IKASKETA MAILA, EMAKUMEARI ETXE
BARRUAN TRATU TXARRAK EMATEN DIZKIONA DENEAN,
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN, "TRATU TXAR TEKNIKOAZ
ZENTZU HERTSIAN" TALDEAN. EHUNEKOAK. 2009.

Oraingo Bikotekidearen Lan Egoera	Emakume taldeak		
	Adierazitako Tratu Txarra	Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian	Guztira
AKTIBOAK	40,0	41,9	65,3
a) Landunak	40,0	37,1	61,5
Autonomoa	10,0		8,4
H. Administrazioan Lanean		3,2	4,5
Kontr. Mugagabek Lanean	30,0	32,3	40,8
A. Baterako Kontratuz Lanean		1,6	7,5
Kontr. Barik Lanean			0,2
Etxeko Langilea			
b) Langabetuak	0,0	4,8	3,9
Langabeziako Sorospena		3,2	2,9
Langabeziako Sorospenik ez		1,6	0,9
EZ-AKTIBOAK	60,0	58,1	34,7
Ikaslea			2,0
Etxekoandrea			
Pentsioduna (Gizarte Segurantzaz)	60,0	54,8	29,7
Pentsioduna (Ezgait. edo Ezint. Pentsioa)		3,2	1,6
Erretiroduna edota Ezint. Pents. eta Lag. barik			0,5
Beste batzuk: EEE			0,7
Beste batzuk: ezintasuna eskatzen			0,2
GUZTIRA	100	100	100

Iturria: Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009

4.5. AZKEN BI URTEETAN "ADIERAZITAKO TRATU TXARRA": AZTERKETA ESPEZIFIKOA

Lehen esan dugunez, ikerketa honetan identifikaturikoaren arabera, Bizkaian bizi diren emakumeen %3,3k esan dute azken bi urteotan tratu txarrak jasan dituztela; hau da, egoeraren batean familiakoren batek edo eurekin bizi den pertsonak tratu txarren bat eman diela, edo harreman afektiboren edo sentimentalen batean halako traturen bat izan dutela. Beste modu batera esateko, galdeketa 24. galderari baieztok erantzuna eman diote.

Aurreko ataletan emakume talde horren (Adierazitako Tratu Txarra taldearen barruko emakumeak) ezaugarrietariko batzuk aztertu ditugu; halaber, Tratu Txar Teknikoa, Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian eta Bizkaiko emakume guztiak taldeekin konparatuz, bidezkoa da euren berezitasunetariko batzuetan ondo sakontzea, aintzat hartuta horien identifikazioak ikerketa honetan garrantzi handia duela.

4.5.1. Indarkeria psikologikoaren nagusitasuna

Azken bi urteotan etxe barruko tratu txarrak izatea adierazi duten (Adierazitako Tratu Txarra) Bizkaiko emakumeen aurkako indarkeria "psikologikoaren" nagusitasuna argi eta garbi ikusten da 19. taulan. Horrela, indarkeria psikologikoa taldearen %100ean dago, kasu guztien %80an indarkeria mota bakartzat, eta gainerako %20an indarkeria fisikoarekin batera.

19. TAULA.
EMAKUMEAREN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-
EGOEREN TIPOLOGIA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN,
"ADIERAZITAKO TRATU TXARRA" TALDEAN. EHUNEKOAK. 2009.

Indarkeria mota	Adierazitako Tratu Txarra
Psikologikoa	80,0
Fisikoa eta psikologikoa	20,0
GUZTIRA	100

Iturria: *Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009*

4.5.2. Oraingo bikotekidea, tratu txarraren emaile nagusia

20. taulan ikusten denez, tratu txarraren emaile nagusia "oraingo bikotekidea" da, Adierazitako Tratu Txarra taldearen barruko bi

emakumetik baten kasuan (%50). Horrek indartu egiten du lehen adierazitako pertsonaren protagonismoa, baina beste bi alderdi hauek ere aintzat hartu behar dira: alde batetik, "familiako beste batzuk" deritzonaren presentzia (erantzun anitzeko guztizkoaren %30); eta, bestetik, "seme-alabak" (%15).

20. TAULA.

TRATU TXARRAREN EMAILEAREN IDENTIFIKAZIOA,
EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-
KASUETAN, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN,
"ADIERAZITAKO TRATU TXARRA" TALDEAN.
EHUNEKOAK. 2009. (ERANTZUN ANITZA*).

Tratu txarraren emaile	Adierazitako Tratu Txarra
Bikotekidea	50,0
Seme-alabak	15,0
Aita	5,0
Neba-arrebak	5,0
Familiako beste batzuk	30,0
Fam. ez diren b. batzuk (bikotekide ohia)	5,0

Iturria: *Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009*

* Erantzun anitza: ehunekoaren batuketa %100 baino gehiago da.

4.5.3. "Alkohola neurri barik edatearen" protagonismoa indarkerian

Emakume talde honi haxe galdetu genien: ea tratu txarren emaile batzuek izandako arazoek emakumeek eurek etxe barruan jasandako indarkeria-egoeran izan zezaketen eragina. 21. taulako emaitzei buruzko zenbait azterketa egin daitezke. Aipagarrienetariko bat "alkohola neurri barik edatea" deritzonak izan dezakeen protagonismoa da; hori lehenengo postuan kokatzen da erantzun guztien artean, guztizkoaren %21,4rekin, eta faktore horrek, gainera, presentzia dauka "matxismoa" (%7,1) eta "ludopatia" (%7,1) kasuetan. Horrela, "alkohola neurri barik edatea" hamar kasutik hirutan baino gehiagotan (%35,6) egongo litzateke, Bizkaian azken bi urteetan emakumeen aurka izandako indarkeria-egoerei dagokienez (Adierazitako Tratu Txarra).

Era berean, "matxismoaren" eginkizuna ere aipatzekoa da, faktore hori kasu guztien %14,3an ageri baita; sarritan, gainera, alkoholarekin konbinatuta agertzen da, hain zuzen ere, hamar kasutik bitan baino apur bat gehiagotan (%20,4). "Arazo psikikoa" faktorearen kasuan ere banaketa bera dago.

Azkenik, aipagarria da kasuistika bakarren hegemonia, arazo anitzeko egoerei dagokienez; hain zuzen ere, hamarretik sei baino gehixeago dira.

21. TAULA.
TRATU TXARRAREN EMAILEAREN ARAZOAK EDO PATOLOGIAK, EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-KASUETAN, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN, "ADIERAZITAKO TRATU TXARRA" TALDEAN. EHUNEKOAK. 2009.

Tratu txarren emailearen arazoa	Adierazitako Tratu Txarra
Alkohola neurri barik edatea bakarrik	21,4
Drogak hartzea bakarrik	7,1
Lan-egoera ez egonkorra bakarrik	0,0
Langabezia bakarrik	0,0
Laneko Presioa bakarrik	7,1
Arazo Psikikoa bakarrik	14,3
Matxismoa bakarrik	14,3
Alkohola neurri barik edatea eta Matxismoa	7,1
Alkohola neurri barik edatea eta Ludopatía	7,1
Drogak hartzea eta Kolokako Lan Egoera	7,1
Langabezia eta Arazo Psikikoa	7,1
Eskolako arazoak etxera eramatea	7,1
GUZTIRA	100

Iturria: *Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009*

4.5.4. Emakumeen aurkako indarkeriadun harremanak haustea, eta horren ondorioak emakumeentzat

Ikerketa honen helburuetariko bat hauxe jakitea da: emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeren presentziak ea zein neurritan duen


22.TAULA.
INDARKERIA-EGOERAKO HARREMANAK HAUSTEAREN ONDORIOAK: ERAGINPEKO EMAKUMEEN IRITZIA, Bizkaiko Lurralde HistorikoAN, "ADIERAZITAKO TRATU TXARRA" TALDEAN. EHUNEKOAK. 2009 (ERANTZUN ANITZA).

Harremanen amaierak "Adierazitako Tratu Txarra" taldekoak diren eta orain bikotekiderik ez duten emakumeengan sortzen dituen ondorioak	Aldiak			
	Sarritan	Batzuetan	Gutxitan	Inoiz ere ez
Ahozko mehatxuak		20,0		80,0
Erasoak	20,0			80,0
Jazarpena		20,0		80,0
Beste bikote-harreman batzuetan sartzea				100,0
Arazoak seme-alabekin	20,0	20,0		60,0
Arazoak familiako beste batzuekin				100,0
Lan-arazoak	20,0			80,0
Arazo emozionalak (depresioa, antsietatea...)	40,0	20,0	20,0	20,0
Arazo ekonomikoak		20,0	20,0	60,0
Gizarte-baliabideak lortzeko arazoak				100,0
Familiakoen ardura osoa zeuretzat				100,0
B. ondorio batzuk, zein?				100,0

Iturria: *Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009*

eragin erabakigarria harremanak haustean. **21. grafikoan** ikusten denez, Adierazitako Tratu Txarra taldeko bi emakumetik batek (%50) baietz esan du, eta Tratu Txar Teknikoa taldearen barruan ehuneko askoz ere baxuagoa da (guztizkoaren %5).

21. GRAFIKOA.
INDARKERIA-EGOERAREN ERAGIN ERABAKIGARRIA, BIKOTEKIDERIK GABEKO EMAKUMEEN HARREMANAREN AMAIERAN, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN, "ADIERAZITAKO TRATU TXARRA" TALDEAN. EHUNEKOAK. 2009.



22. taulan, Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakumeen %50 horretan (etxe barruko indarkeria-egoeradun bikote-harremanak hautsi zituztenak) sorturiko ondorioak ageri dira. Garrantzitsuenak "arazo emozionalak" dira, kasu guztien %40an, eta horiek ondoren adierazitakoaren arabera banaturik daude: "erasoak", "arazoak seme-alabekin" eta, azkenik, "lan-arazoak.

4.6. EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-EGOEREN GIZARTE-PRESENTZIA BIZKAIAN

Txosten honetako aurreko ataletan ez bezala (elkarrizketaturiko emakumearen egoera pertsonala jakitera bideraturiko atalak), atal honetan banakako egoera gainditu eta gizartean txertatzen den informazioa ageri da. Hori dela eta, Bizkaiko

emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriaren *gizarte-presentzia* kontzeptua erabili dugu.

Ikerketaren diseinuaren helburu nagusienetariko bat, bestalde, Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoerak inguru hurbilean zein neurritan ezagutzen ziren dimentsionatzea izan zen. "Inguru hurbila" kontzeptuaren barruan, emakumeen eguneroko bizitza garatzeko inguruetak harremanak sartzen dira; hau da, familia, laguntzak, ezagunak, auzokoak eta lankideak.

Jakina, "gizarte-ingurua" aipatzean esan behar da atal honetan erregistraturiko emaitzak "jakina dena" edo "ezaguna dena" deritzonaren inguruko gorabeherei buruzko "iritzietan" oinarritzen direla. Azken batean, "herri-jakintza" antzeko bat da, eta horren zehaztasuna erlatiboa da, kontuan hartuta honako hau identifikatzeko aukera ematen duten informazioko bideen edo iturrien aniztasuna eta, beraz, fidagarritasun maila desberdina: inguru hurbileko indarkeria-egoeren ezagupena, tratu txarra jasaten duen pertsonaren eta tratu txararen emalearen ezaugarriak, egoeraren iraupena eta salaketa egotea edo ez egotea. Hala eta guztiz ere, hurbiltasun handiagoak, berez, informazioaren fidagarritasun handiagoa ekarriko luke.

Lehenengo alderdiarekin hasita, 22. grafikoan ikusten denez, Bizkaiko emakume guztien %19,1ek esan dute inguru hurbileko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeren berri dutela. Eta datu hori garrantzitsua da: Bizkaian

2009an bizi diren hamar emakumetik ia bik etxe barruko indarkeria-egoeren berri izateak esan nahi du, geure iritziz, halako egoerek gizarte-presentzia handia dutela geure eguneroko bizitzan.


Grafikoak, gainera, beste datu garrantzitsu bat ematen ditu: ezagupen maila handiagoa da etxe barruko indarkeria-egoera jasaten duten emakumeen kasuan. Horrela, Tratu Txar Teknikoa taldean, ezagupena guztizkoaren %23,1ekoa da, eta, batez ere, Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakumeen artean, ezagupena %65ekoa da.

4.6.1. Emakumearen aurkako indarkeria: arazo nagusienetariko bat Bizkaiko emakumeentzat

23. taularen eta grafikoaren emaitzek elementu objektiboak aurkitzeko aukera ematen dute, lehen adierazitako Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeren ezagupena edo gizarte-presentzia euskarritzeko. Izan ere, emakumeen oraingo hiru arazo nagusiak "emakumeen aurkako indarkeria-egoerak", "lana eta familia adiskidetzeko zailtasuna" eta "etxeko lanek duten balorazio urria" dira.

Adierazitako Tratu Txarra taldearen kasuan, arazo nagusia "emakumeen aurkako indarkeria-egoerak" da, eta erantzunen %50ek horixe adierazi dute. Horrek aditzera ematen du, besteak beste, indarkeria-egoera horrek emakume jasotzai-

22. GRAFIKOA. EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-EGOEREN BERRI INGURU HURBILEAN, EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009



23. TAULA. EMAKUMEEN ARAZO NAGUSIAK EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009. HANDIENETIK TXIKIENERA ANTOLATUTA GUZTIZKOTIK. (BI AUKERATAN OINARRITURIKO ERANTZUN ANITZA*).

Emakumeen arazo nagusiak	Emakume taldeak		
	Adierazitako Tratu Txarra	Tratu Txar Teknikoa	Guztira
Lana eta familia adiskidetzeko zailtasuna	35,0	48,5	53,1
Emakumearen aurkako indarkeria-egoerak	50,0	35,8	36,6
Etxeko lanek duten balorazio urria	45,0	48,5	36,3
Emakumearen lan-baldintza txarragoak	30,0	29,9	33,8
Emakumearen eginkizunaren onarpen urria gizartean	25,0	23,1	22,1
Seme-alabak heztea oso zaila izatea	5,0	6,7	11,1
Beste batzuk	10,0	6,0	4,8

Iturria: *Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009*

* Erantzun anitza: ehunekoaren batuketa %100 baino gehiago da.00%.


leengan sortzen duen eragina. Hala eta guztiz ere, ezin da ahaztu "emakumeen aurkako indarkeria-egoerak" bigarren arazo nagusia dela, bai Tratu Txar Teknikoa taldearen kasuan (%35,8), bai Bizkaiko emakume guztien taldean (%36,2).

Bizkaiko emakumeen multzoaren kasuan, emakumeen arazo nagusia "lana eta familia adiskidetzako zailtasuna" da (%53,1), baita Tratu Txar Teknikoa taldearen kasuan ere (%48,5). Hau ez da alderdi hau garatzeko leku egokia, ikerketa honen helburua beste bat baita; hala ere, agerikoa da fenomeno honen gizarte-presentzia eta emakumeentzat dituen ondorioak kontuan hartuta, beharrezkoa da horren garrantzi politikoaz jabetzea edo ekintza publikoak berori aintzat hartzea¹².

"Etxeko lanek duten balorazio urria" deritzonari dagokionez, 23. taulan eta 23. grafikoan ikusten denaren arabera, hori arazo nagusia da Tratu Txar Teknikoa taldearen kasuan (%48,5), eta Adierazitako Tratu Txarra taldean ere garrantzitsua da (%45); beraz, lotura bat ezarri ahal da emakume talde horrek "ez du baloratzen egiten duzun lana (21.12 g.)" deritzon etxe barruko indarkeria-egoeran izandako emaitzekin.

Galdera hau, galdeketa, Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoerak identifikatzeko (ikerketa honen helburu nagusia) galde-retarako trantsizio teknikoko elementutzat diseinatu bazen ere, etxeko eta familiako agertoki honetan oraindik ere emakumeentzat bizi-arazoak sortzen dituzten eguneroko gizarte-jardunak garatzen dira.

23. GRAFIKOA. EMAKUMEEN LAU ARAZO NAGUSIAK EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009. (ERANTZUN ANITZA).



4.6.2. Lagunak, auzokoak eta ezagunak: inguru hurbilean identifikatzen diren kasuak

24. TAULA. INGURU HURBILEKO EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-EGOEREN BIKTIMA DEN EMAKUMEA, EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009.

Inguru hurbilean etxe barruko indarkeria-egoera bizi duen emakume baten identifikazioa	%
Familiako emakumeak	26,7
Ama	4,3
Alaba	4,3
Ahizpa	7,8
Amaginarreba	0,9
Koinata	0,9
Lehengusina	3,4
Iloba	1,7
Izeba	1,7
Familia, ahaidetasuna zehaztu barik	1,7
Familiakoak ez diren emakumeak	73,3
Lagunak	26,7
Ezagunak	19,8
Auzokoak	21,6
Etxeko langileak	2,6
Kabinete psikologikoaren erabiltzaileak	2,6
GUZTIRA	100

Iturria: Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009

Inguru hurbileko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeren berri dutela esan duten emakume guztien %19,1i (hau da, 22. grafikoan baieztatu erantzuna eman zutenei), emakume jasotzaileak, tratu txar-raren emaitzak eta jasandako tratu txar mota identifikatzeko eskatu genien; halaber, egoera horren aurkako salaketaren berririk ba ote zuten ere galdetu genien.

24. taulan inguru hurbilean identifikaturiko etxe barruko indarkeria-egoeren emakume jasotzaileen profilak ageri dira. Identifikaturiko kasu guztien %73,3 "familiakoa ez den inguru hurbileko emakumeak" kalifikazioan

¹² Horri dagokionez, aipatze-koak dira honako autore hauek gaiari buruz dituzten planteamenduak: NAVARRO, V. *El subdesarrollo social de España. Causas y consecuencias*. Anagrama. Barcelona. 2006; eta FERNÁNDEZ CORDÓN, J. A. ETA TOBIO, C. *Conciliar las responsabilidades familiares y laborales: políticas y prácticas sociales*. Fundación Alternativas, 2005, 79. zenb. lan-dokumentua. Geure ingururik hurbilenean, EMAKUNDEK sustaturiko ikerketa hauxe daukagu: *Zaintzaren ondorioak. Adiskidetzeko-estrategiak emakumeen eta gizonen eguneroko bizitzan, Euskal Autonomia Erkidegoan*. 22. zenb. txostena, Vitoria-Gasteiz, 2007. Ikerketa hori erreferentzia aplikatu oso interesgarria da egoerari "tenperatura hartzeko". Horren laburpena autore hauek idatzitako artikulu batean dago: MASA, M. ETA UNCETA, A. "Hacia una vida sensata: estrategias cotidianas de conciliación de las mujeres y los hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco." *Lan Harremanak. Revista de Relaciones Laborales*, 2008, 1, 149-165. or.

biltzen dira, eta horixe da, gure ustez, aipagarriena. Etxe barruko tratu txarraren biktima nagusizat identifikaturiko inguru hurbileko emakumeak "lagunak", "auzokoak" eta "ezagunak" dira.

25. TAULA
INGURU HURBILEKO EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-
EGOEREN IRAUPENA EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009.

Inguru hurbilean etxe barruko indarkeria-egoera bizi duen emakume baten identifikazioa	Aldia				Guztira
	Urte 1 baino gutxiago	1-5 urte	6-10 urte	10 urte baino gehiago	
Familiakoak	50,0	21,9	15,6	12,5	100
Familiakoak ez	57,1	23,8	10,7	8,3	100


Iturria: Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009

25. taulan ikusten denez, denboran kroniko samarrak diren kasuak familia inguruak dira; hortik ondorioztatzen denez, Bizkaiko emakumeen aurkako identifikaturiko etxe barruko indarkeria-kasua zenbat eta hurbilagoa izan, hainbat eta zehatzagoa da horren ezagupen maila. Honek atal honetan adierazitako hausnarketara garamatza; hain zuzen ere, inguru hurbileko emakumeen aurkako indarkeria-kasuen ezagupenaren eta identifikazioaren fidagarritasun mailara.

4.6.3. Bikotekide ohia eta senarra: inguru hurbilean identifikaturiko tratu txarraren emaile nagusia

Bizkaiko biztanleengandik hurbilenak diren edo inguru hurbilean dauden emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeren gizarte-pre-

24. GRAFIKOA
TRATU TXARRAREN EMAILEAREN IDENTIFIKAZIOA, INGURU HURBILEKO EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-EGOERETAN, EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009




sentiaren ezagupen honetan, beste datu interesgarri bat 24. grafikoan dago jasota. Tratu txarraren emaile nagusiak "bikotekide ohia" eta "senarrak" dira (hurrenez hurren, %36,2 eta %35,3).

Hala eta guztiz ere, ezarritako emakume taldearen arabera desberdintasunak daude: Adierazitako Tratu Txarra taldean gehien identifikaturiko profila "bikotekide ohia" da; Emakume guztien kasuan gehien identifikatu dena "senarra" da, eta Tratu Txar Teknikoa kategorian "bikotea".

4.6.4. Indarkeria psikologikoarekin batera indarkeria fisikoa dator

25. grafikoan ikusten denez, Bizkaiko biztanleek ezagutzen dituzten inguru hurbileko emakumeen aurkako hamar indarkeria-kasutik zortzitan baino gehiagotan tratu txar psikologikoa dago, bai bera bakarrik, bai tratu txar fisikokoarekin batera.


25. GRAFIKOA
INGURU HURBILEKO EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-EGOEREN TIPOLOGIA, EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009.



4.6.5. Salaketa ezaren nagusitasuntxo kasu hauetan

Azkenik, 26. grafikoak aukera ematen du inguru hurbilean tratu txarreko kasuen berri duten Bizkaiko emakumeek egoera hori salatuta dagoen ala ez dakiten jakiteko. Baiezko eta ezezko

26. GRAFIKOA.
SALAKETAREN BERRI IZATEA, INGURU HURBILEKO EMAKUMEEN
AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-KASUETAN, EMAKUME
TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009



erantzunen arteko oreka dagoela ikusten da, baina azken horiek gehixeago dira.

Era berean, erantzun horien banaketa orekatua egon da hiru emakume taldeen artean, eta horrek indartu egiten du, gure ustez, erantzunaren fida-garritasuna; bertan, Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoerak dituzten harreman afektiboak edota familiako harremanen mantentzeak nagusitasuntxoak dauka oraindik. Eta, hurrengo atalean, fenomenoaren dimentsio horixe aztertuko dugu; hain zuzen ere, halako harreman afektiboak edota familiako harremanak hausteko pausoa ematean parte hartzen duten faktorerik garrantzitsuenetarikoz batzuk identifikatuko ditugu.

4.7. HALAKO HARREMANAK HAUSTEKO OZTOPOAK

26. taulan eta 27. grafikoan adierazitako emaitzei buruzko interpretazio desberdinak egin daitezkeen arren,

emakume guztiak emandako bi erantzunetatik bat (gutxi gorabehera) biltzen duten hiru zergati daude; hain zuzen ere: "baliabide ekonomikorik ez izateagatik", "seme-alabengatik (familia unitatea mantentzeko)" eta "bikotekidearen mende-kuaren beldurragatik".

Esan daiteke Bizkaiko emakumeek diagnostiko bera egin dutela: Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoerak dituzten harremanak (afektiboak edota familiakoak) hausteko oztopo nagusiak ekonomia (independentziarik eza), indarkeria (mendekuaren beldurra) eta familia (seme-alabak) dira, bai denak batera edo bai modu independentean aurkeztuta.

Kulturaren, gizartearen eta erakundeen arloan kokaturiko beste zergati batzuek ("lotsagatik, jendeak zer esango duen", "fami-liak ez onartzeagatik", "erakundeek ez laguntzeagatik")

26. TAULA.
HARREMANAK HAUSTEKO OZTOPO NAGUSIAK, EMAKUMEEN AURKAKO ETXE
BARRUKO INDARKERIA-EGOERETAN, EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK.
2009. HANDIENETIK TXIKIENERA ANTOLATUTA GUZTIZKOTIK. (HIRU AUKERATAN
OINARRITURIKO ERANTZUN ANITZA*).

Etxe barruko indarkeria-egoerako harremanak ez hausteko zergatiak	Emakume taldeak				
	Adierazitako Tratatu Txarra	Tratatu Txar Teknikoa	Egoerak ezagutzen dituzte	Ez dute egoerarik ezagutzen	Guztira
Baliabide ekonomikorik ez izateagatik	50,0	56,7	41,4	61,2	57,4
Seme-alabengatik (fami-liaren batasuna mantentzeko)	50,0	54,5	36,2	48,2	45,9
Bikotekidearen mendekuaren beldurragatik	40,0	35,8	37,9	45,1	43,7
Maite dutelako (mendekotasun emozionala)	40,0	13,4	25,0	15,3	17,2
Oraingo kulturarengatik/balioengatik (matxistak)	5,0	14,2	14,7	10,4	11,2
Tratatu txarraren emailea aldatu egingo dela pentsatzeagatik	20,0	9,0	18,1	8,0	9,9
Beste zergati batzuk	5,0	9,0	8,6	5,3	5,9
Lotsagatik (jendeak zer esango duen)	10,0	1,5	5,2	2,7	3,1
Bakardade-egoerarengatik		1,5	1,7	3,3	3,0
Erakundeek ez laguntzeagatik (baliabideak, zerbitzuak, etab.)	5,0	3,0	6,0	1,2	2,1
Familiako gainerako kideengatik (ez dute onartzen)			0,9	0,8	0,8

Iturria: Soziologia 2 Saila. UPV/EHU. 2009


* Erantzun anitza: ehunekoaren batuketa %100 baino gehiago da.

ehuneko oso txikiak dituzte erantzun guztien artean. Ezin da esan eremuotan kokaturiko faktoreek eraginik ez dutenik, baina faktoreek lehen adierazitako hiru faktoreen mende daude, hain zuzen ere, ekonomiaren (independentziarik eza), indarkeriaren (beldurra, mendekua) eta familiarren (seme-alabak) mende, azken horiek erabakigarriagoak baitira.

Hala eta guztiz ere, diagnostiko komun honekin batera, 27. grafikoan beste hiru zergati daude jasota, hain zuzen ere, Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakumeek adierazitako emaitzetan oinarrituz; izan ere, esan daiteke emakumeek arlo honetan iritzi kualifikatuagoa dutela, euren esperientzietan oinarrituta. Horrela, emakume talde honetan, "maite dutelako (mendekotasun emozionala)" erantzun guztien %40koa da, eta ehuneko hori gainerako taldeek kategorian honetan lorturiko emaitzak baino askoz ere handiagoa da; "aldatu egingo direla pentsatzeagatik" kategorian ere gauza bera gertatzen da, baina neurri txikiagoan (%20).

27. grafikoan "kulturagatik/balioengatik (matxismoa)" erantzuna ere jasotzen du, eta horrek %11-14 bitarteko ehunekoak ditu; Adierazitako Tratu Txarra taldean guztizkoaren %5era baino ez da heltzen.


27. GRAFIKOA. HARREMANAK HAUSTEKO LAU OZTOPO NAGUSIAK, EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-EGOERETAN, EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009. (ERANTZUN ANITZA*).



4.8. LAGUNTZAKO BALIABIDEEI BURUZKO INFORMAZIO ASKO

28. grafikoan ikerketa honetako beste emaitzarik garrantzitsuetariko bat adierazten da. Bizkaiko emakumeek euren aurkako etxe barruko indarkeria-egoerak daudenean "zer egin edo nora joan" jakiteari buruz duten ezagupen maila galdetzen denean, hamarretik ia zortzik baieztatu erantzuna eman dute.

28. GRAFIKOA. ZER EGIN EDO NORA JOAN JAKITEA, EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-EGOERETAN, EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009.



Gainera, hiru taldeetan horri buruzko ezagupen maila handia egiaztatu da, batez ere Adierazitako Tratu Txarra taldearen barruko emakumeen artean (guztizkoaren %85).

2009an egindako galdeketa 2005ekoari dagokionez dituen berritasunetariko bat hauxe da: etxe barruko indarkeria-egoerak jasanez gero zer egin edo nora joan badaikitela erantzun duten emakumei, erantzuna (36.1 galdera) zehazteko eskabidea egin zaie. 29. grafikoan horiek emandako erantzunak laburbilduta daude, eta aipatzekoa da "016 telefonoa" eta "Ertzaintza-


Polizia" aukeren garrantzia. Laguntzako bi baliabide horiek hamar erantzunetik zazpi biltzen dituzte, eta, gainera, erantzun homogeneous izan dituzte hiru taldeetan; horri dagokionez,

aipatzekoa da Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakumeen artean ehunekoa %75 izan dela. Aipagarria da egindako publizitate-kanpaina batzuen eraginkortasuna; horiek agerian gelditu

dira ikerketan parte hartu duten emakumeek zuzenean adierazitako adierazpen batzuetan, adibidez, "telebistan ageri den telefono-zenbakia" (hain zuzen ere, "016" telefonoa).

Bigarren kategoriarik garrantzitsuenaren barruan ("Gainerakoak" kategorია), honako ekintza hauek sartzen dira: "112" zenbakira deitu, "familiari" deitu, "Emakunderi" deitu, "Interneten informazioa bilatu" eta Bizkaiko emakumeek adierazitako beste erantzun batzuk.

29. GRAFIKOA.
ERABIL DAITEZKEEN BALIABIDEAK, EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-
EGOERETAN, EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2009.





V. kapitulua

**Emaitzen konparazioa
2005-2009**

5. EMAITZEN KONPARAZIOA: 2005-2009

Ikerketa honen helburuetariko bat Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeraren ezagupenean azken lau urteotan ezarritako adierazleen bilakaera ezagutzea da. Halaber, ikerketa honetan eta 2005eko ikerketan lan-metodologia bera garatzeak aukera ematen du lorturiko emaitzen arteko konparazio objektiboak egiteko.

Kapitulu hau horrexetan oinarritzen da, eta bere helburu nagusia konparazioan aurreratu diren emaitzak adieraztea (azalpenen eta grafikoen eta testuen bidez) da; helburua ez da, horrenbestez, lorturiko emaitzei buruzko era guztietako interpretazioak ematea bakarrik; interpretazio horiek, nolabait ere, txosten honetako aurreko kapituluetan egin dira. Beraz, kapitulu honetan emaitzek eurek dute baliorik handiena, erakunde publiko batek emaitzak lortzeko egin duen apustuari esker sortu baitira.


Hala eta guztiz ere, kontuan hartuta adierazle guztiak ustiatzea, konparazio-ikuspegitik begiratuta, lan nahiko luzea eta, gainera, eraginkortasun urrikoa izango litzatekeela, komenigarria da hauxe adierazten dutenak soilik azaltzea: azken lau urteotan emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-fenomenoan egon diren aldaketarik garrantzitsuenak. Hala ere, ikusten denez, hamalau (14) aldaketa garrantzitsu aukeratu dira, eta hori kopuru handia da. Horrek ez du esan nahi, jakina, azken urteotan zenbait jarraibide mantendu ez direnik; antzekotasun horiek, batez ere, honako honen ingurukoak dira: bizikidetzako egoera (egoera zibila, bizikidetzako gune mota edo ikasketa maila); "etxeko lana ez baloratzea", indarkeria psikologikotzat; bikotekidearen (tratu txarraren emaile nagusia) adina, ikasketa maila eta lan-egoera; edo harremanaren amaierak Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakumeengan dituen ondorioak.

5.1. IDENTIFIKATURIKO KASUEN EHUNEKO TXIKIAGOA HIRU TALDEETAN

30. grafikoan, 2005eko eta 2009ko emaitzen konparaziorako adierazleak aukeratzearen lehenengo ondorio garrantzitsua ikusten da. Horrela, hiru emakume taldeetan beherakadak erregiratu

dira, etxe barruko indarkeriarekin duten loturaren arabera: Adierazitako Tratu Txarra taldean ehuneko -1,9 puntu; Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldean ehuneko -2,1 puntu, eta, azkenik, Tratu Txar Teknikoa taldean ehuneko -3,4 puntu.

30. GRAFIKOA.
IDENTIFIKATURIKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-KASUEN IDENTIFIKAZIOA TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2005-2009.



Emaitza horiek abiapuntua edo testuinguru orokorra adierazten dute, Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko 2009ko indarkeria-egoera interpretatzeko, 2005eko egoerarekin konparatuta, urte horretan egindako ikerketa aintzat hartuta. Hala eta guztiz ere, kasu kopuruan beherakada egoteak ez du esan nahi kasurik ez dagoenik, ezta azken lau urteotan kasuotan aldaketa adierazgarririk egon denik ere, ondoren ikusiko dugunez.

5.2. BATEZ BESTEKO ADINAREN BEHERAKADA IDENTIFIKATURIKO KASUETAN

31. grafikoan, hiru emakume taldeek ezarritako bost adin-tarteen arabera izandako bilakaera adierazten saiatu gara. Besteak beste, alderdirik garrantzitsuenak Adierazitako Tratu Txarra taldeak 2009an honako adin-tarte hauetan izandako hazkundera izan da: 40-49 urte (%10,6), 30-49 urte (%5,3) eta, neurri txikiagoan, 18-29 urte (%0,6).


Aldiz, Adierazitako Tratu Txarra talde honetan, Bizkaian bizi diren 50-64 urte bitarteko eta 65 urteko edo gehiagoko emakume taldeek ere beherakada handiak izan dituzte; hurrenez hurren, %-10,8 eta %-5,8.

urtekoa dela, Adierazitako Tratu Txarra taldean batez besteko adina baxuagoa da; hain zuzen ere, 2009an 47,5 urtekoa izan da, hau da, 2005ekoa (50,4) baino -2,9 urte baxuagoa. Gainera, Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian ere beste beherakada handi bat egiaztatu da batez besteko adinean, -1,7 urtekoa, eta adin hori 52,8 urtekoa da orain (2005ean 54,5 urtekoa).

Interpretazio-ildo horri jarraituz, 33. grafikoan Bizkaian bizi diren 49 urteko eta gutxiagoko emakumeen batuketa ageri da (hau da, 18-29, 30-49 eta 40-49 urteko tarteen batuketa). Bertan ikusten denez, Adierazitako Tratu Txarra taldean ehuneko 16,6 puntuko hazkundea egon da 2005-2009 aldian, eta, hain zuzen ere, talde honetan identifikaturiko kasu guztien %65 dira; era berean, aipatzekoa da Tratu Txar Teknikoa taldean egon den ehuneko 5,3 puntuko hazkundea.


Argi dago emaitza multzo honek beheranzko joera adierazten duela, Bizkaiko etxe barruko indarkeria-egoerak jasaten dituzten emakumeen adinean. Joera hori Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldeko emakumeen artean ere ikusten da; emakume talde hori, lehen esan dugunez, hurbilago dago Adierazitako Tratu Txarra taldetik, nahiz eta galdeketa egiteko unean euren egoera zuzen-

31. GRAFIKOA
EMAKUME TALDEEN BILAKAERA ADIN TALDEEN ARABERA.
EHUNEKOAK. 2005-2009.




32. eta 33. grafikoetan gaztetasan handiagorako joera hori indartzeko ahalegina egiten da; edo, beste modu batera esateko, etxe barruko indarkeria-egoerak jasan dituzten Bizkaiko emakumeak gero eta gazteagoak izateko joera. Kontuan hartuta Bizkaian bizi diren 18 urteko eta gehiagoko emakume guztien batez besteko adina 50,9

32. GRAFIKOA
EMAKUMEEN BATEZ BESTEKO ADINAREN BILAKAERA, TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2005-2009.



33. GRAFIKOA
49 URTEKO ETA GUTXIAGOKO EMAKUMEEN BILAKAERA, TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2005-2009.



nean adierazi ez edo erantzunik eman ez. Hori eta beste zenbait alderdi aintzat hartuta (besteak beste, hirurogeiko hamarkadatik aurrera jaiotako emakumeen belaunaldikoak izatea), esan daiteke joera horrek aurrera jarraituko duela hurrengo urteotan.


5.3. KASU KOPURUAREN GORAKADA JATORRIZ ATZERRITARRAK DIREN EMAKUMEEN ARTEAN

"Jaioterria" atalean adierazitakoaren arabera, jatorriz atzerritarrak izan eta ikerketa honetan identifikaturiko etxe barruko indarkeria-egoerak bizi dituztela edo bizi izan dituztela dioten emakumeen %10 ehuneko oso garrantzitsua da, kontuan hartuta Bizkaian errolaturiko 18 urteko eta gehiagoko emakume talde hori guztizkoaren %3,6ra baino ez dela heltzen.

34. grafikoan nabarmendu egiten da Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren 18 urteko edo gehiagoko emakume atzerritarrek jasaten dituzten etxe barruko indarkeria-egoeren garrantzi gero eta handiagoa. Egoera hori hiru gauzaren-gatik da garrantzitsua: lehenengo eta behin, horren presentziak ezarritako hiru taldeetan gora egin duela egiaztatu delako; bigarrenez, Adierazitako Tratu Txarra eta Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldeen kasuan hazkundera ehuneko 3,5 puntukoa delako; eta, hirugarrenez, hiru hazkunderak Bizkaian 2005etik 2009ra izandako guztizko hazkunderaren gaineratik daudelako.

Puntu honetan ere esan daiteke Bizkaian bizi diren emakume atzerritarren aurkako etxe barruko indarkeria-egoerek goranzko joera izango dutela, edo, behintzat, egonkortu egingo direla,

34. GRAFIKOA. JATORRIZ ATZERRITARRAK DIREN EMAKUMEEN BILAKAERA, TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2005-2009.




aintzat hartuta generoko identitateak (emakumeak eta gizonak) eraikitzeko eta kudeatzeko gatazkek, halako indarkeria-egoeren azpian sustaturik dauden gatazkek, iraun egingo dutela denboran, migrazio-fenomenoak edozein pertsonaren bizi-ibilbidean sortzen duen bergizarteratze-prozesuko funtsezko elementutzat.

5.4. KASU KOPURUAREN GORAKADA GIZARTE-KLASE ERTAINEKO ETA BAXUKO EMAKUMEEN ARTEAN, ETA BEHERAKADA KLASE ERTAIN-ALTUKOEN ETA ALTUKOEN ARTEAN

35. grafikoan adierazitako emaitzak kontuan hartuta egiaztatzen denez, Bizkaian bizi eta euren burua gizarte-klase ertainekotzat hartzen duten 18 urteko edo gehiagoko emakumeen ehunekoak 9,2 puntuko hazkundera izan du azken lau urteotan; hain zuzen ere, guztizkoaren %73 dira.

35. GRAFIKOA. EMAKUMEEN KLASE ERTAINEKO POSIZIOAREN BILAKAERA, TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2005-2009.




Gizarte-posizio horren metaketa aintzat hartuta, esan daiteke gizarte-klase ertaineko emakumeen presentziak gora egin duela ezarritako hiru taldeetan; aipagarriak dira Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian eta Tratu Txar Teknikoa taldeetako %14,6 eta %13,7, hurrenez hurren; aldiz, Adierazitako Tratu Txarra taldean mantendu egin da.

Hala eta guztiz ere, gizarte-klase ertainak Bizkaian duen garrantzia ahaztu barik, 36. grafikoan Adierazitako Tratu Txarra taldeak hiru gizarte-klaseetan edo gizarte-posizioetan azken lau urteotan izan duen bilakaera aztertzen da.

Bertan egiaztatzen denez, euren gizarte-klasea "ertain-baxua eta baxua" dela dioten emakumeen artean %11ko gorakada handia egon da, eta euren gizarte-klasea "ertain-altua eta altua" dela diotenen artean, berriz, %-19,2ko beherakada handia.

Adierazitako Tratu Txarra taldean ez dago euren gizarte-klasea "ertain-altua edo altua" dela dioten emakumerik, eta hori harrigarria izan daiteke (horren azalpenetariko batzuk 4.2.2.5 atalean adierazita daude); dena den, gizarte-posizio horretako emakume kopuruak Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian eta Tratu Txar Teknikoa taldeetan ere beherakada izan dute. Horrela, oro har, esan daiteke, mantendu egin dela lehen adierazitako joera bikoitza.

36. GRAFIKOA. ADIERAZITAKO TRATU TXARRA TALDEAREN BILAKAERA, GIZARTE-KLASE SUBJECTIBOAREN ARABERA. EHUNEKOAK. 2005-2009.




5.5. KASU KOPURUAREN GORAKADA 50.000 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRIETAN

2005aren eta 2009aren arteko konparazioa egin ondoren, beste joera garrantzitsuenetariko bat 18 urteko edo gehiagoko Bizkaiko emakumeak bizi diren udalerrien tamaina da. 37. grafikoan agerian gelditzen da Adierazitako Tratu Txarra eta Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldeetan identifikaturiko kasuetan lau urteotan egon den hazkundera, hurrenez hurren, ehuneko 6,9 puntukoa eta 9,3 puntukoa.

Etxe barruko indarkeria-egoerak Bizkaiko udalerririk handienetan metaturik egotea ez dator bat, gainera, horien garrantzia proportzionalan egon den beherakadarekin; izan ere, 2006ko %52,4tik 2009ko %51,8ra igaro dira.

37. GRAFIKOA. 50.000 BIZTANLEKO EDO GEHIAGOKO UDALERRIETAN BIZI DIREN EMAKUMEEN BILAKAERA (1. UDAL-TIPOLOGIA), TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2005-2009.




5.6. KASU KOPURUAREN GORAKADA EMAKUME AKTIBOEN ARTEAN

Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoerak azken lau urteotan euren lan-egoeraren arabera izandako bilakaera kontuan hartuta, 38. grafikoan ikusten denez, emakume aktiboaren artean (hau da, landunak eta langabetuak) identifikaturiko kasu kopuruak gora egin du hiru taldeetan. Hazkunde hori, gainera, emakume aktibo hauek Bizkaiko Lurralde Historiko osoan izan duten %0,5eko hazkundera baino handiagoa izan da.

Ez dirudi, horrenbestez, 2009an lan egi-teak emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoera gutxiago egotea bermatzen duenik, 2005ean gertatzen zen bezala; batez ere, Adierazitako Tratu Txarra taldean, talde horrek ehuneko 16 puntuko hazkundera izan baitu azken lau urteotan.

38. GRAFIKOA. EMAKUME AKTIBOEN BILAKAERA (LANDUNAK ETA LANGABETUAK), TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2005-2009.




5.7. BIKOTEKIDEAREKIKO MENDEKOTASUN EKONOMIKO TXIKIAGOA

Bizikidetzaren unitate nagusiaren diru-ekarpen nagusia zein den jakiteak aukera ematen du bikote-harremanak egituratzeko edo euskarritzeko modua ulertzeko. Eta, aztertzen ari garen kasuan, emakumeak bikotekidearekiko mendekotasun ekonomikoa edo materiala edukitzea oztoporik handienetarikoa izaten da halako harremanak hautsi ahal izateko.


39. grafikoan ikusten denez, bikotekidearekiko mendekotasun ekonomikoaren maila, 18 urteko eta gehiagoko Bizkaiko bizikidetzaren unitateetan, nabarmen murriztu da 2005etik 2009ra; hain zuzen ere, ehuneko -12,8 puntuko murriztapena izan du.

39. GRAFIKOA. EMAKUMEEN BILAKAERA BIZIKIDETZAKO GUNERA DIRU-EKARPENIK HANDIENA BIKOTEKIDEAK EGITEN DUENEAN, TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2005-2009.



Baina %53,2tik %40,4rako murriztapen orokor horretan, garrantzitsuena hiru taldeetako emakumeen artean gertatzea da: Adierazitako Tratu Txarra (%-10,2), Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian (%-7,2) eta Tratu Txar Teknikoa (%-16,2). Hori lotuta egon daiteke 40. grafikoaren emaitzekin; bertan, "baliabide ekonomikorik ez izatea" kalifikazioak, etxe barruko indarkeria-egoerak dituzten harremanak hausteko oztopoztat, azalpen-indarra galdu du azken lau urteotan. Horrek ez du esan nahi, alde batetik, oraindik ere oztopo nagusia ez denik, "seme-alabak (familia-unitatea mantendu)" kalifikazioarekin batera, eta, bestetik, Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakumeen artean azalpen-garrantzia bera mantentzen ez duenik, eta kontuan hartu behar da talde horretako emakumeei buruz duten iritzia segurutzat zuzenagoa dela.

40. GRAFIKOA. EGOERA EKONOMIKOA, HARREMANAK HAUSTEKO OZTOPO NAGUSIA, EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA DAGOENEAN, EMAKUME TALDEEN ARABERA.. EHUNEKOAK. 2005-2009.



5.8. INDARKERIA PSIKOLOGIKOAREN ETA INDARKERIA SOZIALAREN PRESENTZIA HANDIAGOA

"Indarkeria psikologikoa" tipologiaren barruko egoeren protagonismoa iraunkorra izan da, bai ikerketa honetan eta bai 2005ean egindako ikerketan. 41. grafikoan egiaztatzen denez, gainera, "indarkeria psikologikoa" handitu egin da, lau urteko aldi honetan, emakume talde guztietan, batez ere Adierazitako Tratu Txarra taldean (%1,9), aintzat hartuz, lehen esan dugunaren arabera, tipologia hori talde honetan identifikaturiko kasu guztien %100ean dagoela.

Hala eta guztiz ere, grafiko horrek beste hiru gauza egiaztatzeko aukera ematen du: lehenengo eta behin, hazkunde erlatiborik handienak, Adierazitako Tratu Txarra eta Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldeetan, "indarkeria soziala" tipologian izan direla (hurrenez hurren, %4,2 eta %2), batik bat "jendearen aurrean leku txarrean uzten zaitu" egoeran. Bigarrenez, "indarkeria sexuala" eta "indarkeria ekonomikoa" tipologiek, dirudienez, beheranzko joera dute. Eta, azkenik, "indarkeria fisiko" tipologiak behera egin du Adierazitako Tratu Txarra taldean, baina beste bi taldeetan gora egin du.


Etxe barruko bost indarkeria-tipologietariko bakoitzaren joera adierazi ondoren (dakigunez, ezarritako hamalau indarkeria-egoerak tipologiotan bilduta daude), orain emaitzaren bat adierazi behar da, egoera horiek modu konbinatuan duten presentziaren arabera. Txosten honetan esan dugunez, emakumearen aurkako etxe barruko indarkeria-egoera desberdinak aldi berean gertatzea da egoera horren larritasunik handiena. Eta hori 42.

grafikoan egiaztatzen da; bertan, azken lau urteotan hazkunde adierazgarria ikusten da, Adierazitako Tratu Txarra taldean, lau indarkeria-egoera aldi berean gertatzearen arloan; ezarritako gainerako taldeetan, berriz, lau indarkeria-egoerak gutxiago ageri dira aldi berean.

41. GRAFIKOA. EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO LAU INDARKERIA-TIPOLOGIAREN PRESENTZIAREN BILAKAERA, TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2005-2009.



42. GRAFIKOA. EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO LAU INDARKERIA-TIPOLOGIAREN PRESENTZIAREN BILAKAERA, TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2005-2009.




Emitza horiek kontuan hartuta, esan daiteke, 2009an Adierazitako Tratu Txarra taldearen barruan emakume-ehuneko txikiagoa identifikatu arren (guztizkoaren %3,3), emakume horiek, aldi berean, 2005ean identifikaturiko %5,2an baino indarkeria-egoeren kopuru handiagoa izan dutela.

5.9. ETXE BARRUKO INDARKERIA-EGOERARIK ORAINTSUKOENAK

Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoerak denboran kroniko bihurtzea (6 urte baino gehiago eta, batez ere, 10 urte baino gehiago, hamar kasutik zazpitan baino gehiagotan, Adierazitako Tratu Txarra eta Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldeetan) oraindik ere (ikerketa honetan eta 2005ean egindakoan) identifikaturiko jarraibiderik ohikoena dela azaltzen du Bizkaian egoera horiek metatu egin direla denboran.

Horrenbestez, Adierazitako Tratu Txarra, Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian eta Tratu Txar Teknikoa taldeetan proportzionalki orain dela lau urte baino kasu gutxiago identifikatu diren arren, kasuok oraintsukoagoak dira, hau da, 5 urtetik edo gutxiagotik honakoak. Horrek, jakina, aditzera ematen du fenomenoaren oraindik hortxe dagoela, eta halako egoerak denboran irauteko edo kroniko bihurtzeko arriskua dagoela.

43. GRAFIKOA. "5 URTEKO ALDIA ETA LABURRAGOA" TALDEAREN BILAKAERA, EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-EGOERETAN, TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2005-2009.




5.10. ALKOHOLA NEURRI BARIK EDATEAREN PRESENTZIA HANDIAGOA

Adierazitako Tratu Txarra taldeari dagokionez, 44. grafikoan hauxe ikusten da: informazioa eman duen emakumearen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeran identifikaturiko zergatietariko

biren bilakaera, tratu txarraren emaileari dagokionez (orain arte esan dugunez, bikotekidea, hamar kasutik ia zortzitan).


44. GRAFIKOA
 "ALKOHOLA NEURRI BARIK EDATEA" ETA "MATXISMOA" DERITZENEN
 BILAKAERA, TRATU TXARRAREN EMAILEARI DAGOKIONEZ,
 EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-KASUETAN,
 BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN, "ADIERAZITAKO TRATU TXARRA"
 TALDEAN. EHUNEKOAK. 2005-2009.



Aldi baten eta bestearen arteko desberdintasun nagusia "alkohola neurri barik edatea" eta "matxismoa" deritzenak trazaturiko alderantzizko ibilbidea da. Azken zergati horrek garrantzi oso handia galdu du azken lau urteotan, bai berak bakarrik (%-24,4) eta bai beste zergati batzuekin batera duen presentzian (%-23,4). Aldiz, "alkohola neurri barik edatea" deritzonaren presentziak, batak bat beste alderdi batzuekin batera ageri denean (hain zuzen ere, matxismoarekin eta ludopatiarekin batera), gora egin du aldi honetan.

5.11. GIZARTE-SENTIKORTASUN HANDI-GOA, EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO INDARKERIA-EGOEREI DAGOKIENEZ

45. GRAFIKOA
 "EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIA-EGOERAK" DERITZENEN
 BILAKAERA, EMAKUMEEN ARAZO NAGUSITAT, TALDEEN ARABERA.
 EHUNEKOAK. 2005-2009.



2005eko eta 2009ko emaitza nagusiak konparatzen dituen kapitulu honetako azken lau atalok bat datoz zeharkakoa edo komuna den alderdi batean: emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriak Bizkaian azken lau urteotan hartu duen gizarte-presentzia.

Era berean, aipagarria da egoera honen garrantzia, emakumeengan eragina duten bi arazo nagusienetarikoa bat baita, oraindik ere handiagoa dela Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakumeen artean.

5.12. INGURU HURBILEKO EGOEREI BURUZKO ALBISTE GEHIAGO

Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoera emakumeen bi arazo nagusienetarikoa bat izateak nolabaiteko lotura dauka 46. grafikoan ageri diren emaitzekin; izan ere, bertan ikusten denez, Bizkaiko inguru hurbileko emakumeen aurkako indarkeria-egoera horien gizarte-presentziak gorakadatxoa izan du; hain zuzen ere, 2005etik 2009ra %1,2ko hazkundera izan du.


Baina inguru hurbila ezagutzearen bilakarak ez dauka banaketa homogenezorik emakume talde guztietan: etxe barruko indarkeria-kasuen ezagupenaren hazkunderik handiena Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakumeen artean izan da (azken lau urteotan %36 handiagoa). Emaitza hori aintzat hartuta, pentsa daiteke talde honetako emakumeek euren egoerarekiko sentsibilizazio edo jabetze maila handiagoa dutela; horren ondorioz, segurutzat, arreta handiagoa jartzen die euren inguru hurbilean gertatzen diren antzeko egoerei, eta jabetze horrek ondorioak izan ditzake bai euren eta bai gainerako emakumeen egoeran.

5.13. JARRITAKO SALAKETEI BURUZKO ALBISTE GEHIAGO


Arrazoibide horrekin jarraituta, inguru hurbileko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-kasuen salaketan berri izateak hazkundera oso handia izan du ezarritako lau taldeetan.

Baina, kasu honetan ere, 47. grafikoan adierazitakoaren arabera, emaitza hau askoz ere handiagoa da etxe barruko indarkeria-egoerak zuzenen jasaten dituzten emakumeen kasuan: Adierazitako Tratu Txarra taldean (%32) eta Tratu Txar Teknikoan (%20,6).

46. GRAFIKOA.
INGURU HURBILEKO EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO
INDARKERIA-EGOEREN BERRI IZATEAREN BILAKAERA, EMAKUME
TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2005-2009.



47. GRAFIKOA.
INGURU HURBILEKO EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO
INDARKERIA-KASUAK SALATZEAREN BERRI IZATEAREN BILAKAERA,
EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2005-2009.




5.14. LAGUNTZAKO BALIABIDEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO

48. grafikoan, ezarritako emakume talde guztiek laguntzako baliabideei buruz duten informazioak izandako hazkundera adierazten da. Hala eta guztiz ere, berriro esan nahi dugu emaitzak kontuz erabili behar direla, ikerketa honetan egindako 36. galderaren formulazioa ez baita orain dela lau urte egindakoaren berdina.

Hala ere, esan daiteke ikusten den aldaketa emakumearen aurkako etxe barruko indarkeria-fenomenoak gizartean duen presentziaren ondorioa dela. Hiritarrei eta, hain zuzen ere, Bizkaiko emakumei erakundeek dituzten baliabideen berri emateko estrategiek eta ekintzek emaitza onak eman dituztealdi honetan.

48. GRAFIKOA.
INGURU HURBILEKO EMAKUMEEN AURKAKO ETXE BARRUKO
INDARKERIA-EGOERETAN ZER EGIN ETA NORA JOAN JAKITEAREN
BILAKAERA, EMAKUME TALDEEN ARABERA. EHUNEKOAK. 2005-2009.





VI. kapitulua

Emaitzen laburpena

6. EMAITZEN LABURPENA

Ondoren, ikerketa honetan adierazitako emaitzarik garrantzitsuenak azalduko ditugu, labor-labur.

• Diseinu metodologikoa

1. Telefonozko 606 galdeketa egin zaizkie, Bizkaian bizi diren 18 urteko edo gehiagoko emakumeei. Lagin honek % \pm 4ko akats-muga estatistikoa dauka, eta %95,5eko konfiantza maila.
2. Erabilitako prozesu metodologikoa emakumeen aurkako indarkeria-egoeren ausazko aurkikuntzara bideratu da, ez halako egoeren bilaketara.
3. Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren emakumeen aurkako etxe barruko babilizko indarkeria-egoerak hamalau (14) adierazpenetan laburbildu eta horiek, aldi berean, bost (5) tipologiatan sartu dira: "indarkeria fisikoa", "sexuala", "ekonomikoa", "psikologikoa" eta "soziala".
4. Emakumeen hiru (3) sailkapen edo talde erabili dira, etxe barruko indarkeria-egoerarekin orain duten loturaren arabera: "Adierazitako Tratu Txarra", "Tratu Txar Teknikoa" eta "Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian".

• Oinarrizko adierazleak

5. Bizkaian bizi diren emakume guztien %3,3k esan dute azken bi urteotan etxe barruko indarkeria-egoerak bizi dituztela edo bizi izan dituztela (Adierazitako Tratu Txarra taldea).
6. Bizkaian bizi diren emakume guztien %22,1ek esan dute "gaur egun", "sarritan" edo "batzuetan", galdeketa adierazitako emakumeen aurkako etxe barruko hamalau (14) indarkeria-egoeretariko "bat" (gutxienez) jasaten ari direla (Tratu Txar Teknikoa taldea).
7. Bizkaian bizi diren emakume guztien %11,2k esan dute "gaur egun", "sarritan" edo "batzuetan", galdeketa adierazitako

emakumeen aurkako etxe barruko hamalau (14) indarkeria-egoeretariko "bat" (gutxienez) jasaten ari direla, "sarritan" edo "batzuetan" kategorietan "ez du baloratzen egiten duzun lana (21.12 g.)" egoera bakarrik adierazi duten emakumeen kasuan izan ezik (Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldea).

8. Bizkaian bizi diren emakume guztien %19,1ek esan du inguru hurbileko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeren berri dutela.
9. Bizkaian bizi diren emakume guztien %78,5ek esan dute badakitela zer egin edo nora joan, etxe barruko indarkeria-egoeretan.

• Ezaugarri soziodemografikoak

- Adierazitako Tratu Txarra

10. Ez dago adinaren araberrako logika argirik, Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakumeen emaitzetan. Hau da:
 - 40-49 urte bitarteko taldean (hirurogeiko hamarkadan jaiotakoak) guztizkoaren %30 biltzen da; horrela, ehuneko 12,2 puntutan gainditzen da 2006ko erroldaren arabera Bizkaian bizi diren 18 urteko eta gehiagoko emakumeen adin-egituran duten garrantzi "erreal" (%17,8).
 - 18-29 urte bitarteko taldean (laurogeiko hamarkadan jaiotakoak) guztizkoaren %20 biltzen da; horrela, ehuneko 6,3 puntutan gainditzen da euren garrantzi "erreal" (%13,7).
 - 65 urteko edo gehiagoko adin taldean ere talde horretako guztizkoaren %20 biltzen da; hau da, garrantzi "erreal" (%27,9) baino ehuneko -7,9 puntu.
 - Aldiz, 30-39ko taldean (hirurogeita hamarreko hamarkadan jaiotakoak), Adierazitako Tratu Txarra taldeko ehunekorik txikiena biltzen da (%15).

11. Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakumeen bizikidetza-unitatearen profila hauexa da:
- Bikotekidearekin bizitzeak nagusitasuntxo dauka, guztizkoaren %55ekin.
 - Emakumeen %50 "ezkondua" edo "adosturiko bikotea" kategorietan dago; gainerako %50ek ez dauka bikotekidetik ("ezkongabea", "banandua", "dibortziatua" eta "alarguna" egoera zibiletan sartuta).
 - Hala eta guztiz ere, orain bikotekiderik ez duten talde honetako hamar emakumetik zazpi bikotekidea izan dute azken urteotan.
 - %85ek seme-alabak dituzte, eta horien batez besteko adina 27 urte ingurukoa da.
 - Guztizkoaren %30 "seme-alabekin bakarrik" bizi da orain; %25 "bikotekidearekin eta seme-alabekin", eta %10 baino ez da "famiako beste batzuekin" bizi.
 - %30ek bizikidetza-unitaterako diruekarpen nagusia egiten dute (ezarritako talde guztietako ehunekorik handiena).
12. Aurreko guztian oinarrituz, Bizkaian bizi diren Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakumeen artean bi profil bereizten dira:
- Emakume batzuen kasuan, tratu txarreko egoerak berak eragin erabakigarria izan du euren oraingo bizikidetza-egoeran (bikotekiderik ez).
 - Beste zenbait emakume (taldearen guztizkoaren %40, gutxi gorabehera) tratu txarraren oraingo emailearekin bizi dira, gaur egun.
- Tratu Txar Teknikoa*
13. Emakumea zenbat eta zaharragoa izan, hainbat eta handiagoa da Tratu Txar Teknikoa taldean egoteko aukera. Adierazitako Tratu Txarra taldearen kasuan ez bezala, talde honetan adinaren araberako jarraibidea edo logika dago, hau da, biografia-ibilbidea edo bizi izandako esperientzia.
14. Tratu Txar Teknikoa taldeko emakumeek profil soziodemografiko oso argia dute: %91k bikotekidea dute eta berarekin bizi dira (28,75 urteko batez besteko adina); %84,3 ezkondu daude; %88,1ek seme-alabak dituzte (27 urteko batez besteko adinekoak), eta emakume guztion %64,2k ez dute bizikidetza-unitaterako diruekarpen nagusia egiten.
- Identifikaturiko korrelazioak edo jarraibideak*
15. Bizikidetza-unitateko bi kideek egindako diruekarpena zenbat eta antzekoagoa izan, hainbat eta aukera urriagoa dago emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoerak identifikatzeko.
16. Emakumearen gizarte-klasea edo gizarte-posizioa zenbat eta altuagoa izan, hainbat eta aukera urriagoa da etxe barruko indarkeria-egoerak identifikatzeko:
- Adierazitako Tratu Txarrean (guztizkoaren %40) eta Tratu Txar Teknikoan (guztizkoaren %20,9) ehuneko handiagoak identifikatu dira "gizarte-klase ertain-baxukoa eta baxukoa" direla dioten emakumeen artean.
17. Ikasketa maila zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta aukera urriagoa dago etxe barruko indarkeria-egoerak identifikatzeko:
- "Lehen hezkuntzako ikasketak" dituzten edo "ikasketa barik" dauden emakumeen artean, indarkeria-ehuneko handiagoak identifikatu dira, bai Adierazitako Tratu Txarra taldean (guztizkoaren %45) eta bai, batik bat, Tratu Txar Teknikoa taldean (%59,7).
 - Hala eta guztiz ere, aditzera eman behar da Adierazitako Tratu Txarra talde osoaren %35 "lanbide-ikasketak" mailan dagoela (guztien arteko handiena).
18. Lanbidea, dirudienez, ez da etxe barruko indarkeria-egoerak egotea oztopatzen duen aldagaia: Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakumeen %45 eta Tratu Txar Teknikoa taldeko emakumeen %40,3 aktiboan daude.

19. Udallerriak zenbat eta biztanle kopuru handiagoa izan, hainbat eta aukera handiagoa Adierazitako Tratu Txarra eta Tratu Txar Teknikoa taldeetako egoerak identifikatzeko; dena den, azken kasu horretan, desberdintasunak ez dira oso handiak.

- Jatorriz atzerritarrak diren emakumeak

20. Tratu txarrak jasotzen dituztela adieraziduten Bizkaiko 18 urteko eta gehiagoko emakume guztien %10 atzerritarrak dira jatorriz. Datu hori garrantzi handikoa da, kontuan hartuta talde horrek 2006an Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldaturiko 18 urteko eta gehiagoko emakume guztien %3,6 osatzen duela.

• Indarkeria-egoeren tipologia eta horien maiztasuna Adierazitako Tratu Txarra eta Tratu Txar Teknikoa taldeetan

21. "Indarkeria psikologikoa" tipologiaren barruko egoerak, bai bakarrik eta bai beste batzuekin batera, Adierazitako Tratu Txarra eta Tratu Txar Teknikoa taldeetako kasuen ia %100ean daude.

22. "Ez du baloratzen egiten duzun lana (emakumea etxe barruan)" deritzona da, Tratu Txar Teknikoa taldean, emakumeen aurkako indarkeria-egoera nagusia (guztizkoaren ia %74).

23. Adierazitako Tratu Txarra taldean, egoera hori "oihuak, irainak eta mehatxuak egiten dizkizu" deritzonarekin batera dago lehenengo postuan, kasu guztien %50ekin.

24. "Oihuak, irainak eta mehatxuak egiten dizkizu" egoeraren presentziak inflexio-puntua adierazten du, emakumeak tratu txarraren jasotzailea izateari buruz duen pertzepzioan. Eta hori Adierazitako Tratu Txarra eta Tratu Txar Teknikoa taldeetako sailkapenean bertan gelditzen da agerian.

25. Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakume guztien %64,3k esan dute euren etxe barruko indarkeria-egoera "6 urte baino gehiagotik honakoa" dela. Aldi hori oraindik ere luzeagoa da Tratu Txar Teknikoa taldearen kasuan (kasu guztien %87,4).

26. Adierazitako Tratu Txarra taldearen %100ean indarkeria psikologikoa dago, kasu guztien %80an bera bakarrik eta gainerako %20an indarkeria fisikoarekin batera.

• Tratu txarraren emailearen profila Adierazitako Tratu Txarra taldean

27. Adierazitako Tratu Txarra taldeko tratu txarraren emailea, kasu guztien %78,6an, bikotekidea da, eta horren batez besteko adina ia 60 urtekoa da; kasuen %70ean oinarritzko ikasketak ditu (lehen hezkuntza edo ikasketa barietateak), eta %60an ez-aktibotasunean dago (pentsioduna).

28. Etxe barruko indarkeria-egoeretako arazo nagusia "alkohola neurri barik edatea" da, kontuan hartuta Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakumeen iritzia.

• Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsia arriskuko taldetzat hartuta

29. Bizkaiko kasu guztien %11,2rekin, Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldea bitarteko posizioan dago, Adierazitako Tratu Txarra eta Tratu Txar Teknikoa taldeen emaitzen artean:

- Beraz, hurbildu egiten da Adierazitako Tratu Txarra taldearen emaitzetara: "ez du baloratzen egiten duzun lana" egoeraren garrantzi urriagoa, "oihuak, irainak eta mehatxuak egiten dizkizu" egoeraren presentzia handiagoa, baita izaera soziala edo ekonomikoa (edo biak batera) dituzten beste batzuk ere.

30. Talde honetako emakume guztien %84,1ek esan dute euren etxe barruko indarkeria-egoera "6 urte baino gehiagotik honakoa" dela.

31. Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldean, tratu txarraren emailea bikotekidea da hamar kasutik ia bederatzitan; horren batez besteko adina 57 urtekoa da; kasu guztien %54,8tan oinarritzko ikasketak ditu (lehen hezkuntza ikasketak edo halakorik ere ez); eta kasuen %58,1ean ez-aktibotasuneko egoeran dago.

- **Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoerek Bizkaian duten gizarte-presentzia**

32. Adierazitako Tratu Txarra taldearen barruko emakumeentzat, "emakumearen aurkako indarkeria-egoera" arazo nagusia da; Tratu Txar Teknikoa taldeko emakumeentzat eta Bizkaiko emakume guztientzat, berriz, bigarren arazo nagusia da.
33. Bizkaian bizi diren emakume guztien %19,1ek esan dute inguru hurbileko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeren berri dutela; dena den, ezagupen hori handiagoa da Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakumeen kasuan (%65); baina, neurri txikiagoan, Tratu Txar Teknikoa taldeko emakumeen artean (%23,1).
34. Familiakoa ez den inguru hurbilean, halako hamar egoeratik zazpi baino gehiago gertatzen dira: "lagunak" eta "ezagunak"; eta, kasu guztien %70ean baino apur bat gehiagotan, tratu txarren emalea "bikotekide ohia" eta "senarra" da.
35. Inguru hurbil honetan, "indarkeria psikologikoa" eta "indarkeria fisikoa" batera gertatzen dira, sarritan.
36. Era berean, inguru honetan, "salaketarik ez egotea" nagusitu egiten zaio egoera salatzeari.

- **Halako harremanak hausteko oztopoak**

37. Hiru oztopo nagusien identifikazioan adostasuna dago: "baliabide ekonomikorik ez edukitzeagatik", "bikotekidearen mendekuaren beldurragatik" eta "seme-alabengatik (familia-unitatea mantentzeko)".
38. Adierazitako Tratu Txarra taldean, "maite dutelako (mendekotasun emozionala)" zergatiak ere garrantzi handia dauka.
39. Gizarte arloko ("lotsa edo jendeak zer esango duen") edo kultura arloko ("matxis-moa") oztopoak, baita erakunde arlokoak ere ("laguntzarik eza"), lehen adierazitako ekonomiaren, indarkeriaren eta familiaren arloko oztopoen mende daude.

40. "Adierazitako Tratu Txarra" taldeko emakumeek adierazitako emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeren ondorio nagusiak, harremanak hautsi ondoren, "arazo emozionalak" dira, baina baita "erasoak", "lan-arazoak" eta "arazoak seme-alabekin".

- **Laguntzako baliabideen ezagupen maila**

41. Lehen esan dugunez, Bizkaian bizi diren emakume guztien %78,5ek esan dute badakitela zer egin edo nora joan, etxe barruko indarkeria-egoeretan.
42. Adierazitako Tratu Txarra taldeak, gainera, horri buruzko ezagupen maila handiena dauka: guztizkoaren %85.
43. Bizkaian bizi diren 18 urteko eta gehiagoko emakumeek gehien ezagutzen dituzten bi baliabideak "016 telefonoa" eta "Ertzaintza-Polizia" dira.

- **Emaitzen konparazioa: 2005-2009**

44. Azken lau urteotan, Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-kasuak murriztu egin dira talde guztietan: Adierazitako Tratu Txarra taldean ehuneko -1,9 puntu; Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldean ehuneko -2,1 puntu; eta, azkenik, Tratu Txar Teknikoa taldean ehuneko -3,4 puntu.
45. Bizkaian etxe barruko indarkeria-egoerak bizi dituzten edo bizi izan dituzten emakumeak gero eta gazteagoak izateko joera dago:
 - a. Adierazitako Tratu Txarra taldean, batez besteko adina 47,5 urtekoa da, 2005ekoa (50,4 urte) baino -2,9 urte baxuagoa.
 - b. Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldean, batez besteko adina 52,8 urtekoa da, 2005ekoa (54,5 urte) baino -1,7 urte baxuagoa.
 - c. Hortaz, Adierazitako Tratu Txarra eta Tratu Txar Teknikoa taldeetako 49 urteko edo gehiagoko emakumeen ehuneko presentzia, hurrenez hurren, %16,6 eta %5,3 murriztu da azken lau urteotan.

46. Jatorriz atzerritarak diren emakumeek, 2005etik 2009ra, %3,5ean handitu dute Adierazitako Tratu Txarra eta Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldeetarako ekarpena.
47. Azken lau urteotan, euren burua "gizarte-klase ertainekotzat" hartzen duten emakumeen ehuneko garrantziak gora egin du ezarritako emakume talde guztietan, eta garrantzi handikoa da Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian eta Tratu Txar Teknikoa taldeetan izandako hazkundera.
48. Adierazitako Tratu Txarra taldean, gizarte-klasea edo gizarte-posizioa aldagaiak azalpen-balioa dauka:
- Alde batetik, "gizarte-klase ertain-baxua eta baxua" dutela dioten emakume kopuruak %11ko hazkundera izan du.
 - Bestetik "gizarte-klase ertain-altua eta altua" dutela dioten emakume kopuruak %-19,2ko murriztapena izan du.
49. Lanak, dirudienez, ez du bermatzen etxe barruko indarkeria-egoerarik egongo ez denik: Adierazitako Tratu Txarra taldeko emakume aktiboen taldean ehuneko 16 puntuko hazkundera egon da.
50. 2005etik 2009ra, Bizkaian bizi diren 18 urteko eta gehiagoko emakumeek bikotekidearekiko duten mendekotasun ekonomikoa askoz ere txikiagoa da.
51. Horrenbestez, "ekonomiak" beherakada izan du, lau urteko aldi horretan, etxe barruko indarkeria-egoera duten harrerean hausteko oztopo nagusitzat, oraindik ere oztopo nagusia bada ere, "familia-unitatea mantentzea" deritzonarekin batera.
52. "Indarkeria psikologikoa" tipologiaren presentziak gorakadaxoa izan du ezarritako hiru taldeetan.
53. Aipagarria da hazkunderik handiena "indarkeria sozialak" izan duela, batik bat Adierazitako Tratu Txarra taldean.
54. Talde honen barruan, lau indarkeria-tipologiaren presentzia konbinatuak gora egin du, eta, beraz, pentsa daiteke oraingo kasuetan indarkeria-egoerak anitzagoak eta trinkoagoak direla.
55. Tratu txarren emaitzari dagokionez, "alkohola neurri barik edatea" tipologiaren presentziak gora egin du, emakumearen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeraren eragiletzat, 2005-2009 aldian.
56. Bizkaian, azken lau urteotan, etxe barruko indarkeria-egoeren gizarte-presentziak hazkunde handia izan du:
- Emakumearen aurkako indarkeriaren pertzepzioak gora egin du, aldi honetan emakumearengan eragiten duten bi arazo nagusien artekoa izateari dagokionez.
 - Inguru hurbileko etxe barruko indarkeria-egoeren ezagupenak ere %1,9ko gorakadaxoa izan du, baina Adierazitako Tratu Txarra taldean %36ko hazkundera izan du.
 - Halaber, inguru hurbileko indarkeria-kasuen salaketa gehiago ezagutzen dira; ezagupen horrek %16,3ko hazkundera izan du Bizkaiko emakume guztien kasuan, eta ia %32koa Adierazitako Tratu Txarra taldean.
 - Azkenik, oraingo laguntzako baliabideen ezagupenak hazkunde orokorra izan du talde guztietan: %46,3koa Adierazitako Tratu Txarra taldean; %22,7koa Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldean; %17,8koa Tratu Txar Teknikoan; eta %18,8koa Bizkaiko 18 urteko edo gehiagoko emakume guztien artean. Hala eta guztiz ere, emaitza horiek kontuz erabili behar dira, ikerketa honetan egindako 36. galderaren formulazioa eta orain dela lau urtekoa ez baitira berdin-berdinak.



VII. kapitulua

Ondorioak

7. ONDORIOAK

Agian, pentsa daiteke ez dela oso ortodoxoa amaierako gogoetak ikerketaren gaiaren berezko zailtasunak adierazita hastea; hala ere, orain arteko esperientzia aintzat hartuta, esan daiteke emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoera eza-gutzea ikerketa-erronka oso garrantzitsua dela. Hala eta guztiz ere, horrek ez dio inolako baliozko-tasunik kentzen Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak garatu duen ikerketa-ildo honi¹³.

Ikerketa-erronka zenbait alderdirekin lotuta dago; adibidez, indarkeria-fenomenoa iker-tzearen berezko konplexutasunarekin, fenomeno horren adierazpenean faktore askok parte hartzen dutelako (fenomenora bertara egindako zientzia-hurbilketek behin eta berriro adierazi dutena), edo albiste batzuen eragin mediatikoarekin, albisteok gertakari partikularretan oinarrituz orokortasunak eraikitzea eragin dezaketelako. Gainera, horrekin batera, hemen aztertzen ari garen kasuan, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriarako hur-bilketa fenomenoaren ezkutuko alderdira orienta-turik dago.

Izozmendiaren metafora erabilia, badakigu hondoraturiko zatia, ur-azalean ikusten ez dena, handiena dela. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-fenomenoa salaketen bidez azaleratzen da, edo komunikabideetan horri buruz agertzen diren albisteen bitartez; baina emakumeen aurkako beste indarkeria-jardun asko dago, eta horiek, izozmendiaren kasuan bezala, ez dira ikusten, geure eguneroko bizitzan ezkutaturik baitaude.

2005eko eta 2009ko ikerketa-esperientziari esker, Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako etxe barruko ezkutuko indarkeriaren alderdi ikusezin horretan sartzeko oztopo batzuk identifikatu ahal izan ditugu. Lau alderdi nagusiak aipatu ditugu. Lehenengo eta behin, fenomenoaren izaera pribatuak edo barru-barrukoak oztopatu egiten du hori kanpoko pertsona bati telefonoz zuzenean azaltzea, pertsona horrek (inkestagilea) konfiantza-inguru egokia sortzeko gaitasuna eduki arren. Horrela, halako ikerketa baten "gakoa" oso sinplea baina, aldi berean, konplexua den gertakari batean oinarritzen da; hain zuzen ere, emakumeak, galdeketa egiten zaion "unean", tratu txarrak jasaten dituela onartzea edo ez onartzea; izan ere,

horren arabera, Adierazitako Tratu Txarra taldean, edo, aldiz, Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian edo Tratu Txar Tekniko taldean sailkatuko da¹⁴.

Pertsonaltzat eta, aldi berean, koiuntu-rakotzat (informazioa biltzeko estrategia metodologikoaren esparruan) har daitekeen oztopo horrekin batera, gainera, soziologikoagoak diren beste bi oztopo daude. Bizkaiko emakumeen gizarte-posizio altuagoa (gizarte-klase subjektibo ertain-altua eta altua) eta biztanle kopuru txikiago udalerrietan bizi izatea, 2005eko eta oraingo ikerketek egiaztatu dutenez, Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoerak eza-gutzeko zailtasunak azaltzen dituzten elementuak dira; agian, lehenengo kasuan, pribatutasunerako eskubidea gehiago nabarmentzen delako, eta, bigarrenean, gizarte-kontrol handiagoa hautematen delako.

Eta fenomeno ikusezin honetara heltzeko azken oztopoa alderdi orokorrago batekin lotuta dago, eta hizkuntzaren gizarte-erabilera deritzona-ren barruan sar daiteke. Betidanik, "tratu txarra" edo "tratu txarra jasaten duen emakumea" kontzeptuak indarkeria fisikoarekin lotu dira, eta horrek beste indarkeria mota batzuk ere (psikologikoa, ekonomikoa, soziala eta sexuala) barruan hartzen dituen fenomenoaren ikuspegi murriztua eragiten du. Dagoeneko instituzionalizaturik dagoen kontzeptu baten gizarte-esangura aldatzea edo zabaltzea ez da erraza, eta horren ordez beste kontzeptu bat erabiltzea ere ez; dena den, "tratu txarra" edo "tratu txarra jasaten duen emakumea" kontzeptua gizarteak, erakundeek, komunikabideek eta abarrek kontzeptu horri emandako interpretazioaren arabera bilakatzen ari da. Horri dagokionez, azken urteotan tratu txarraren alderdi psikologikoa kontzeptuaren ohiko erabileraren barruan sartu da, eta ikerketa honen emaitzek egiaztatu egin dute hori. Hala eta guztiz ere, informazioa biltzeko tekniketan (kasu honetan, galdeketa bat) ezinezkoa da indarkeriari loturiko adierazpen eta estrategia guztiak biltzea.

13 BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. GIZARTE EKINTZA SAILA. *Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria. Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako ikerketa baten emaitzak*. Bilbo, 2006 (ISBN: 84-7752-414-9).

14 Gure kasuan, erantzun "bai" ala "ez" galdeketa 24. galderari.

Orain dela lau urte egindakoari jarraipena eman dion ikerketa honen helburu nagusia, nolahi ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria azaleratzea edo ikusgarri bihurtzea izan da. Eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak, ikerketa-ildo honen sustatzailea baita, badaki Euskal Autonomia Erki-degoan oraindik ere berritzailea eta aurrendaria den ikerketa honen balioa handia dela; hain zuzen ere: ahal den neurrian, arlo honetan gizarte-arloko balizko jarduketak edo politikak aurreratzea, fenomenoaren alde ezkutuan, estalian edo ikusezinean gertatzen denari buruzko alderdirik garrantzitsuenak identifikatu ondoren.

Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako azken lau urteotako etxe barruko indarkeria-egoeren erradiografia laburtzat, honako hiru gertaera hauek aipa daitezke. Egoeren tipologia- ren aldetik, indarkeria psikologikoaren nagusitasun argia dago. Tipologia horren barruko egoera desberdinen barruan, zalantzarik gabekoa da "ez du baloratzen egiten duzun lana" egoera. Bestalde, "oihuak, irainak edo mehatxuak egiten dizkizu" egoerak inflexio-puntua adierazten du halako egoeretan, baina kasurik larrienen ezaugarri nagusia indarkeria psikologikoa beste batzuekin batera bilduta edukitzea da, batez ere indarkeria sozialeko egoerekin batera.

Bizkaian azken lau urteotan identifikatu den bigarren gertaera enkistatze edo kronikotze maila handia da. Bizkaian azken lau urte hauetan identifikatu den bigarren gauza enkistatze edo kronikotze maila handia da. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoera batzuk "10 urte baino gehiagotik" honakoak dira, Adierazitako Tratu Txarra taldeko bi kasutik batean, eta Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsia eta Tratu Txar Teknikoa taldeetan hamar kasutik zazpitan.

Hirugarrenez, eta azkenik, mantendu egiten dira Bizkaian emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeradun harremanak haustea oztopatzen duten hiru faktoreak: ekonomia (mendekotasuna), indarkeria (beldurra, mehatxuak) eta familia (seme-alabak).

Baina adierazitako laur urteko ikuspegi historiko laburrak, era berean, aldatzeko joera batzuk ikusteko aukera eman du. Zalantzarik gabe, aipagarrieneraiko bat 2005etik 2009ra identifikaturiko kasuen ehunekoaren murriztapena da, hiru emakume taldeetan, etxe barruko indarkeriarekin

duten loturari dagokionez: %5,2tik %3,3ra Adierazitako Tratu Txarra taldean; %13,3tik %11,2ra Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldean; eta, azkenik, %25,5etik %22,1era Tratu Txar Teknikoa taldean.

Murriztapen horren zergatiak anitzak izan daitezke; baina, gure ustez, garrantzitsuenetarikoa fenomenoaren gizarte-presentzia handiagoa da. Bizkaian, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria gizarte-ikusezintasuna galtzen joan da. Hori berresten duten lau adierazle daude: emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoerekiko gizarte-sentikortasun handiagoa (Bizkaian bizi diren emakumeentzat bigarren gizarte-arazorik garrantzitsuenak); inguru hurbileko kasuen eza-gupen handiagoa; inguru hurbilean jarritako salaketen eza-gupen maila handiagoa; eta, azkenik, laguntzako oraingo baliabideen eza-gupen gero eta handiagoa.

Hiritarrei emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriaren berri emateko estrategietan lortu nahi den helburu bikoitzak (hau da, gizarte-sentsibilizazioa eta banakako laguntza), dirudenez, emaitza onak eman ditu aldi honetan. Baina errazegia izango litzateke fenomeno honek Bizkaiko Lurralde Historikoan azken lau urteotan lortu duen ikusgarritasun handiagoaren arrakasta osoa estrategia horiei esker izan dela esatea. Aldiz, zabalkundeko estrategia horiek emakumeen protagonismoa duten gizarte-aldaketak egotean oinarritzen dira, eta, horien eraginez, fenomeno honek gero eta presentzia handiagoa dauka gizartean.

Gizarte-aldaketa horien artean, konparazio-emaitzek aukera ematen dute Bizkaian bikote-harremanetan parekotasunaren hazkundera egon dela identifikatzeko, honako bi gertaera hauetan oinarrituz: harremanetako gizonarekiko mendekotasun ekonomiko txikiagoa eta emakumeen ikasketa maila handiagoa. Korrelazioa dago bikote-harremanetako parekotasun handiagoaren eta emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoerak egotearen artean; izan ere, emakumeak goi-ikasketak dituenen, indarkeria-kasu gutxiago dago ezarritako hiru tipologietan (Adierazitako Tratu Txarra, Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian eta Tratu Txar Teknikoa); aldiz, emakumea "etxe-koandrea" denean indarkeria-kasu gehiago dago hiru tipologietan, eta horrek, oro har, aditzera ematen du bikotekidearekiko mendekotasun ekonomiko handiagoa dagoela.

2005eko eta 2009ko emaitzen arteko konparazioan egiaztatuenez, halaber, beste alderdi garrantzitsu bat Bizkaiko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-egoeretan batez besteko adinak behera egitea da. Berdintasuna (behintzat, maila formalean) instituzionalizaturiko balioztat duten testuinguruetan sozializaturiko emakume-belaunaldiak adin nagusitasunean sartzearen garrantzi soziologikoaren barruan interpreta daiteke, agian, datu hori; izan ere, horren eraginez, etxe barruko indarkeriak lehenagoko belaunaldietako emakumeen artean baino permisibitate txikiagoa dauka.

Emakumeen aurkako indarkeria oraindik ere ikusezintasunean mantentzen duten oztupoak kentzea, gure iritziz, joera geldiezina da. Fenomenoak gizartean presentzia handiagoa izateak zenbait ondorio izan ditzake, egiten diren hurrengo ikerketek egiaztatu ahal izango dituztenak; esate baterako, etxe barruko indarkeria-egoerak jasaten dituzten emakumeen batez besteko adinak behera egitea, halako egoeren iraupena laburragoa izatea, eta jendeak eta inguru hurbilak egoera horien berri izatea (jartzen diren salaketak aintzat hartuta); ikerketa honek ere egiaztatu egin ditu ondorio horiek. Horri dagokionez, arrazoibide honen logika kontuan hartuz, esan daiteke arriskutsua dela emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria-kasuen kopuruak behera egingo duela esatea; izan ere, egiten den hurrengo ikerketan, agian, ikusiko dugu emakumeak prest egongo direla arlo honetan dituzten esperientziak azaltzeko, fenomenoak gizartean ikusgarritasun handiagoa izango dutelako (lehen adierazi dugun ikusgarritasuna).

Jakina, errealitatea aztertzeko beste maila bat dago, oraindik argitu ez duguna: ea belaunaldi berri horietako gizonek zein mailatan izango duten etxe barruko indarkeria-egoerak murrizteko joera.

Orain arte egindako ikerketek ez dute gai honetan sakontzeko aukerarik ematen; hala ere, ikerketa-ildo osagarria eta, zalantzarik gabe, interes handikoa finkatu da, batik bat ildo hori belaunaldi gazteenen bikote-harremanak eratzeko jarraibideetan oinarrituz gero, halako indarkeria-egoeren sustraiak bertan identifikatu ahal direlako.

Ondorio hauei amaiera emateko, azken lau urteotan egiaztaturiko beste gauza garrantzitsuenetariko bat azaldu nahi dugu: etxe barruko indarkeria-kasu kopuruak jatorriz atzerritarrak diren emakumeen artean izan duen hazkundera. Izan ere, Adierazitako Tratu Txarra taldeko %10era eta Tratu Txar Teknikoa Zentzu Hertsian taldeko %7,4ra iritsi dira 2009an; aldiz, Bizkaian errolaturiko 18 urteko eta gehiagoko emakume guztien %4 baino ez dira. Pentsa daiteke Bizkaian bizi diren emakume atzerritarren aurkako etxe barruko indarkeria-egoera horiek goranzko joera edo, behintzat, egonkortzeko joera izango dutela. Ez da ahaztu behar indarkeria-egoera guztien oinarrian generoko identitateak (emakumeak eta gizonak) eraikitzeko eta kudeatzeko gatazkak daudela; hori, gainera, larriagotu egiten da jatorriz atzerritarrak diren pertsonen kasuan, migrazio-fenomenoak berak sortzen dituen aldaketen eraginez.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak irekitako ikerketa-ildoak, azken batean, gauza asko argitu ditu aztertzeko oso konplexua den garrantzi handiko gizarte-fenomeno bati buruz. Apustu honekin aurrera jarraitzeko unea da, bai arlo honetako gizarte-politikak diseinatuta edo berriro diseinatuta, bai planteaturiko ikerketa-proposamenak sustatuz; horiek, aldi berean, erabilgarriak izango dira emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriari aurre egiten jarraitu ahal izateko.



VIII. kapituluu

Bibliografia

8. BIBLIOGRAFIA

- ARARTEKO. *EAEko erakundeen ikuspegia, emakumeen aurkako indarkeriari buruz*. Vitoria-Gasteiz, 2003.
- CENTRO REINA SOFÍA PARA EL ESTUDIO DE LA VIOLENCIA. *Violencia contra la mujer. Situación Mundial Actual*. 2000.
- Violencia contra la mujer en las relaciones de pareja: estadísticas y legislación*. 2003.
- La violencia contra la mujer en el espacio discursivo público*. 2003.
- II Informe Internacional. Violencia contra la mujer en las relaciones de pareja (estadísticas y legislación)*, 2007.
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. GIZARTE EKINTZA SAILA. *Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria. Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako ikerketa baten emaitzak*. Bilbo, 2006 (ISBN: 84-7752-414-9).
- ELIAS, N. *El proceso de civilización. Investigaciones sociogenéticas y psicogenéticas*. F.C.E. México. 1987.
- EMAKUNDE. *Emakumeen aurkako indarkeria*. Vitoria-Gasteiz. 2005eko maitzeko eguneratzea (2009ko apirileko eguneratzea dago).
- Zaintzaren ondorioak. Adiskidetze-estrategiak emakumeen eta gizonen eguneroko bizitzan, Euskal Autonomia Erkidegoan*. 22. zenb. txostena, Vitoria-Gasteiz, 2007.
- ESPINAR, E. ETA MATEO, M.A. "Violencia de género: reflexiones conceptuales, derivaciones prácticas." *Papers* 86, 2007, 189-201. or.
- FARNÓS, T. "Las raíces psicosociales y culturales de la violencia." *Documentación Social*, (Monografía. "Violencia y Sociedad"), 2003, apirila-abendua, 131. zenb., 11-30. or.
- FERNÁNDEZ CORDÓN, J. A. ETA TOBÍO, C. *Conciliar las responsabilidades familiares y laborales: políticas y prácticas sociales*. Fundación Alternativas, 2005, 79. zenb. lan-dokumentua.
- FUNDACIÓN LA CAIXA. *La violencia doméstica. Informe sobre los malos tratos a mujeres en España*. Inés Alberdik eta Natalia Matasek eginda. Barcelona. 2002.
- EUSKO JAURLARITZAKO PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA. *Bikoteko tratu txarrak*. 1998ko otsaileko txostena.
- IBÁÑEZ GONZÁLEZ, M. *Etxe barruko indarkeria Euskadin: tratu txarrak emakumeari. Tratu txarreko harremanak hausteko prozesuaren azterketa eta zehaztapena*. Eusko Jaurlaritz. Lehendakaritza. 2004.
- EMAKUMEAREN ERAKUNDEA. *La violencia contra las mujeres. Resultado de la macroencuesta*. 1999ko uztaila. Madrid. 2000.
- La violencia contra las mujeres. Resultado de la macroencuesta*. 2002. Madrid. 2003 (inprimaturiko edizio barik).
- III Macroencuesta sobre la violencia contra las mujeres. Informe de resultados*. 2006ko apirila (inprimaturiko edizio barik).
- MASA, M. "Antes de la política: la estructuración de lo cotidiano en el País Vasco." *Inguruak. Revista Vasca de Sociología*, 2000, 28. zenb., abendua, 153-162. or.
- MASA, M. ETA UNCETA, A. "Hacia una vida sensata: estrategias cotidianas de conciliación de las mujeres y los hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco." *Lan Harremanak. Revista de Relaciones Laborales*, 2008, 1, 149-165. or.
- MURILLO, S. *El mito de la vida privada. De la entrega al tiempo propio*. Siglo XXI. Madrid. 1.996.
- NAVARRO, V. *El subdesarrollo social de España. Causas y consecuencias*. Anagrama. Barcelona. 2006.
- PÉREZ DÍAZ, J. ETA MACINNES, J. "Valoración social del incremento de la violencia doméstica." BARRIOS, G. ETA RIVAS, P. (ED.) *Violencia de género: perspectiva multidisciplinar y práctica forense*. Madrid: Aranzadi, 2007.
- RODRÍGUEZ FRANCO, L.; LÓPEZ-CEPERO, J; ETA RODRÍGUEZ DÍAZ, F.J. "Violencia doméstica: una revisión bibliográfica y bibliométrica." *Psicothema*, 2009. 21. liburukia, 2. zenb., 248-254. or.
- SABUCEDO, J. M. ETA SANMARTÍN, J. (ED.) *Los escenarios de la violencia. Estudios sobre Violencia* (14. liburukia), Centro Reina Sofía para el estudio de la violencia. 2007.
- SANMARTÍN J. "Las raíces de la violencia." *Revista Debats*, 2000, 70/71. zenb., ("Violencia" monografía), 7-17. or.
- La violencia y sus claves*. Ariel. Barcelona. 2002.
- SANMARTÍN J. (KOORD.) *El laberinto de la violencia*. Ariel. Barcelona. 2004.



I. eranskina

Taulen eta grafikoen
aurkibidea

1. ERANSKINA. TAULEN ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1.	Grafikoa.	Adin taldeak emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009.	26
2.	Grafikoa.	Bikote harremanak eta bizkidetza emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009.	28
3.	Grafikoa.	Egoera zibila emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009.	28
4.	Grafikoa.	Bikotekidea edo bikotekideren bat azken hamar urteotan, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009.	28
5.	Grafikoa.	Seme-alabak emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009.	29
1.	Taula.	Orain etxean bizi diren pertsonak emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009.	29
2.	Taula.	Orain etxean bizi den pertsona multzoa, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009.	29
6.	Grafikoa.	Bizikidetzako gunera egindako ekarpen ekonomiko nagusiaren jatorria emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009..	30
7.	Grafikoa.	Gizarte posizioa (gizarte klase subjektiboa) emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009	30
3.	Taula.	Ikasketa maila emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009.	31
4.	Taula.	Oraingo lan egoera emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009.	32
8.	Grafikoa.	Oraingo lan egoera (landunak, langabetuak eta ez-aktiboak) emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009..	32
9.	Grafikoa.	Orain lanean ibiltzearen arrazoi nagusiak emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009 (Erantzun anitzean oinarrituriko balio hautapena)	33
10.	Grafikoa.	Oraingo ez-aktibotasun edo langabezia egoera baino lehen lanean, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009.	33
11.	Grafikoa.	Lana uzteko arrazoi nagusiak (lehen lanean eta orain langabezian edo ez-aktibotasunean dauden emakumeen artean), emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009 (Erantzun anitzean oinarrituriko balio hautapena)	33
12.	Grafikoa.	Lan bila (lehen lanean ibili diren eta orain langabezian edo ez-aktibotasunean dauden emakumeen artean), emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009	34
13.	Grafikoa.	Lana ez bilatzeko arrazoi nagusiak (lehen lanean ibili diren eta orain langabezian edo ez-aktibotasunean dauden emakumeen artean), emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009 (Erantzun anitzean oinarrituriko balio hautapena).	34
5.	Taula.	Jaioterrria emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009	35
14.	Grafikoa.	Bizilekua (udal tipologia) emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009.	35
6.	Taula.	Bizilekua (udal tipologia) emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009	35
7.	Taula.	Guztira. Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren identifikazioa Bizkaiko Lurralde Historikoan, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009 (Erantzun anitza*).	37
15.	Grafikoa.	Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia Bizkaiko Lurralde Historikoan, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009..	38
8.	Taula.	Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia bat edo gehiago Bizkaiko Lurralde Historikoan, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009	38
16.	Grafikoa.	Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia bat edo gehiago Bizkaiko Lurralde Historikoan, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009.	39

17.	Grafikoa.	Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren noiztik honakoa Bizkaiko Lurralde Historikoan, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009.	39
9.	Taula.	Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriaren sortzaile nagusia Bizkaiko Lurralde Historikoan, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009.	40
10.	Taula.	Bikotekidearen adina, emakumearen aurkako etxe barruko indarkeriaren sortzaile nagusia denean, Bizkaiko Lurralde Historikoan, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009.	40
11.	Taula.	Bikotekidearen ikasketa maila, emakumearen aurkako etxe barruko indarkeriaren sortzaile nagusia denean, Bizkaiko Lurralde Historikoan, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009.	40
12.	Taula.	Bikotekidearen lan egoera, emakumearen aurkako etxe barruko indarkeriaren sortzaile nagusia denean, Bizkaiko Lurralde Historikoan, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009.	41
13.	Taula.	Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren identifikazioa Bizkaiko Lurralde Historikoan, "tratu txar teknikoak zentzu hertsian" taldean. Ehunekoak. 2009 (Erantzun anitza*).. . . .	42
18.	Grafikoa.	Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia Bizkaiko Lurralde Historikoan, "tratu txar teknikoak zentzu hertsian" taldean. Ehunekoak. 2009.	43
14.	Taula.	Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia baten edo gehiagoren presentzia Bizkaiko Lurralde Historikoan, "tratu txar teknikoak zentzu hertsian" taldean. Ehunekoak. 2009.	44
19.	Grafikoa.	Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia baten edo gehiagoren presentzia Bizkaiko Lurralde Historikoan, "tratu txar teknikoak zentzu hertsian" taldean. Ehunekoak. 2009.	44
20.	Grafikoa.	Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren noiztik honakoa Bizkaiko Lurralde Historikoan, "tratu txar teknikoak zentzu hertsian" taldean. Ehunekoak. 2009.	44
15.	Taula.	Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren sortzaile nagusia Bizkaiko Lurralde Historikoan, "tratu txar teknikoak zentzu hertsian" taldean. Ehunekoak. 2009.	45
16.	Taula.	Bikotekidearen adina, emakumeari etxe barruko tratu txarrak ematen dizkiona denean, Bizkaiko Lurralde Historikoan, "tratu txar teknikoak zentzu hertsian" taldean. Ehunekoak. 2009.	45
17.	Taula.	Bikotekidearen ikasketa maila, emakumeari etxe barruko tratu txarrak ematen dizkiona denean, Bizkaiko Lurralde Historikoan, "tratu txar teknikoak zentzu hertsian" taldean. Ehunekoak. 2009.	45
18.	Taula.	Bikotekidearen lan egoera, emakumeari etxe barruko tratu txarrak ematen dizkiona denean, Bizkaiko Lurralde Historikoan, "tratu txar teknikoak zentzu hertsian" taldean. Ehunekoak. 2009.	45
19.	Taula.	Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia Bizkaiko Lurralde Historikoan, "adierazitako tratu txarra" taldean. Ehunekoak. 2009. . . .	46
20.	Taula.	Tratu txarraren emailearen identifikazioa, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria kasuetan, Bizkaiko Lurralde Historikoan, "adierazitako tratu txarra" taldean. Ehunekoak. 2009. (Erantzun anitza*)	46

21.	Taula.	Tratu txarraren emailearen arazoak edo patologiak, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria kasuetan, Bizkaiko Lurralde Historikoan, "adierazitako tratu txarra" taldean. Ehunekoak. 2009	47
21.	Grafikoa.	Indarkeria egoeraren eragin erabakigarria, bikotekiderik gabeko emakumeen harremanaren amaieran, Bizkaiko Lurralde Historikoan, "adierazitako tratu txarra" taldean. Ehunekoak. 2009.. . . .	47
22.	Taula.	Indarkeria egoerako harremanak haustearen ondorioak: eraginpeko emakumeen iritzia Bizkaiko Lurralde Historikoan, "adierazitako tratu txarra" taldean. Ehunekoak. 2009 (Erantzun anitza)..	47
22.	Grafikoa.	Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren berri inguru hurbilean, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009.. . . .	48
23.	Taula.	Emakumeen arazo nagusiak emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009. Handienetik txikienera antolatuta guztizkotik. (Bi aukeratan oinarrituriko erantzun anitza*).	48
23.	Grafikoa.	Emakumeen lau arazo nagusiak emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009 (Erantzun anitza).	49
24.	Taula.	Inguru hurbileko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren biktimak den emakumea, emakume taldeen arabera.. . . .	49
25.	Taula.	Inguru hurbileko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren iraupena emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009.. . . .	50
24.	Grafikoa.	Tratu txarren emailearen identifikazioa, inguru hurbileko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretan, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009. . . .	50
25.	Grafikoa.	Inguru hurbileko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren tipologia emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009.	50
26.	Grafikoa.	Salaketaren berri izatea, inguru hurbileko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria kasuetan, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009.	51
26.	Taula.	Harremanak hausteko oztopo nagusiak, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretan, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009. Handienetik txikienera antolatuta guztizkotik (hiru aukeratan oinarrituriko erantzun anitza*)	51
27.	Grafikoa.	Harremanak hausteko lau oztopo nagusiak, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretan, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009. (Erantzun anitza*).	52
28.	Grafikoa.	Zer egin edo nora joan jakitea, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretan, emakume taldeen arabera.	52
29.	Grafikoa.	Erabil daitezkeen baliabideak, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretan, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2009.	53
30.	Grafikoa.	Identifikaturiko etxe barruko indarkeria kasuen identifikazioa taldeen arabera. Ehunekoak. 2005-2009.	57
31.	Grafikoa.	Emakume taldeen bilakaera adin tartean arabera. Ehunekoak. 2005-2009.	58
32.	Grafikoa.	Emakumeen batez besteko adinaren bilakaera, taldeen arabera. Ehunekoak. 2005-2009	58
33.	Grafikoa.	49 Urteko eta gutxiagoko emakumeen bilakaera, taldeen arabera. Ehunekoak. 2005-2009	58
34.	Grafikoa.	Jatorriz atzerritarrak diren emakumeen bilakaera, taldeen arabera. Ehunekoak. 2005-2009	59

35. Grafikoa.	Emakumeen klase ertaineko posizioaren bilakaera, taldeen arabera. Ehunekoak. 2005-2009.	59
36. Grafikoa.	Adierazitako tratu txarra taldearen bilakaera, gizarte klase subjektiboaren arabera. Ehunekoak. 2005-2009.	60
37. Grafikoa.	50.000 Biztanleko edo gehiagoko udalerrietan bizi diren emakumeen bilakaera (1. Udal tipologia), taldeen arabera. Ehunekoak. 2005-2009.	60
38. Grafikoa.	Emakume aktiboen bilakera (landunak eta langabetuak), taldeen arabera. Ehunekoak. 2005-2009.	60
39. Grafikoa.	Emakumeen bilakaera bizikidetzako gunera diru ekarpenik handiena bikotekideak egiten duenean, taldeen arabera. Ehunekoak. 2005-2009.	61
40. Grafikoa.	Egoera ekonomikoa, harremanak hausteko oztopo nagusia, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria dagoenean, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005-2009.	61
41. Grafikoa.	Emakumeen aurkako etxe barruko lau indarkeria tipologiaren presentziaren bilakaera, taldeen arabera. Ehunekoak. 2005-2009.	62
42. Grafikoa.	Emakumeen aurkako etxe barruko lau indarkeria tipologiaren presentziaren bilakaera, taldeen arabera. Ehunekoak. 2005-2009.	62
43. Grafikoa.	"5 Urteko aldia eta laburragoa" taldearen bilakaera, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretan, taldeen arabera. Ehunekoak. 2005-2009.	62
44. Grafikoa.	"Alkohola neurri barik edatea" eta "matxismoa" deritzenen bilakaera, tratu txarraren emaileari dagokionez, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria kasuetan, Bizkaiko Lurralde Historikoan, "adierazitako tratu txarra" taldean. Ehunekoak. 2005-2009.	63
45. Grafikoa.	"Emakumearen aurkako indarkeria egoerak" deritzenen bilakaera, emakumeen arazo nagusizat, taldeen arabera. Ehunekoak. 2005-2009.	63
46. Grafikoa.	Inguru hurbileko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeren berri izatearen bilakaera, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005-2009.	64
47. Grafikoa.	Inguru hurbileko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria kasuak salatzearen berri izatearen bilakaera, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005-2009.	64
48. Grafikoa.	Inguru hurbileko emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria egoeretan zer egin eta nora joan jakitearen bilakaera, emakume taldeen arabera. Ehunekoak. 2005-2009.	64



II. eranskina

**Telefonozko galdeketa
(2009ko maiatza-ekaina)**

Telefonozko galdeketa (2009ko maiatza-ekaina)

Egun/Arratsalde on: Nire izena ... da, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumea eta Familia Zerbitzutik deitzen dizut. Ikerketa bat egiten ari gara emakumearen egoera orokorra zein den jakiteko (kezka nagusiak, harremanak, seme-alabak, etab.), eta zure iritzia jakin nahiko genuke. Ausaz hautatu zaitugu ikerketa honetan parte hartzeko, eta, beraz, zure erantzunak anonimoak izango dira (estatistika-sekretuari buruzko legearen arabera).

- 1. aukera: onartu egin du → lehenengo galdera egin.
- 2. aukera: ikerketa ofiziala izateari buruzko zalantzak ditu → adierazi 94-4066900 telefono-zenbakia, Emakumea eta Familia Zerbitzuaren erreferentziatut.
- 3. aukera: ez du onartu → eskerrak eman eskaintako arretagatik.
- 4. aukera: deia beste une batean edo beste telefono batera egin.

EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK

1. Esango didazu zure adina, mesedez? _____ [18 urtetik gorakoekin bakarrik jarraitu]
2. Eta zure ikasketa maila?
 - Alfabetatu gabe 1
 - Lehen ikasketak, amaitu gabe 2
 - Lehen ikasketen ziurtagiria / OHO titulu barik 3
 - Eskola-graduata / Oinarrizko batxilerra errebalidarekin 4
 - 1. gradu LH (teknikari laguntzailea) / Industria-ofizialtza 5
 - 2. gradu LH (teknikari espezialista) / Industria-maisutza 6
 - BBB/UBI/UAI/Goi-batxilergoa errebalidarekin 7
 - 1. zikloko unibertsitate-titulazioa (Diplomatura) 8
 - 2. zikloko unibertsitate-titulazioa (Lizentziatura) 9
 - 3. zikloko unibertsitate-titulazioa (Doktoregoa) 10
 - Bestelakoak. Zehaztu. 11
3. Zein probintzian (non) jaiotzen zinen? _____
 - Atzerritarra izanez gero, adierazi nazionalitatea (estatua) _____
4. Zein da zure egoera zibila?:
 - Ezkonduta 1
 - Dibortziatuta. Ezkontza ezeztaturik 2
 - Banantzeko edo dibortziazeko tramitean 3
 - Bananduta (egotez) 4
 - Bananduta (legez) 5
 - Ezkongabea 6
 - Adosturiko bikotea erregistratuta 7
 - Adosturiko bikotea erregistratu barik 8
 - Alarguna 9
5. Zure egoera zibila edozein izanik ere, gaur egun:
 - Bikotekidea daukazu eta berarekin bizi zara (etxe berean) 1 (igarot 6. g.ra)
 - Bikotekidea daukazu baina ez zara berarekin bizi (etxe berean) 2 (igarot 6. g.ra)
 - Ez daukazu bikotekiderik 3 (igarot 9. g.ra)
6. Zein da zure oraingo bikotekidearen adina? _____
7. Eta bere ikasketa maila (bikotekidearena)? _____ (Errepikatu 2 g. kodea)

8. Noiztik hona zaude zure oraingo bikotekidearekin? ____ (urte kopurua, gutxi g.)
9. [5. g.ko 3. kategoriarako bakarrik, baldin eta 8. g.n 10 urte baino gutxiago izan bada] Izan duzu bikotekiderik edo beste bikotekideren bat azken hamar urteotan?
- Bai 1 → Bat baino gehiago? ____ (g. gorabehera, zenbat?)
 - Ez 2
10. Baduzu seme-alabarik?
- Bai 1 zenbat? ____ → zenbat urtekoak? (adierazi banan-banan)_
 - Ez 2
11. Guztira eta zu zeu ere kontuan hartuta, zenbat pertsona bizi dira zure etxean orain?
12. Nortzuk dira? (erantzun anitza, iradoki barik)
- Bikotekidea 1
 - Seme-alabak 2
 - Familiako b. batz. 3 → nortzuk? _____
 - Fam. ez diren beste batzuk 4 → nortzuk? _____
 - Bakarrik bizi naiz 5

LANA

13. Zein da zure oraingo lan-egoera (lana)? { 11. g. }
- | | | |
|--|----|----------------|
| - Neure kontura lanean (Autonomoa) | 1 | Igaro 15. g.ra |
| - Administrazioan lanean. Publikoa | 2 | |
| - Inoren konturako lanean (kontratu mugagabea) | 3 | |
| - Inoren konturako lanean (a. baterako kontratua) | 4 | |
| - Kontratu barik lanean | 5 | |
| - Etxeko langilea | 6 | |
| - Etxekoandrea / Etxeko lanak | 7 | Igaro 16. g.ra |
| - Ikaslea | 8 | |
| - Langabetua langabezia kobratzen | 9 | |
| - Langabetua langabezia kobratu BARIK | 10 | |
| - G. Segur. pentsioduna (alargunt., aurre-erret. edo erret.) | 11 | |
| - Ezgait. Iraunkor. edo Ezintasuneko Pents. kobratzen | 12 | |
| - Gizarte Laguntz. jasotzailea (Sorosp., Oin. Errenta,...) | 13 | |
| - Erretiroduna edo Ezindua Pents. eta Lag. barik | 14 | |
| - B. egoera batzuk (zehaztu) | 15 | |
14. Eta zure bikotekidearen oraingo lan-egoera? ____ (Errepikatu 13. g. kodea)

GAUR EGUN LANEAN ARI DIRENTZAT BAKARRIK (13. g.ko 1-6 kateg.)

15. Esan, mesedez, zuk lan egiteko bi zergati nagusiak zein diren?
- Nire diru-sarrerak etxea mantentzeko ezinbestekoak direlako 1
 - Nire lanbide-ezagupenak aplikatu egin nahi ditudalako 2
 - Autonomia pertsonal handiagoa edukitzeko (inoren mende ez egon) 3
 - Independentzia ekonomiko handiagoa edukitzeko 4
 - Etxetik irteteko eta harremanak izateko 5
 - Diru gehiago edukitzeko 6
 - B. batzuk (zehaztu) 7 (igaro 20. g.ra)

GAUR EGUN LANEAN ARI EZ DIRENENTZAT BAKARRIK (13. g.ko 7-15 kateg.)

16. Izan duzu ordaindutako lanik inoiz?

- Bai 1 (igaro 17. g.ra)
- Ez 2 (igaro 18. g.ra)

17. Eta zergatik amaitu zen? (erantzun anitza, iradoki barik)

- Ez zegoen ondo ordainduta 1
- Ez zitzaidan komeni ordutegia (ezin nuen ordutegia adiskidetu) 2
- Ezkondu egin nintzen 3
- Etxeko lanak egiteari ekin nion 4
- Seme-alabak zaindu behar nituen 5
- Nire bikotekideak ez zuen nik lan hori egiterik nahi 6
- Amaitu egin zitzaidan kontratua 7
- Ez nuen lan horretan jarraitzeko interesik 8
- Erretiroa/aurre-erretiroa hartu nuen 9
- B. egoera batz. (kaleratu egin ninduten, kontratua berritu ez, etab.) 10 → zeintzuk? ____

18. Lan bila ari zara orain?

- Bai 1 (igaro 20. g.ra)
- Ez 2 (igaro 19. g.ra)

19. Zergatik ez? (erantzun anitza, iradoki barik)

- Oraindik prest ez nagoelako 1
- Nahiago dut oraingo moduan jarraitu 2
- Seme-alabak zaindu gura ditudalako 3
- Adinik ez dudalako 4
- Bikotekideak nahi ez duelako 5
- Seme-alabek nahi ez dutelako 6
- Familiako beste batzuk nahi ez dutelako 7
- Lanik ez dagoelako (lana aurkitzea oso zaila) 8
- Beste egoera batzuk 9 → zeintzuk? ____

EMAKUMEAREN EGOERA

20. Zein dira, zure ustez, zure eta zeure inguruko emakumeen oraingo bi arazo nagusiak?

- Zailena lana eta familia adiskidetzea da 1
- Emakumearen lan-baldintza txarragoak 2
- Etxeko lanek duten balorazio urria 3
- Emakumearen eginkizunaren onarpen urria gizartean 4
- Seme-alabak heztea oso zaila da 5
- Emakumearen aurkako indarkeria-egoerak 6
- Bestelakoak 7 → zeintzuk? ____

21. [Egin guztiei, orain bikotekiderik ez duten (5. g.ko 3. kategoria) eta, gainera, bakarrik bizi diren (12. g.ko 5. kategoria) emakumeei izan ezik] Gaur egun, zure etxeko pertsonaren batek edo bikotekideak (elkarrekin bizi ez arren), zure iritziz, zein maiztasunarekin, ...?

22. Nor da pertsona hori?

	21. g.				22. g. Nor da pertsona hori? (21. g.ko 1. eta 2. erantzunak bakarrik)									
	Sarritan	Batzutan	Gutxitan	Inoiz ez	Ed/ Ee	Bikotekidea	Semea(k)	Alaba(k)	Aita	Ama	Seme-alaba(k)	Familiako b. batzuk	Fam. ez diren b. batz.	Ed/ Ee
1. Ez dizu uzten familia ikusten edo lagunekin eta auzokoekin harremanak edukitzen, elkartzan,...	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
2. Irabazten duzun dirua kendu edo ez dizu ematen autonomiaz bizitzeko beste.	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
3. Oihua, irainak edo mehatxuak egiten dizkizu.	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
4. Etxeko gauzak apurtzen ditu.	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
5. Ez dizu uzten lanik egiten edo ikasten.	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
6. Gastuak kontrolatzen dizkizu (aurrezki-libretak, txartelak,...).	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
7. Dirua alferrik galten du, familiaren beharrezkoak kaltetan.	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
8. Presionatu egiten zaitu sexu-harremanak izateko orduan, zuk nahi ez duzula edo gogorik ez duzula jakin arren (ekin egiten du).	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
9. Ez dizu kasurik egiten zuk sexu-harremanak nahi dituzunean (ez ditu zure sexu-beharrezkoak asetzen).	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
10. Ez ditu zure sinesmenak baloratzen (ideologikoak, erlijiozkoak,...), edo ez ditu kontuan hartzen zure zaletasunak (ez du atsegin zure janzkera) edo beharrezko afektiboak.	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
11. Bultzatu, jo edo gauzak jaurtikitzen dizkizu.	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
12. Ez du baloratzen egiten duzun lana.	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
13. Gauzak bakarrik egiteko gauza ez zarela esaten dizu, gauza guztiak txarto egiten dituzula, traketza zarela.	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9
14. Leku txarrean uzten zaitu (izen ona kendu, gezurtatu, barregarri utzi) beste batzuen aurrean (jendaurrean, lagunekin, familiakoekin, etab).	1	2	3	4	9	1	2	3	4	5	6	7	8	9

23. [21. g.ko 1 (sarritan) eta 2 (batzuetan) erantzunak bakarrik, eta 22. g.an adierazitako pertsoneri bakarrik galdetu] Eta ...-k noiztik hona eragiten ditu halako egoerak?

	Urte 1 baina gutxiago	1 eta 5 urte bitartean	6 eta 10 urte bitartean	10 urte baina gehiago	Ed/Ee
1. Bikotekideak	1	2	3	4	9
2. Zure semeak(ek)	1	2	3	4	9
3. Zure alabak(ek)	1	2	3	4	9
4. Zure aitak	1	2	3	4	9
5. Zure amak	1	2	3	4	9
6. Zure neba-arrebek	1	2	3	4	9
7. Familiako beste batzuek	1	2	3	4	9
8. Familiakoak ez diren beste batzuek	1	2	3	4	9

24. [Inkestan parte hartu duten guztiei galdetu.] Azken bi urteotan, sentitu duzu inoiz familiakoren batek edo zurekin bizi den pertsonak tratu txarra eman dizula, edo harreman afektibo/sentimentalen batean tratu txarra jasan duzula?

- Bai 1 (igaro 25. g.ra)
- Ez 2 (igaro 28. g.ra edo 30. g.ra)

TRATU TXARREKO EGOERAN DAUDELA ONARTZEN DUTENENTZAT BAKARRIK (24. G., BAI)

25. Zein alderditan sentitzen duzu edo sentitu duzu tratu txarra? _____

[Erantzun irekia, indartu lehen adierazitako alderdiekin]

26. Nork eman dizu tratu txarra? (erantzun anitza, iradoki barik)

- Bikotekideak 1
- Semeak(ek) 2
- Alabak(ek) 3
- Aitak 4
- Amak 5
- Neba-arrebak 6
- Familiako b. batzuek 7 → nork? _____
- Fam. ez diren b. perts. b. (bikotekide ohiak) 8

27. Pertsona horiek badute edo izan dute halako arazorik? (erantzun anitza)

- Alkohol gehiegi edan 1
- Drogak hartu 2
- Kolokako lan-egoera (behin-behinekotasuna) 3
- Langabezia 4
- Laneko presioa (estresa) 5
- Arazo psikikoa (burukoa) 6
- Matxismoa (jeloskortasuna, jabetza-zentzua) 7
- Beste arazo batzuk 8 → zeintzuk? _____

TRATU TXARREKO EGOERAREN ERAGINEZKO HAUSTEEN IDENTIFIKAZIOA AZKEN 10 URTEOTAN

28. [Azken 10 urteotan bikote-harremanak hautsi dutenentzat bakarrik (9. g.ko 1. kategoria)]
Tratu txarreko egoeraren batek eragin erabakigarria izan zuen harremanen amaieran?

- Bai 1 (igaro 29. g.ra)
- Ez 2 (igaro 30. g.ra)

29. Harremanen amaierak ekarri zizkizun balizko ondorioak... (erantzun anitza)

	Sarritan	Batzuetan	Gutxitan	Inoiz ere ez	Ed/Ee
1. Ahozko mehatxuak	1	2	3	4	9
2. Erasoak	1	2	3	4	9
3. Jazarpena	1	2	3	4	9
4. Beste bikote-harreman batzuetan sartzea	1	2	3	4	9
5. Arazoak seme-alabekin	1	2	3	4	9
6. Arazoak familiako beste batzuekin	1	2	3	4	9
7. Lan-arazoak	1	2	3	4	9
8. Arazo emozionalak (depresioa, antsietatea)	1	2	3	4	9
9. Arazo ekonomikoak	1	2	3	4	9
10. Gizarte-baliabideak lortzeko arazoak	1	2	3	4	9
11. Familiako arduraren osoa zeuretzat	1	2	3	4	9
12. B. ondorio batzuk, zein? _____	1	2	3	4	9

INGURU HURBILEKO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EGOEREN BERRI

30. [Galdetu inkestan parte hartu duten guztiei.] Bestalde, badaukazu zeure inguru hurbilean (familia, lagunak, auzokoak, lana) tratu txarrak jasaten dituen emakumeren baten berririk?

- Bai 1 (igaro 31. g.ra)
- Ez 2 (igaro 35. g.ra)

TRATU TXARREKO EGOERAK EZAGUTZEN DITUZTENENTZAT BAKARRIK (30. G., BAI)

31. ... da? Eta nor izan da?... (erantzun anitza)

	Urte 1 baino gutxiago	1 eta 5 urte bitartean	6 eta 10 urte bitartean	10 urte baino gehiago	Ed/Ee
1. Ama	1	2	3	4	9
2. Alabak	1	2	3	4	9
3. Ahizpak	1	2	3	4	9
4. Amaginarreba (oraingo bikotekidearen ama)	1	2	3	4	9
5. Familiako b.b., nortzuk? _____	1	2	3	4	9
6. B. emakume b., nortzuk? _____	1	2	3	4	9

32. Nork eman dio tratu txarra? _____ [Erantzun irekia]

33. Zer tratu txar mota izan da? _____ [Erantzun irekia]

34. Badakizu salaketarik jarri duen? _____ [Erantzun irekia]

GALDETU INKESTAN PARTE HARTU DUTEN GUZTIEI

35. Inguru hurbileko tratu txarreko egoeren berri izan arren, zure ustez, zergatik ez dira hausten halako harremanak? **(gehienez hiru erantzun)**

- Bikotekidearen mendekuaren beldurragatik 1
- Baliabide ekonomikorik ez izateagatik 2
- Seme-alabengatik (famiaren batasuna mantentzeko) 3
- Fam. kid. ardurap. edukitz. (adinekoak, mendekoak, desgaitasuna) 4
- Familiako gainerako kideengatik (ez dute onartzen) 5
- Erakundeek ez laguntzeagatik (baliabideak, zerbitzuak, etab.) 6
- Tratu txarraren emaila aldatu egingo dela pentsatzeagatik 7
- Maite dutelako (mendekotasun emozionala) 8
- Oraingo kulturarengatik/balioengatik (matxistak) 9
- Bakardade-egoerarengatik 10
- Lotsagatik (jendeak zer esango duen) 11
- B. zergati b. (hez. morala, espetx. sartuko lituzkete, etab.) 12 → zeintzuk? _____

36. Jakingo zenuke tratu txarreko egoeretan zer egin edo nora joan?

- Bai 1 Zer egingo zenuke? Nora joango zinateke? [Erantzun irekia]
- Ez 2

37. Eta, amaitzeko, zure ustez, zein gizarte-klasetakoak zarete zu zeu eta zeure familia?

- Altua 1
- Ertaina-Altua (diruduna) 2
- Ertaina 3
- Ertaina-Baxua (langilea) 4
- Eskasa 5

38. Nork egiten du diru-ekarpen nagusia zeure etxean:

- Zeuk 1
- Zure bikotekideak 2
- Biok berdin 3
- Seme-alabek 4
- Fam. b. batzuek 5 → nortzuek? _____
- Guztiok berdin 6 → nortzuek? _____

39. Galdeketan jaso gabeko beste alderdiren bat adierazi nahi baduzu...

Benetan eskertzen dugu zeure laguntza

40. Inkestagilearen iruzkinak/oharrak: _____



Emakumeen aurkako etxe barruko Indarkeria

2009ko emaitzak eta
2005-2009 konparazioa
Bizkaiko Lurralde
Historikoan



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia